Beranduago, Munduko I Guda eta gero Alemaniako gorputz hezkuntza eta Kirolarako aldakuntza nabariak izan zen. Emakumeak zituen giza-muga asko eta kirolarako orokorrean desagertu ziren (Rosique Muro, 1997).

Amorós (militar eta teoriko espainola) Frantziako gimnasia-sistema sortzailea kontsideraten dute. Berak sortu zuen “Sistema de Gimnasia Natural” delakoa. Autore honen ikuspuntutik gizarte moderno baterako gimnastika oinarri bat zen (Torrebadella Flix, 2014). Baina berak emakumeentzako egia esanda, sortutako lan berezirik ez zuen egin. Frantzian, kirolaren arloan

emakume oso garrantzitsua jaio zen , Alice Melliart (Nantesen 1884), honek emakume kirolarien alde asko borrokatu zuen.

Alice Melliartek, Joko Olinpikoetan eta mundu mailan zeuden une hartako txapelketa guztietan emakumeak lehiatzeko erakunde bereziak sortu zituen (Mundu mailan Kirol Txapelketak ospatzeko). FSFIa zigorra bihurtu zen IAAFarentzako (Atletismo Nazio Arteko Federazioa), emakumeen partehartzea lortu arte. Hauen immobilismoaren aurrean Melliartek sortu zituen I Munduko Emakume Jokoak Parisen 1922. urtean izugarrizko arrakasta lortuz (mujerydeporte.wordpress.com, 2007). Bigarren lehiaketan, Goteborgen 1926an, muga askoz goian jarri zen. Dena den, 1930. eta 1934.ko Joko Olinpikoetan kasu gutxi egin zieten emakumeeki, bere ikuspuntutik, Munduko Emakume Jokoak Pragan (Txekoslovakian) eta Londresen hurrenez hurren (Jiménez, 2015).

Eta eutsi zuen, horrela jarraitu zuen bere helburuak lortu arte. (Jiménez, 2015). Melliartek Europako txapelketa askotan emakumea parte hartzea lortu arren, Espainiako estatutik urte luzeetan zehar emakumeek ez zuten parterik hartu Joko Olinpikoetan.

Beste adibide bat aurkitu dugu Bulgarian. Bertan, Gorputz Hezkuntza futzionalki teoria kontutan harturik emakumea eta gizonentzako desberdintzen zen, sexoaren arabera. Gizonen indarra eta emakumeen ugalketarako papera indartuz eta landuz (Mircheva, 2011). Eta beraiantzako zeuden ariketak eta antolakuntzsa guztia etxeoandre eta ama izatera zuzenduta zeuden (Mircheva, 2011).

ASIAN ere emakume kirolariari buruz hainbat lanak topatu ditugu.

Txinako herrialdeko egoera adibidez. Txinako historian zehar egon ohi dira emakumeentzako jarduera fisikoak baina gizonen menpe betidanik. Urteak joan ahala aldaketak gertatu dira gizarte honetan. Gaur egungo eskoletan izaugarritzko garrantzia ematen diote gorputz hezkuntzari.

In more than 5,000 years of feudal history, there were some traditional forms of women's physical exercise and entertainment. Among these were taqin (gentle walk in the spring), fang fengzheng (flying a kite), and tijianzi (kicking the shuttlecock). Some court games were played by women but aimed at entertaining men... in feudal society... They were very often victimized by the male-dominated society with its values deeply rooted in Chinese cultural tradition... This dependence was gradually but spasmodically reduced by both internal and external changes after 1840... initiated the anti-footbinding movement in order to provide physical mobility, prerequisite of equality. In 1907 schools and a women's normal college. These acts stated that the good education of the citizens of the empire depends upon the good education its women. These new schools were expected to emphasize student's physical, as well as intellectual and moral, development. (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:222-223)

XX. Mendean Txinan berrikuntzekin batera eskola bereziak sortu ziren non emakumeentzako gorputz hezkuntza oinarrizko ardatza lez agertzen zen: "Shanghai Chinese Gymnastics School for Women, 1908 eta Shanghai Liangjiang Women's College for Physical Education and Sport, 1909". (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:224).

Herri honetan komunismoa nagusitu zenetik, kirol eta jarduera fisiko guztiak eztanda egin zuten, zabaldu ziren "Meanwhile, sports competitions for women were developing rapidly. In 1922 Beijing's Women's Normal University..." (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:226).

Gaur egun emakumezko kirolari txinatarrak munduko onenatarikoak dira, behintzat espezialitate batzuetan. Erregimen berriak interes oso zehatzak zituen, emakumearen papera aldarrikatzea besteak beste. Horrela, Txinan zegoen iraultzaren balore onenarekin emakumea herrialdean bizi zuten iraultzaren balio onenarekin identifikatu nahi zuten. "Women were particularly encouraged to participate in physical activities, as a symbol of China's refuting

Confucian tradition and establishing revolutionary culture” (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:227).

Jarduera Fisiko guzti hoietan parte hartzeko animatuak izaten ziren eta ez soilik leihaketarako. “Iraultza”rako emakueak jarduera fisiko ezberdinetan bultzatzeko interes oso handia zegoen. Txapelketen garrantzia handia izan arren, ezin da ahaztu irakaskuntza-kurrikulumerako Gorputz Hezkuntzak espazio zabala okupatzen duela Txinan oso pisu handia dauka.

From the beginning of the People’s Republic, physical education was a central part of the school curriculum. Boys and girls in primary en middle schools received at least two hours of physical education coursework every week and exercised for at least one hour each day. (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:227).

Asiako hegoaldean, Indian, Ghosh Bhattacharyak (2009) kontatzen digu nola 1879. urtean sortu zen Indiako lehendabiziko emakumentzko ikastetxea (The first women’s college in India). Gezurra iruditu arren, hainbeste kilometro egon Bizkaia eta Indiaren artean, amankomunean bazeduen puntu batzuk, adibidez emakumeak erabiltzen zuten arropa guztiz deserosoa zela, kirolaren eragina emakumeengan edota kirol gehienak debekatuak zirela emakumeentzako. Bethune Collegean emakumerentzako gorputz hezkuntza curriculumean XX. mendean, 1928.an, sartu zen irakasle berri batzuekin batera. “(...) well-qualified physical instructors, Miss Doris Webber”. (Ghosh Bhattacharya, 2009:1853).

Ariketa asko, lan handia egin eta gero ikastetxe honen kirolarien maila ona izatera ailegatu zen. Eta zailtasun hoiekin topatu arren, hasierakoak, emakume hauek aukera ederrak izan zituzten Indiako beste emakumeek zituztenekin konparatuz, bai kirol arloan bai beste arlo batzuetan. Jakina ezin ahaztu ikastetxe honetako ikasleak goi mahilako familiakoak zirela.

Omanen, Al-Sinaniri (2012) esker badakigu hango emakume kirolarien egoera atzeratuago doala gurearekin konparaturik partehartze ikuspuntutik. Omanen 1970. urtean heziketa fisikoa, eskola eta institutuetan, ezarri zen emakumea eta gizonentzako.

AFRIKAKo egorari buruz ere lan batzuk topatu ditugu. Odendaal historia irakasleak Hegoafrikan egin zuen ikerketa bat 2011.an, emakume eta cricketari buruz.XIX. mendearen hasieran cricketa gizonarentzat kontsideratzen zen soilik, eta are gehiago, gizon zuriarentzat. Hegoafrikan lehenengo berria emakume cricket partidu batetaz 1888. urtekoa da (Odendaal, 2011). Autore berberarekin jarraituz, emakume beltzez osatutako lehenengo taldea sortu zen Kimberley 1909an. Baina nahiz eta emakume hauek jadanik jolastu cricketarekin urte dexente geroago hasi ez zuten lortu hedapen inportaterik urte asko pasatu arte. XX. mendean oraindik ezberdintasun nabariak zeuden Ingalaterra eta Hegoafrikaren artean emakumezko cricket talde kopuru aldetik: Ingalaterran 73 kluba eta 65 eskolak zeuden, ostera Hegoafrikan 3 talde baino ez (Odendaal, 2011).

Gure bidai honek OZEANIA aldera eramango gaitu hurrengo informazioekin. Zelanda Berrian, beste aldetik, XX. mendearen lehenengo laurdenean guretzako den futbola hasi zen, beraiek soccer deitzen diote honi. Deskribapen laburra eta argazki baten bat Wellingtoneko Aotea Ladies Football Clubena 1921.ko dago (Cox, 2012). Herri honetan cricketari buruzko berriak aurkitu ditzakegu, hauen adibidea Wellington eta Christchurch taldeen arteko jokaturako partidua 1921ko irailak 24an (Cox, 2012). Baina berri hauek izan arren, emakumeentzako parte hartzea jarduera fisiko ezberdinetan zailtasun handiekin jarraitzen zen eta beraiek praktikaturakoa egiazko soccer edota rugbya ez zen kontsideratzen (Cox, 2012). Hori izan zen arrazoi bat netballari emateko leku berezi bat emakumeen praktikarako. Saskibaloiarekin nahasten zuen jendeak espezialitate hau hasiera batean, baina gutiz diferenteak dira. 1970. hamarkadatik aurrera netball (emakumezko kirola eskusiboa) praktikatu egiten da. 20. eta 60. hamarkaden artean netballa saskibaloia edota batzutan soto-door izenekin ezagutzen zen, izen ofiziala ez zen izango 1970. hamarkada arte (Cox, 2012).

Beste aldetik betiko, bazeuden ideia batzuk emakume kirolarien kontrakoak jakina: kirola txarra bular-elikadurarako, errez lesionatu zitekeen neskak atletismoan eta beste jarduera batzuetan besteak beste. Are gehiago, txirrindularitzak emakumeak prostituzio aldera eramateko gai zela baieztatzen zen.

Hockey could disable women from breastfeeding. Athletics was seen as a corrupting influence for a properly brought young girl... Cycling was an indolent and indecent practice which would even transport girls to prostitution. Sport generally, was likely to do irreparable damage to the adolescent girl” (Odendaal, 2011:117).

Atal honen laburpen gisa, esan dezakegu emakumearen presentzia kirol arloan munduko Leku gehienetan, orokorrean, eskasa izan zela eta salbuespenak egon arren kirolean parte hartzeko egoera ez zen oso egokia emakumearentzako munduko lurralde gehienetan.

1.2. Emakumea eta kirola Espainiako estatuan

Errepublikari esker Espainiako estatuan orokorrean aurrerapen dezente lortu ziren, baita kirol munduan ere. Garai hartan, emakumearen parte-hartzea sustatu nahi zen. Dena dela, frankismoa heltzean XX. mendearen hasierako eredura bueltatu zen, frankismoa ailegatu zelako: lortutakoa desagertu bait zen.

Klub pribatuak oso garrantzitsuak izan ziren, baina kirol klub pribatu horiek nahiko klasistak zirela egia da, goi-mailako jendeak atek irekita zituen, besterik ez.. Kirolean aritzeko: hasiera batean nortzuk zuten denbora libre? Goi-mailako jendeak baino ez. Denborarekin, kirola joan da zabaltzen jende guztiarentzako (kirol gehiehetan), jende guztiak gero eta aisialdi gehiago bait du, hau argi gelditzen da Sentamansék (2010) argitaratutako lanean, bertan identitate femenino berri bat agerpenari buruzko berriak jasotzen ditu.

Aipagarria da Errepublika garaian Katalunian zenbait klub ideologia zehatz batekoak zirela, ezkertiarak eta nazionalistak, honek erakusten du momento politiko horiek nahiko zabalak zirela.

Eta Bartzelonetaz aparte Madrilen giro liberalagoa zegoela baita ere (Sentamans, 2010). Baina guda heltzean aldaketak egon ziren eta emakume kirolarien kopurua jeitsi zen berriro.

A partir de la década de 1920, y con el posterior amparo de la II República, la mujer española comenzó a incorporarse a deportes menos elitistas como el atletismo, remo o el baloncesto, hecho que acercó la práctica deportiva a un mayor número de féminas, lo que se vió truncado con la llegada de la Guerra Civil Española. (Barrás Sales , Año Sanz, 2014:648)

1.2.1. Emakumearen irudia eta papera XX. mendearen hasieran.

Atal honetan, Errepublikako urteetara heldu aurretik kirola eta emakumearen gaiarekiun gertatutakoa aztertuko da.. Horretarako, historian atzera egin behar dugu pixka bat. Aurreko urteetan gertatutakoaren jarraipena baino ez zen izan, nahiz eta autore askok kirolaren onuraz hitz egin. Horren adibide argia Emilia Pardo Bazanena da. Jakina, emakumeen kasuan onurak aipatzen ziren ama izateko orduan positiboa izan zitekeelako, besterik ez.

Jada, Espainiako zenbait idazlek hori adierazten zuten. Esaterako, *Molla* doktoreak 1931. urtean aspektu genetikoa eta biologiaren abiapuntua hartu zuen bere teoriarako, eta horri esker emakumeentzako gimnastika eta kirola zabaltzen hasi ziren, garai hartako zeuden helburuak kontuan izanda, noski. Hau da, emakume osasuntsu batek gaitasun handiagoa izango zuen umeak hobeto zaintzeko eta familiaz hobeto arduratzeko

Frankismo garaian, emakumearen inguruko “*Angel del Infierno*“ ideia errotu zen, eta ondorioz, emakumearen egoerak ez zuen aldaketa handirik. Adibidez, Hermida Martinek (2012) Kanariar uharteetan egindako tesian gerraren ostean emakumearen egoera nolakoa zen deskribatzen du. Irlak aparte daude, modernitatearen eragina oso berandu ailegatu zen, horregatik hain zaila den edozein gauza aldatzea gizarte horretan. Lan honen ondorioetan irakurri daiteke zer zaila izan den uharte hauetan emakumeen borroka aurrera ateratzea. “Boom” turistikoa heltzean uharteetako

emakumeek independentzia ekonomiko handiagoa lortu zuten, eta horrek aldaketa nabarmenak ekarri zituen, iraultza txiki bat irletan.

Noiz hasi ziren emakumeak kirola egiten?. Zeintzuk ziren kirol eta jarduera fisiko horiek?. Frankismoaren garaipenaren aurretik, espainiar estatuan 1936 eta 1939 urteen bitartean bizitza asko aldatu zen, hiru urtetako gudaren ostean herri mailan aldaketa sakonak izan ziren. Ondorioz, emakumezkoei dagokienez Errepublikan emandako edota lortutako aldaketa asko erregimen berriarekin desagertu ziren. Guzti hau argi eta garbi zegoen nazionalen aldean (Sainbraum Doktorea, 1934).

Horrek ez du esan nahi benetan emakumearekin kontaktzen zutenik (ez boterea konpartitzeko ez beste gauza garrantzitsuetarako ere). Garai oso berezi eta larri batean zeudenez hainbat momentutan aurpegi garbiketa horrekin agertu ziren babesak lortzeko. Azken finean, emakumeen lana eta sostengua behar zuten. Frankismoa heldu baino Lehen Errepublikaren feminitate-idea tradizionalataz aparte beste bat zegoen irekiagoa, kirolaria. Baina erregimen berriarekin hori guztia desagertu zela, aurretik guztiz urrundu zirela, alegia. Oinarri zientifikoak eta erlijiosoak hartzen ziren kontuan. Garbiak izan behar ziren (Manrique Arribas, 2009). Hori dela eta, artikulu horretan argi ikus daiteke garai hartako gizarteak pertsona bakoitzarentzak zeregin batzuk zituela (sexuaren araberako zereginak, jakina) . Horregatik ES-ren papera oso garrantzitsua zen, eta bere eskuetan utzi zuten emakumeen formakuntza osoa- Kontzeptu materialetan baino gehiago kontzeptu ideologiko eta espiritualetan oinarritzen ziren (Manrique Arribas, 2008).

Lan hau lehen momentutik ulergarria eta zentzuduna izateko, oso garrantzitsua da Emakume Sekzioaren (ES) papera ondo ulertzea. Erregimen berriak Eliza Katolikoaren doktrina integrista eta atzerakoiena bereganatu zuen, eta horren arabera emakumea gizonaren menpe zegoen. Ezin dugu ahaztu ES-rentzat erlijioak zuen garrantzia. Erakunde hori une horretan legala zena, *Jose Antonio Primo de Riveraren Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional*

Sindicalista (FET y JONS) alderdiaren ideologian oinarritzen zen. Politikari horren arreba, Pilar, izan zen ESaren agintari nagusia hasieratik amaiera arte. ESak lortu zuen “bere erakundetik ateratako irakasleoa irakaskuntza-zentroetan izatea”. Bere liburuan Manrique Arribasek dio erakunde horrek bi gidari nagusi zituela. Alde batetik, Justo Pérez Urbel anaia erlijio kontuetan. Bestetik, Luis Agosti gorputz hezkuntzan. Bi gizon horiek ES-aren nazio-aholkulariak izan ziren (Manrique Arribas, 2009).

Lehenengo momentuetatik emakumeak betebeharrak betikoak ziren, hots, ordura arte egindako lanak egiten jarraitu zuen, aldaketarik ez. Ikusi dugunez, 1950. urtea baino lehenago ES-ak antolakuntzari eta formakuntzari buruzko urteroko emaitzan argitaratzen zituen, (Christensen, Guttman & Pfister, 2001).

Emakumeak beti bigarren maila batean, hegalean artean zegoen. Ez zuen paper berezirik izan kirol munduan (Rosique Muro, 1997).

1869. urtean espainiar estatuan Konstituzio bat onartu zen -liberalena hain zuzen ere- irakaskuntzan eredu berri bat planteatu zen, baina emakumeen kasuan aldaketa horiek ez ziren oso nabariak izan maila sozial batzuetan bereziki. (Zagalaz, 1998)

García Bonafék 1990. urtean gizarte-maila altuko emakumeek kirol zehatz batzuetan parte hartzen zuten, ez zituzten kirol guztiak praktikatzen idatzi zuen. Horregatik, kirolarekin lotutako kontzeptu ezberdinak sailka daitezke. Riaño Gonzálezen hitzen arabera (2004), burgesiarentzako kirola aisialdirako zen, denborapasa bat eta langileriarentzako errehabilitazio fisikorako zuzenduagoa.

Dena den eskolari esker ideia berri horiek beraien zabalkuntza izaten hasi ziren:

A finales del SXIX, y a pesar de la coyuntura educativa, la escuela era la mejor opción para el desarrollo físico de la mujer, puesto que las costumbres y usos sociales prescribían, como

sabemos, el ejercicio físico en general, salvados los contados casos posibles entre damas de la aristocracia. (Jarne i Módol, 1991:45).

2. irudia: *Historian zehar lehenengo emakume pilotariak (zestapunta) Condal Frontoian (Bartzelona) 1897.*

Euskal Herria Museoa (Gernika, 2013).



Hain zuzen ere, Bartzelonan lehenengo emakumezko Kirol Kluba 1928an sortu zen, *El Club Femení i d'Esport*, 1931. urtean 2000 bazkide eta 10 saskibalo taldeak zeuden (Zagalaz, 1998). García (1998) emakumezko kirolaren hastapenak Bartzelona ikertzen du. Bartzelona leku nahiko modernoa zen urte horietan eta honek asko lagundu zuen egoera honetarako. (Villanou i Torrano, de la Arada, Turró i Ortega 2013)

Puig eta Solerren esanetan, lehenengo kluba beste bat izan ei zen: *Bartzelonako Fémina Natación Club* 1912.an (Puig, Soler, 2003). Horrek esan nahi du XX. mendearen hasieran jadanik izugarritzko mugimendua zegoela jardura fisikoaren munduan. Hala eta guztiz ere, irakaskuntza eta hezkuntza fisikoak gizonezko parametroetan oinarritzen ziren Zagalaz Sánchezen (1998) hitzetan irakurri daitekeen bezala: emakumeentzak hasiera batean apenas ez zegoen ezer ez gimnastikan.

Hala ere, garaiko kirol praktika ez zen oso erreala pedagogo eta irakasle batzuen ideiak baino ez ziren (Sentamans, 2010).

Behintzat, jadanik bertan zegoen, teoria mailan. 1936ko guda ailegatu aurretik aldaketa nabariak ematen joan ziren momentu politiko ezberdinetan: lehenengo garaia berpiztekoa (1898-1923) eta bigarrena *General Primo de Riveraren* diktadurapean (1923-1930) (Sentamans, 2010). Garai hartan, Espainiako estatua Europako aurreratuenen artean kokatu omen zen: Horrela, urte horietan aristokrazia eta burgesiako emakume batzuk golfa, tenisa, tiroa eta gimnastika-ariketak praktikaten hasi ziren. Kirola eta jarduera fisikoak onak ikusten ziren arraza hobetzeko baliogarriak zirelako (fisikoki gizakiak hobetzeko). Faxismoaren ideia hori, frankismoak berarena propioa egin zuen, planteatutako hezkuntza-ereduan ezarri zuen:

- *Neska-mutilak banantzea. Bakoitzari zegokiona ondo lantzeko.
- *Banaketa hori balore ezberdinak sexuen arabera (sexua kontzeptua erabiltzen bait zen une horretan).
- *Desberdintasunak sustatzea.
- *Gizakiak aberriarentzat prestatu modu ezberdinetan.

Kirola eta jarduera fisikoa erabiliz etorkizuneko amak ondo prestatzea (arrazak hobetzeko, amaren papera betetzen...). Dena den, egiazki kirola eta jarduerak fisikoak ez zuten esparru oso handirik okupatu, helburu sozialagoa zuten, kirol arlokoa baino gehiago. Hala ere, pixkanaka emakumezkoen kirol lehiaketak sortzen joan ziren. Sentamans (2010) dioen bezala:

*1931an Atletismoa (berehala debekatuko zen)

*1933an Igeriketa

*1935an Krossa

Espainiako estatuan emakumezkoen futbolari egiten zaion lehendabiziko erreferentzia cihefe.es-en “Las niñas futbolísticas” artikuluan (2011) irakur daiteke. Hala ere, urteak pasatu beharko ziren kirol horrek emakumeen artean garrantzia lortu arte.

Pajarónen (1987) “*La Educación Física de la mujer en España. Perspectiva de la segunda mitad del siglo XIX*” liburuan, lehen hastapenaren ideia aurrak eta lehen urratsak egon izanaren aurrak iritziak irakur daitezke emakumeak historian zehar kirola edo jarduera fisikoa betidanik egin duela dio, nahiz eta intentsitate maila desberdinak aipatu. Emakumeentzako GH espezifikorik ez da izan duela urte gutxi arte. Bakarrik kontutan hartzen ziren gizona bera eta bere ezugarri guztiak, egiazkoak eta bakarrik omen zirenak (Zagalaz-Sánchez, 2001). Baina ia gaur egun arte emakumearen estetika eta indartsua izan, ama izateko baino ez zen GH erabiltzen (Zagalaz Sánchez, 2001).

Francoren erregimen aurretik aukera gutxi eta kirol eta jarduera fisikoaren munduan emakumeentzako. Ezin da ahaztu iadanik momento horretan Gorputz Hezkuntza propio bat neskeentzako eskaera zegoela (Zagalaz, 1998) baina kasu handirik ez zuten egin (Christensen, Guttman, Pfister, 2001:1091).

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran (1920-1930. hamarkadetan) zenbait aldaketak eman ziren, baina hasierako urteetan jende gutxi konturatu zen, jende gutxiarentzako aukera zegoen eta (Christensen, Guttman, Pfister, 2001).

Horren adibide garrantzitsu bat Lili Álvarez izan zen. Bera izan zen lehen kirol emakume famatu espainiarra. Munduko eta Europako txapelketa ezberdinetan parte hartu zuena. Oso kirolari ona eta ospetsua izan zen. Emakume hau, beranduago erregimen frankistaren alde agertu zen. , Lili Álvarez zenbait kirol diziplinatan lehenenegotariko emakume bat izan zen: eskia, izotz-irristaketa, tenisa (hiru aldiz lortu zuen Wimblendongo finalera ailegatzea 1926-7 eta 1928. urteetan). Hark

kirolari agur esan zion nahiko gazte 30.eko hamarkadan (Alvarez, 1998). Kirola ondo bizitzea izan behar zen nahiko zoriontsu izateko (Riaño González, 2004).

Lili Alvarezen bizitzaren interpretazioa (kirola eta jolasa, ariketa...) beti ukitze kristau eta filosofo eginda dago. Hala ere, haren hitzak oso erabilgarriak izan daitezke. Kirolari agur esan eta gero, erlijio eta musika munduetan aritu zen. 1924ko Joko Olinpikoetan, Lilik Rosa Torras izan zuen bikotekide. Hura “sport-woman” modernoa, aurrerakoia eta independentea omen zen (Villanou, de la Arada, Turró i , 2013). Lili Alvarez eta Rosa Torras lehenengo emakume espainiarrak izan ziren Joko Olinpiko batzuetan. Lau urte lehenago, beste bi emakume tenislari 1920ko Anbereseko Joko Olinpikoetara joateko zorian egon ziren. Kirolari horiek Francisca Subirana (banaka eta binaka, mistoetarako) eta Carmen Rospide (binaka mistoetarako) ziren. Zoritxarrez, ez zituzten eraman txapelketara (Jiménez Morales, 2015).

1936. eta 1939. urteen bitartean atzera pauso handiak eman ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Gudak alde batera utzi ziteen Errepublikaren garaian berdintasunaren alde emandako urratsak. Eta guda desberdintasunen erreflejoa izan zen (Puig Soler, 2003).

Guda hau aurretik baziren ahotsak emakumeentzako kirol-praktika beharra ikusten zutenek, bai jakina. Osasuntsua eta abantaiak dituela kirolak, gainera emzkoa da, eta ikus dezakegunez dagoeneko arraza araztasunaren ideia esistitzen zen. Hitz horiek ondoren etorriko zenaren atariko edo preludiotzat jo daitezke. Mollá Doktoarena buruz, garai hartan espainiar estatuan kirolari buruz zegoen iritzia edo ikuspuntua ez zen egokiena. “(...) al deporte se le sigue considerando en la masa del pueblo español como ocupación masculina; equívoco concepto que lleva en sí un doble error: el considerarlo como ocupación y el creerlo como exclusiva manifestación masculina”. (Mollá doktoarea, 1931:74-75).

Hala ere, argi eduki behar dugu garai hartan, tenisa eta igeriketaz aparte, kirol gehienak ez zirelako nahiko “femeninoak”, ez ziren emakumezkoentzat egokitzen hartzen. Mollá doktorearen liburuaren 45.-46. orrialdetan jauzi eginez gero, kontraste ederrarekin topo egiten dugu: : “No es, pues, el deporte un peligro para la feminidad, sino por el contrario, constituye un medio y ambiente a propósito...” (Mollá Doktorea, 1931). Hona hemen hurrengo urteetan kirolaren eta emakumearen artean izango zen lehenetariko kontraesana. Alde batetik, emakume kontserbadorea eta tradizionala aldarrikatzen zuten. Bestetik, emakume ausartagoa (kirolagatik interesa duena) eta modernoagoa. Emakumea hazituko da, hobe harnastuko du, eta fisikoa moralaren erreflejoa denez, “amen” aldaketa (Riaño González, 2004). Baina guda ailegatu zen eta zoritxarrez, atzerako pausoa arlo askotan emon zen. “(...) toda esta batalla en pro de una práctica deportiva activa por parte de las mujeres fue cancelada del mapa por el estallido de la Guerra Civil” (Jarne i Módol, 1991:60). Frankismoarekin batera ordura arte lortutako modernizazioak eta askatasunak desagertu ziren : “The 40 years of Francoism that followed were a fatal setback to the modernisation and liberation enjoyed in the years prior to the Civil War. Freedom of thought and speech were completely eradicated...” (Martin, 2010:127).

Magisteritzarako testu batean agertzen den bezala saialdi hauek hori baino ez ziren izan: balore eta efektu gabeko entseguak. ES sortu arte apenas ezer ez zegoela emakumeentzako GH munduan (Sección Femenina de FET y de las JONS, 1955)


1.2.2. Emakumearen irudia eta papera Franco diktadurapean.

Emakumearen eskuetan familia eta etxeke ardurak guztiak zeuden eta gutxitan etxetik kanpo lan egiten zuen (Añó Sanz, Sales Borrás, 2015). Honek ez du esan nahi gizonak gauza guztien kontrola beraien eskuetan utziko zutenik, ez. Beraiek gizonak eta umeak zaintzeko ziren, haiek ziren oinarria kultura espainolaren transmisorea izateko. Horregatik ES-ren barruan emakumearentzako hobekuntza batzuk lortu nahi arren (kultura, kirola) beti sistemarenpean egoteko

prest egon ziren, ez zituzten helburu emancipatorerik emakumeentzako (gizonengandik). Emakumea familaren oinarria zen, horregatik emakumearen osasunaren garrantzitsua zen. Eta momentu horretan zegoen sistemaren burua, Franco, emakumezko kirolaren paperaren inportantziataz konturatu zen baita ere.

3. irudia: Francoren hitzak.

Hierro egunkaria 1938



1.2.3 .Emakume Sekzioa (1934-1977).

Emakume Sekzioa erakundeak bere argitarapen propioak zituen Espainiako estatuko emakume guztiek jakin zezaten zelan talde honek funtzionatu behar zuen. Hauen ale bat ondorengo argazkian ikus daiteke.

4. irudia: Emakume Sekzioaren esku-liburua

Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S. (1945)



1.2.3.1. Emakume Sekzioa: sorrera eta garapena.

Madriilen zegoen antzoki batean, *Comedia* izendunean, ospakizun politiko baten nazio-baieztapen bat burutu zen 1933ko urriaren 29.an. Horrela, Falangeren emakumeen adarra sortu zen (Ramírez-Macías, 2014; Enders, 1992). Bertan, Jose Antonio Primo de Riverak sekulako diskurtsoa bota zuen. Batzar honetan, bildutakoen artean, partehartzaileen artean, bost neska (eta gainera oso gazte) egon ziren. Neska hauek ziren Pilar eta Carmen (Jose Antonioren ahizpak), Ines eta Dolores (lehengusinak) ziren eta beraien lagun bat M^a Luisa Aramburu (Rodríguez Lopez, 2004).

Urte horretako abenduaren 2an Falange Española berria sortu zen eta bostkote honen desioa zen falangekideak izatea zen baina emakumeak izanda eta gainera gazteegi, ezetz borobil bat baino ez zuten jaso. SEUn (*Sindicato Español Universitario*) kide egiteko gonbidatuak izan ziren eta guztiek hau onartu zuten, hau dela eta, afiliatu ziren bostak. Hara non beste neska pare batekin elkartu ziren: Justina Rodríguez de Viguri (lehenengo *Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalistako* emakume-kidea, *JONSeko* lehenengoa) eta Mercedes Fórmica (feminista eta idazle oso ezaguna eta inportantea izango zena, eta Emakume Sekzioko “*Medina*” aldizkarian zuzendaria baita ere).

Zazpiak elkartu eta gero, hain modu edota era sinple batean Emakume Sekzioa (ES) sortu zen (Suárez Fernández, 1993).

Hasiera batetik erakundearen goiko partean Falangekokideen familiarrak zeundela ezin ahaztu, eta horrek definituko zuen betirako, erakundearen estruktura: goiko partean gutxi batzuk kontrolarekin eta beheko partean emakume espainol gehienak, patriaren zerbitzura.

*ESren antolakuntza: ekintzetarako, formakuntzarako nola antolatzen zituzten.

1946.an “*Casas de Flechas*” sortu ziren, bertan neskek adina, egoera zibila eta betebeharren arabera taldeka sailkatzen ziren *Margaritas, Geziak, Gezi urdinak* (Zagalaz, 1998).

Holan, ESren barnean den-dena oso ondo antolatuta eta kontrolatuta zegoen. Potere-estruktura piramidal bat errespetatuz (Ramírez-Macías, 2014).

Emakume guztiei heltzea inportantena zen.

*ESren helburuak: amankomunean gaiak bai neska bai mutilentzako batzuk izan arren helburuak eta edukiak desberdinak ziren sexuaren arabera. ESren jarrera guzti honen aurrean oso inportantea zen baina bereziki nola goraiatzeko zuen nazio-foklorea (Noval Clemente, 1999).

Helburu horiek, eduki horiek aberria goraitzeko, indartzeko eta apoioa emateko erabil zitekeena beti eskura izaten. Ramirez Macias-ek (2014) ESaren papera, antolakuntza eta erakundeak irakasleei ematen zien formakuntza aztertzen du. Hasierako egoera eta, Francoren diktadura bezala, denboraren poderioz izandako aldaketak aztertzen ditu.

Ildo horretatik jarraituz, ESren lanaren ondorioak aztertzen, Zagalaz Sánchezek (2001) datu asko ematen du beste lan batean eta hoiaren artean adierazgarria hurrengo hau da: 40. hamarkadan emakume kirolaririk ez zeuden eta 1970 urtean 90.000 emakume kirol-partehartzaileak ziren. Dena den, estatuaren zonaldearen arabera garapena pixka bat desberdina izan zen (Agulló Díaz, 1993).

*Emakumeen formakuntzataz ere arduratu ziren. Horretarako ESk bazituen bere eskola propioak: "*Isabel la Católica*" El Pardon (Madrid) eta *Las Navas del Marqués* (Ávila) (Noval Clemente, 1999)

Nahiz eta gehiegizko aldaketarik ez nahi, ESa heziketaren garrantzitasaz konturatu zen eta horregatik plangintza bereziak antolatu zituen estatu osotik. Hurrengo pausua izan zen benauldi horiek formatzaileak bihurtzea, hau da, irakasleak. Frankismoarentzako ES erakunde oso baliotsua izan zen, tresna bat zen, genero eta klase mendekotasunak mantenteko bereziki (Marías Cadenas, 2011).

Bide batez gogoratu dezagun zer garrantzitsua zen Espainiako batasun, unitatearen ideia bai Falange bai, jakina, ESrentzako (Delgado Bueno, 2009).

1.2.3.2. Emakume Sekzioaren helburuak.

Emakume Sekzioa erakunde honek bere helburu eta ideiak argi eta garbi definituak zituen hasiera batetik. Beraien ideologia zabaldu eta patriaren alde lan egitea nagusiak ziren. "La Sección Femenina forma a todas sus afiliadas en las disciplinas de la Religión, el Nacionalindicalismo y la Educación Física". (Sección Femenina, Egutegia, 1945ko Urtarrila).

ESko ildoak ez zuten aldaketa ideologikorik nahi, hori ez zuten ez da planteatu egin. Baina egia da, nola urteekin aldaketa batzuk sortu eta onartu egin ziren. Dena den, emakumeen helburu nagusia ezkontza zela argi eta garbi zegoen, horregatik lan egitea erreserbaturik zegoen ezkondu gabeko andraentzako (Aguado, Ortega, 2011)

Berriro agertzen da zein da emakumearen paper nagusia, hau ametasuna, "ama" izatea bait zen. "Within this period sport for women was mainly used as a tool to improve female biological and reproductive functions and to emphasize stereotyped femininity." (Martin 2010:127). Eta ideia hau behin eta berriro gogoratzen saiatzen dira, ahaztu ezina helburu nagusia dela. Inportantea zen

lortzea kirolariak, emakume indartsuak eta osasuntsuak, lehenengo momentutik pentsatu zen osasuna eta gorputzaren armonia elkartzea (Farres, 1963).

Emakume Sekzioak hasiera batean zituen helburuak desberdinak ziren. Hona hemen zeintzuk ziren.

1. Mugimendu falangistak erakunde hau sortu zuen asmo batekin, emakumeak parte hartu zezaten beraiei laguntzeko.
2. Frente Nacionaleko presoak eta jazarleak zaindu
3. Preso, jazarle eta hildakoen familiar eta senideekin egon eta lagundu (bando matxinoak argitaratutako “ordena” batean hori argi gelditu zen. Auxilio Socialarekin harreman zuzena du horrek)

Denborarekin ESan eboluzio bat egon zen. Hasiera batean beraien gizonak eta hauen familiak laguntzarekin konformatzen ziren (Manrique Arribas, 2008). Baina ES ez zen soilik emakumeentzako erakunde simple bat, honen betebeharrak eta eraginak askoz handiago eta inportanteago ziren. Oso toki inportantea betetzen bait zuen erregimenaren barnean: Francoren diktaduraren barneko beste alde politico garrantzitsu bat (Ofer, 2009). Guzti honek ez du esan nahi, jakina, gizonaren paperaren kontrako ezer egiteko prest zirenik (Richmond, 2004).

Francoren erregimenerako emakumeen inguruko estereotipoak eta egiazko paperak askotan nahastu egiten ziren estereotipoekin (Puig, Soler, 2003). Holan ikusi daiteke historian zehar ezaugarri batzuk barneratu egiten dira eta azkenean “egiazkoak” bihurtzen dira, egunerokoak izatera ailegatuz. Egia izkutaturik, curriculuma izkutaturik eskolan, deitu diezaiokegu. Egia hori benetazko izaten jarraitzen da aztertu eta berplanteatua izan arte.

ESrako oinarrizko lerro bat da emakumearen papera eta etengabe “feminidad” (euskaraz feminitate edota emetasuna erabiliko dugu) hitza aipatu eta agertu egiten dira. Balio hauek Suárez Fernándezek dioen bezala balore horiek “femeninoak” ziren eta ESren desio bat zen guztiak

mantentzea (Suárez Fernández, 1993). Emetasun mota hau gogor eutsi behar zen beraien gorputzak beharrezkoak ziren eta beraiek baloreen transmitatzaileak ziren (Blasco Herranz, 1999). Orduan, guzti hau, kirola eta jarduera fisiko hauek aurrera aterazeko, emakumeentzako alderdi berezi bat sortu zen ariketa andreek egin zitzaten (Vizueté Carrizosa, 1997).

Ideologia honek oinarri erlijioso bat dauka, oso katolikoa dena. Ezin dugu ahaztu zer indartsuak ziren elizaren eraginak momentu hoietan, Eliza Katolikoaren garrantzia oso handia zen eta guztiz oinarrizkoak ziren honen pentsamenduak, ideiak, bai guda garaian bai guda ostean. Erlijioa ardatz nagusitarikoa zen. Fray Justo Pérez de Urbel teoriko bat zen gai honen inguruan eta berak ESrekin lan egin zuen (Suárez Fernández, 1993).

Riaño Gonzálezek (2004) idatzi zuen Segura Kardinalak gimnasia kontsideratzen zuen “*escandalosa y lasciva*”. Egiatzko emakumeak, emakumea izatea erregimenak nahi zuen, beraiek gabe ezin zen ezer egin (Suárez Fernández, 1993).

Hitz eder hauek arren emakumea jarraitzaile, leiala (eta batera beharrezkoa) baino ez zen kontsideratua izan, jakina. Emakume liberalak edota feministak ez zuten beraien pentsamoldetan tokirik: ez gobernukoen buruetan ezta ES-aren barruan ere ez. Emakumearen paperataz hitz egiterakoan hau gizonaren aginpean egon behar zela naturaltasun osoz ulertzen zuten eta inoiz ez zuten interesik aldaketa lortzen (Suárez Fernández, 1993)

Emakumea izan behar zen “limpiamente moderna”, honen azalpena: garbia hitza moralari buruzkoa da, eta espiritu katolikoa errespetatuz; beste aldetik, moderna estatu berriaren ordezkari hartuta. (Suárez Fernández, 1993). Hitz biak zegoen estatuarentzako oso inportanteak ziren. Urteak joan ahala ESa asko aldatu zen. Eta hasierako kontrol gogorrak gero eta indar gutxiagorekin erabiltzen zen (Rodríguez Lopez, 2004)

1.2.3.3. Emakume Sekzioaren Antolakuntza.

Aurretik aipatu dut nola ESren forma geometriko jakin batekin oso ulergarria izan daitekela antolatzeko era: Piramidala, non oinarrian jende gehiena (kasu honetan herriko emakume gehienak) zeuden, eta tontorrean, edo goian, kontrolatzeko zeudenak, gidatzeko zirenak. ESk bere antolakuntza osoaren gainera erabateko kontrola beti zuen. Erabaki inportanteenak beti goian zeudenak hartzen zituzten, emakume espainol guztien izenean erabakitzen zuten.

ESak eskua sartu zuen beste zenbait alderdietan. Horien antolakuntzan aldaketak inposatu zituen. Horretarako, “*Regiduriak*” sortu zituen. Bost regiduria ziren guztira, hoietariko bakoitzarako Errejidore Nagusi bat eta Laguntzaile bat zeuden (Suárez Fernández, 1993). Hona hemen zeintzuk ziren:

Hermanidad de la Ciudad y el Campo: Ana María Hurtado de Mendoza y Pilar García Ontiveros.

Enfermeras: Carmen García del Salto.

Cultura y formación de jerarquías: Elisa de Lara y Beatriz García Ramos.


Cultura Física: Cándida Cadenas.

Sindicatos: Dolores Martínez Romero (Suárez Fernández, 1993).

Bost regiduria izan arren kultura fisikakoa inportantena da guretzako. Baina bost izateak ez du esan nahi bakoitza bere kabuz zebilenik, guztiz kontrakoa baizik, eta maila guztien arteko harremanak oso estuak ziren eta guztiz kontrolpean zeuden, goikoarengana dependentzia handia zuten (Hermida Martín, 2012)

5. irudia: Cultura Fisica Regiduriaren antolakuntza.

Falange Española Tradicionalista y de las JONS.



Idea honekin aurrera jarraituz erakundearen azpiegiturak goitik behera kontrolaturik, hiruki formarekin gainean zeudenek potere osoarekin, beraien ildoarekin batera:

ESak erakunde falangistaren eredua jarraituz antolatu zen ez demokratikoa eta piramidala (Noval Clemente, 1999).

ESk zuen forma piramidala zuen, tontorrean, puntan, buruzagiak zeuden eta beheko partean oinarrizko militanteak. Hori dela eta, erakunde zeharo klasista kontsideratu daiteke beharrezkoa teoriko batzuk pentsatzen zuten bezala (González Aja, 2005). Gutxiengo batek kontrol osoa eta guztiaren hori, filosofo batzuen ideietaz aparte, nondik atera zen ideia hau? Erabiltzen zen hizkuntza antolatzen oeta lertzeko faszista eta katolikoa zen, maila berberan (Rodríguez López, 2010). Eta beti den-dena kontrolatzen, jarduera fisiko edota kirol batzuk onarturik eta batera beste batzuk debekaturik egotea egoeraren adibideak baino ez dira.


Sports and physical activities were encouraged that would apparently fulfil these criteria: gymnastics, folk dancing, volleyball, basketball, team handball, swimming, tennis, skiing, mountain climbing and hockey. On the other hand, women were banned from cycling, boxing and certain disciplines of track-and-field. (Puig, Soler, 2003:87).

1.2.3.4. Emakume Sekzioa eta Gizarte Zerbitzua.

“*Crónica de la Sección Femenina y su tiempo*” liburuan irakurri dezakegu ESaren espiritu mantendu eta zabaltzeko beste bide bat zegoen: *Auxilio Social*aren kontrola (Suárez Fernández, 1993). *Auxilio Social* hau haisera batean Alemaniako *Negu Laguntza* kopia bat baino ez zen. Umerzurtzu asko eta familia asko suntsiturik gelditu ziren guda ostean eta ESak espero zuen emakume espainola guztiengan eragina izatea: falangismoa gailurrean egotea (non erabakiak hartzen ziren) Espainiako estatuko gizartea aldatzeko (hara non emakumeen papera, oinarrizkoa). ESk *Auxilio Social*aren ardura hartu zuen 1940. urtearen hasieratik, lehen momentuan arazoak izan ziren. Izan ere, *Gizarte Zerbitzuko* (GZ hemendik aurrera) burukide Mercedes Sanzek ez zituen Gzren helburuak eta erabilerak GZ honek oso antza handia zuen Alemanian zegoenarekin (Zagalaz Sánchez, 2012). Honen izena, alemaniako GZaren *Pflichtjahr*-a zen (Marías Cadenas, 2011).

6. irudia: GZren betekizuna

Boletín Oficial del Estado 1020. Orria 1937-10-11



Dena den, GZ-a betetzerakoan (Suárez Fernández, 1993) lan-mota ezberdinak egiten ziren, aukera desberdinak zeuden. Ohizkoenak, besteak beste hauek ziren:

- Bulego-lanak
- Josi eta eskulanak
- Sukaldatzen ikasi
- Ume txiroei lagundu (irakurri, idatzi...)
- Beste batzuk

7. irudia: GZren liburuxkaren azala

AGA C58 G2 N°19



Adibide bat dugu Bilbon, Bizkaian zegoen *Centro Social de Sección Femenina* bakarra zegoen. Garai hartan auzoaren izena “*Poblado de Ocharcoaga*” zen (Suárez Fernández, 1993).

8. irudia: 1937. urtean Gizarte Zerbitzuaren derrigorrezkotasuna argitaratua prentsan.

Hierro egunkaria 1937



ESaren paperaren garrantzia argi gelditzen da Pilar Primo de Riveraren hitzetan, emakume bakoitzaren interesak aberrikoekin batera egiterakoan espiritu eta kultura hobetzeaz gain GZren bidez gizarteko parte baliogarri eta duinak bihurtzen ziren (Sánchez, 2013).

ES definitua izan daiteke eta behar da nola giza-errealitatera doktrina berezi bat non emakumearen duintasunarekiko balore zehatz batzuk landu behar zirela (bai gizakiaren eskubideak izateko bai emakumeak berak bere balore “propioak”, femeninoak dituelako). Hasiera batean Falangearekin batera zetozen balore guzti hauek baina Jose Antonioren heriotza eta gero ESak bere bide propioa hartu zuen. Hori bai, bere jatorria bere sorburua ahaztu gabe, egoera fisika on batek amatasun on bat ziurtatzen du (Sánchez, 2013).

Emakumearentzako hezkuntzak bilatzen zuen erregimenaren zerbitzurako zegoen:

- *gizonaren euskarria, sostengua izateko
- *ugaltzailea izateko
- *neska eta mutil berrien hezitzailea izateko

Aurreko momentu politikoan gizakien berdintasuna (behintzat teoriko mailatik) aldarrikatuz baina menpeko emakume batera (zeinen bizi-zikloak adierazten zion alaba, emaztea eta ama izan behar zela) mantenduz.

1.2.4.Gorputz Hezkuntza Emakume Sekzioaren eskuetan.

Frankismoak aberriari zerbitzatzeko bere indarra guztiak erabiltzeko prest zegoen, hortik ateratzen da gorputz garrantzia eta horregatik gorputza landu egin behar zen. “Fortaleceré mi cuerpo para servir a mi Patria” (Sección Femenina, Egutegia, 1945ko maiatza).

9. irudia: ESko Regiduria de Educación Físicaren ikurra

SF de F.E.T. y de las J.O.N.S. (1947)



XX. mendearen hasieran aldaketak nabaritu ziren estatuan, errepublikatik guda zibilera pasatu zen eta honen bukaeran aldakuntza berriak sortu ziren. Adibidez, GH derrigorrezkoa izatera pasatu zen (Zagalaz, 1998).

Herri mailan 40. hamarkada aurretik kirol gutxi ezagutzen ziren eta emakumearen partehartzea gutxi zen (Zagalaz, 1998)

Urte bereziak ziren, kirola herrira ailegatzeko joan zen, emakumeentzako apenas ezer ez zegoen baina ESren eskuetara kirol ardurak ailegatu zenean gauzak aldatzen hasi ziren. Eta hurte batzuk lehenago bidea berriro egiten hasi zen. ESak gorputz hezkuntza eta heziketa fisikoaren kontrola zuen, beraiek bakarrik.

Emakumeentzako GHak guztiz elkaturik zegoen ESaren eskuetan kirol-formakuntzarekin batera (Manrique Arribas 2008).

Beraiei esker jarduera fisikoa eta kirolaren derrigortu zen emakume guztientzako:

Guda bukatu ostean, kirola bihur zen erregimenaren baieztatzeko elementu bat eta GH derrigorrezko gaia zen (Zagalaz, 1998).

ESko kideak, afiliatuak eta ez afiliatuak zirenentzako antolakuntzaz arduratzen hasi zen 1940-12-06ko legerari esker. *“Instituyendo el Frente de Juventudes”* delako lege honek emakumeentzako GH eta kirol ESren kargura utzi zion (Ramírez-Macías, 2014).

ESak paper ezberdinak bete zituen historian zehar, baina batzutan inkoherentziarik gabe zeudela ematen zuen; agian hobe esanda kontraesanak bideratzen zituen emakume eta neska guztientzako *“en el territorio nacional”* delakoan . ESak arrazoiketa bikoita zeukan, alde batetik GH derrigorrezkoa izan eta bestetik emakumearen papera ondo bete behar zen (Manrique Arribas, 2008).

Urteak joan ahala aldaketak izan ziren , helburu berriak agertuz, helburu ezberdinak. Horri esker kirolarentzako bide berriak agertu ziren.

Denborarekin ESak gero eta helburu gehiago planteatu zuen baina pentsamolde nazioanalsindikalistaren ikuspuntutik (Manrique Arribas, 2008).

Jakina, ez dezagun oker ulertu, beraiek ez zuten bilatzen emakumearen emantzipatzipiorik. Ideia honi inoiz ez zioten tokirik egin. Askotan, emakume hauek gizonen laguntza behar zuten, ez baitzuten gai guztietan esperientzia edo ezagutza nahikorik.

Egia esanda, kontraesan ezberdinak sortu ziren ESren bidean zehar, erregimenaren politikari jarraitu nahi zioten eta gauzak horrela, jarduera guztiak emakumeak garai hartan zuen zeregin nagusia kontuan izanda prestatu zituzten (Zagalaz Sánchez, 2001). Emakumeentzako prestakuntza bereziak antolatu zituzten. Edozein kirol-gertakari goraiatzeko erregimenaren balioak

baliogarria zen eta holan erabili zuten. Baina emakumeentzako zabalkuntza bat egon zen urte hoietan zehar, nahiz eta hasiera batean kirol mundua etsaia kontsideratzen zen beraientzat. Kontraesan hauek historian zehar estereotipo eta kontzepzio faltsuak sortu dituzte, eta horiei esker emakume asko kirol eta jarduera fisikotik urrun mantendu dira. Askotan agertzen da ideia hau: “kirola ez da ona emakumeentzako”. Dena den, *Catedra Ambulante*etan kirola eta dantzak arazorik gabe lantzen ziren (Pérez Moreno, 2004). Hau da, kirola eta jarduera fisikoari bere lekua ematen zioten.

Frankismoaren zehar proposatutako kirol eta gorputz hezkuntza genero-hezkuntza baten barruan emon ziren Manrique Arribasek dioen bezala (2008), baina hobe esanda legoke sexu-hezkuntza bati buruz berba egitea, mementu horretan ezberdintasuna biologikoak inportantenak bait ziren. Puntu honetan ezin dugu ahaztu beste oinarritzko faktore bat, frankismoaren eta bereziki ESren zutabea zena, Eliza Katoliko. Erakunde horrek guztiz harriduraz ikusi zuen nola ESak emakumeak kirol munduan sartzeko lana.

Eliza Katolikoari ez zitzaion asko gustatu ESak egiten zituen jarduera batzuk (Blasco Herranz, 1999).

Horrela, kontutan hartzen badugu Eliza Katolikoak ESaren pentsamenduan eta ideologian zuen indarra eta pisua, zaila izan daiteke ulertzea kirolean, emakumea etxetik ateratzeko asmoan eta beste kontzeptu batzuetan erakutsi zuen jarrera (Rodríguez López, 2010).

Pilar Primo de Riverak, 1938. urtean, gorputz hezkuntza barik emakumearen formakuntza nahikorik ez zela izango kontsideratzen hasi zen. Holan “*Regiduría Central de Educación Física*” (aurretik jadanik aipatuta dago) delakoa sortu zuten baina ispiritu-oinarria ahaztu gabe, beraien pentsamoldeak ahantzi barik.

Estatu osoan zehar zabaldu nahi zuten beraien ideologia herri txikietara baita ere jendea bidali zuten. Talde hauetan partehartzaile desberdinak zeuden, eta beraien artean gorputz hezkuntza

aditu bat (Rodríguez López, 2010). Talde hauen izena “Cátedras Ambulantes” zen. Beraien papera importante izan zen saiatu zirelako estatu osoan zehar ESren eta regimenaren ideiak zabaltzen baina honez gain emakume herrikorengana kultura pixka bat eramateko bidea ireki zuten. Dena den, askotariko lorpenak erdietsi zituzten.

ESkoek ez zuten terminologia berririk sortu gorputz hezkuntzetaz berba egiterakoan, gizonezkoentzako erabilitako terminologia hartu zutenontzat. Nahiz eta leheneago Gymnastika kontzeptua erabilia izan (Trigo Montoya 2007).

Estatuan gai horri buruzko zenbait tesi egin dira: Malagan (Caballero Cortés, 1990), Valentzian (Agulló Diaz, 1994), Jaenen (Linares Girela, 1997), Asturiasen (Carbajosa Menéndez, 1998), Murtzian (Noval Clemente, 1999), Salamancan, Almerian (Rodríguez López, 2004), Huelvan (Tierra Orta, 2003) eta Valladoliden (Delgado Bueno, 2009).

Tesi horietan tokian tokiko egoerak analizatzen dituzte, eta leku gehienetan ESaren eragina nabarmena izan zen. Esk aurrendaria ikusten zuen bere burua emakumea eta GH munduan (Noval Clemente, 1999). Erregimena kanpaldi batzuen bidez neska guztiak “berdinak” bihurtzen saiatu zen. Diktadurak, gobernu-sistemaren kontrola indartzeko, tresna ezberdinak erabiltzen zituen. Horrela, emakumeen kasuan ESA erabili zuen, besteak beste. Sistemak ESA erabili zuen beste zenbait helburu betetzeko, giza laguntzak lortzeko, esaterako eta GH erabiliz.

1.2.4.1. Gorputz Hezkuntzarako planteamendua.

Manrique Arribas-en hitzetan, Falange alderdiaren barruan zegoenez, ESA garai horretako emakumeen formakuntza bereziaz arduratu behar zen. Horrela egin zuen, besteak beste oinarri zientifikoak, medikoak, erlijiosoak eta nazionalistak kontuan izanda (2008).

GH Espainiako estatuan ikuspuntu higienistatik garatzen joan zen, metodologia eta sistematikaren agerpenarekin modernizatu zen. Holan, pedagogia eta plangintza oficial ezberdinen

agerpena eta indarrari esker irakasle goaren formakuntza gero eta hobe izan zen Pajarón Sotomayor (2001).

Erakundeak emakumearen Gorputz Hezkuntzarako proposatzen zuen metodologiak hiru zutabe nagusi zituen:

Gimnasia, Kirol Jokoak eta Dantzak.

Gimnasia: iturri, eskola desberdinetatik

Gimnasia Hezigarria: J. Lindhar eta Elli Börjsten finlandiarren Lingen metodoan oinarritzen da.

10. irudia: Gimnastak lanean

AGA C9 G2 N°19



Gimnasia Erritmikoa: Dalcroze musika klasikoarekin gehien bat erabiltzen zen. Eskola-liburuetan dantza eta gimnasiaren artean zeuden aldeak aipatzen ziren. Ezin ahaztu arnasketak zuen garrantzia (Salvador Martí, 1931). Erreferentzi hau ESa baino aurretik idatzitako liburu batean aurkitua izan arren lan mota honen inportantzia ondo ikusteko oso lagungarria izan daiteke: gero gimnasia suediarren lana naturaltasun osoz onartu (jarrerak, arnasketak, behin eta berriz egindako mugimenduetan...) eta barneratua gelditu zen.

Ipuin Gimnastikoak txikitxuentzako eta mutilentzat kirolak baina ez oraindik neskeentzako.

Kirol Jokoak: boleibola, saski-baloia, “*balón a mano*” (antza denez gaur egungo eskubaloia aurretikoa zen) hockeya, igeriketa, eskia, tenisa. (24 urte lehenago hoietariko kirol batzuk jadanik emakumeentzako egokiak kontsideratuak ziren: tenisa eta igeriketa, kirol hauek guztiz “femeninoak” kontsideratzen ziren (Mollá Doktorea, 1931).

Zer esanik ez, urte hauetan ospatutako ziren txapelketa batzuk, lehenengoak ESak antolatutak, hockeya eta saskibaloia adibidez (Zagalaz, 1998).

Beste aldetik, kirol batzuk ilegalizatuak izan ziren emakumeen erailtasunarako egokiak ez zirelako kontsideratzen, atletismoarekin gertatu zen bezala (Ofer, 2009). Beste adibide bat izan daiteke boleibola ez zela sarturik izan 1952 arte (Zagalaz Sanchez, 2001).

Dantzak: “de todas las regiones” Beraien España osoa elkartzeko beste era bat hau erabili zuten, folkloreak baliatu ziren. Eta dantza hauen errekupeziotaz arduratu zen ESa (Sánchez, 2013). *II.*

II. irudia: Espainiako estatuko dantza batzuk.

Sección Femeninaren Egutegia, 1945ko martxo



Eta Aberriaren Batasunaren ideiarekin jarraitzeko dantzen bidez, “kontrol-puntuak” herrietan jartzen (Marías Cadenas, 2011).

Erregimenak gorputz heziketa eta kirola kontrolatzen zituen beraien gizarte-eredua zabaltzeko asmoz (Ramírez Macías, Kinnebrock, Knieper 2014). Espainiako Nazioaren zonalde guztietako folklorea oinarritzat harturik (Casero, 2000).

Betiko abestiak, jolasak eta jolas erritmikoak... errekueratuak izan ziren berriz erabiltzeko. “Aberri bat” batasun, unitate zentzu horri indarra emateko. Ukitu guztiz espainolarekin (SF de FET y de las JONS, 1955)

Horretan oinarriturik lan-erritmikoa lantzeari toki handia egin zioten. “(...) se elaboró un programa, compuesto de tres etapas: gimnasia neo-sueca, ritmo y danza”. (Suárez Fernández, 1993).

1.2.4.2. Irakaslegoaren Formakuntza.

Puntu hau hasteko XIX. mende arte bidaiatu behar dugu, 1883ko Martxoaren 9an Gimnastika Eskola Zentrala fundatua izan zenean. Han mutilak eta neskek onartuak ziren baina banandutak, guztiz banandurik (Sentamans, 2010). Hala ere, gutxienez eskola honetara andra batzuk joateko aukera izan zuten.

Gimnastika Eskola Zentralarako liburu batzuk argitaratu ziren, hoiien artean adibide bat Trapiellarena da (1940) non sexu eta adinen arabera lan-planteamendu ezberdinak ikusi zitezkeen. Garai hartan, eskoletan ikasleak sexoaren arabera banantzen ziren. Gauza bera gertatzen zen irakasleen eskoletan ere non I Errepublikan Gimnastika Higienikoa sartzeko saiakera bat egon zen (Pajarón Sotomayor, 1987). Lan hori, maistra izatearena oso inportantea izan zen Errepublikako emakume askoentzat, alde batetik independentzia ekonomikoa lortu zutelako eta partehartzaile aktiboak ardura publikoetan (Flecha García, 2014).

Urte hauek funtsezkoak izan ziren irakaskuntzarako, aldaketa ederrak eman bait ziren eta 1900ko uztailako Dekretuari esker Gimnastika berriro derrigorretu zen (Pajarón Sotomayor, 1987).

Gimnastika agertzean, hainbat aldaketa beharrezkotzat jo ziren, eta horietatik zenbait eman ziren. Urteetan zehar gorputz hezkuntza formakuntza aldatzen joan zen (Rabazas Romero, 2000)

Irakaslegotaz, ikusi dugunez, ESa arduratzen zen baita ere, jakina. Jadanik 1940tik *Ciudad Linealean* (zonalde hau gaur egun Madril hiriak janda dauka) (Pajarón Sotomayor, 1987). Horrela, gero eta emakume gehiago onartuak izaten hasi ziren gimnastika-irakasle bezala.

1941ko irailaren 3an dekretu bat argitaratu zen eta hortik gutxira *Isabel La Católica* Akademia sortu zen. Denborarekin magisteritza aurrera joan, garatuz, eta hobetuz joan zen (Peralta, 2012).

50eko hamarkadan agertutako lege berri batzuei esker, irakasle horiek formakuntza hobea izateko eta lan profesionalagoa egiteko interesa agertu zuten (Noval Clemente, 1999). Jadanik 1959n Madrilen *La Almudena* akademia sortu zen eta zentro honetatik, esan beharra dago, GH tituludun ezberdin pilo bat atera zela. La Almudena akademia sortu eta urte bat beranduago, 1960n, GH maistren titulazioa eguneratu zen (Ramírez Macías, Kinnebrock, Knieper 2014).

Frankismoaren diktadura bukatzeaz zegoenean, 70. hamarkadan, irakaskuntzara zuzendutako erreforma berri bat egongo zen 1970. urtean (1970ko Legea)”. Bazirudien Gorputz Hezkuntza eta kirol hitzek toki garrantzitsuagoa eta zabalagoa izango zutela. Momentu inportantea izan zen GHrentzat.


Zoritzarrez, frankismoaren garaian emakumeentzako GH espezialista izateko formakuntza eman arren zentro askotan, titulazio ezberdin pilo bat zegoen. Horien artean, ESk lehenengo GH formakuntza-ikastaroa Santanderren antolatu zuen eta parte hartu zuten emakumeentzako izugarri esperientzia izan zen. Hainbeste titulazio egoterakoan ez batasuna ez arau-legea errealak ez ziren (Zagalaz Sánchez, 2001).

Egoera honek seriotasuna kentzen zion lan horri. Dena den, gogoratu dezagun nola 1961. urte arte ez zen egon Lege berezirik GH eta Kirolak arautzen zituenik: lege hau “*Ley de Educación*

Física’ zen. Jose Antonio Elola-Olaso jaunak babestu zuen 1961ko abenduaren 20an Espainiako Korteetan (BOE 1961 Abendua).

12. irudia: 1961. urteko Gorputz Hezkuntza Lege berria.

AGA C36 G2 N15 1



Aipatu den bezala 1961. urte arte beste legedi batzuk egon ziren baina nahiko sakabanaturik eta batzutan korapilatsuegi aurrera ateratzeko. Ondo antolatuta izateko lege bat behar zen (*Delegación Nacional de Educación Física y Deportes, 1961*). Modu honetan, formakuntzarako, zuzenean GHrekin harremanetan izaten ziren leku ezberdinak bazeuden adibide argi eta garbi bat daukagu hurrengo honekin: *Julio Ruiz de Alda, Goi Mailako Espezialitateen Eskola, Madril*. Hor hurrengo espezialitate hauek bazeuden:

*Gorputz Hezkuntza Irakasletoa (1961ko Legeari esker onartua)

*Bideratzaileentzako/Instruktoentzako Gorputz-Hezkuntza-Trebakuntza Eskola: Polancon (Santander), Sadan (Coruña), San Fernandon (Cádiz), Gasteizen. Leku hauetan ikastaro ezberdinak ematen ziren (Suárez Fernández, 1993; Torredo Egido, Manrique Arribas 2009; Pérez Moreno, 2004).

13. irudia: Legedi ezberdinak GH Espainiako estatuan Frankismoan.

AGA C36 G2 N15

EDUCACION FISICA

Marzo 1964

LEYES

Encomendando a la S.F. la Formacion integral de la mujer española
(28 - XII - 1.939) y (6-XII-1.940)

Enseñanza Primaria
(17-7-1.945)

Enseñanza Media
(26-II-1.953)

Estudios de Comercio
(17-7-1.953)
(22-XII-1.955)

Enseñanza Universitaria
(29-6-1.943)

Enseñanza Laboral *45-7-1.949*
(16-7-1.949)
(20-7-1.955) *65-XII-1.955*

DECRETOS

Enseñanza Primaria
Estatutos del Magisterio
(24-10-1.947)

Reglamento de las Escuelas de Magisterio
(7-7-1.950)

Enseñanza Media
Estudio de las Escuelas de Comercio
(23-7-1.953) anulado
(16-3-1.956) En Vigor

Enseñanza Universitaria
Ordenacion de la Universidad Española
(9-11-1.944)

Enseñanza Laboral
(24-3-1.950)
(26-3-1.950) Denegado
(21-12-1.956) En Vigor

Enseñanzas Técnicas
(9-11-1.944)
(13-5-1.953)
(4-12-1.953)

ORDENES

Enseñanza Laboral
Reglamento estudios Bachillerato Laboral
(3-11-1.953)

Estatuto Universidades Laborales
(12-7-1.956) Derogado por el Estatuto Docente
(16-8-1.958)

Enseñanzas Técnicas
(7-7-1.955) y (12-7- 1.955)

Toda esta Legislación es en parte base y motivo (según se reconoce en su Prólogo) de la:

Le y de
Educación
Física del
23 - XII - 61
(Del Instituto Nacional de E.F y D)
que reconoce
y recoge
principalmente:

- a) Nuestro impacto en la Sociedad Española.
- b) Función en la Junta Nacional de E.F.
- c) Grados de Profesorado; proyección y propuesta.
- d) Nuestra función en la E. Física Sindical.
- e) Instalaciones e Inspección.
- f) Instituto Nacional de Educación Física
Reconoce la Escuela "Julio Ruiz de Alda" de la Sección Femenina como la parte femenina de dicho Instituto.
- g) Se reconocen con los mismos derechos los títulos expedidos anteriormente por la Sección Femenina.

**MINISTERIO
EDUCACION
NACIONAL**

**DELEGACION
Direccion Técnica
e Implantación,
SECCION FEMENINA**

**ENSEÑANZA: PRIMARIA;
MEDIA Y UNIVERSITARIA, ENSEÑANZAS TECNICAS
COMERCIAL Y LABORALES**

Diziplina horren zabalkundea eta ezagutza errazteko, emakumeentzako GH eredu bat sortu zuten oinarri erlijiosoak eta zientifikoak ardatz izanik. Orduan, irakasle edota instruktore hauen

formakuntza aldatzen joan zen Carrero Erasek formakuntza historiako hiru mementuetan banandu zituen gudatik 1950 tarte, bigarrena 1956. urte arte eta 1956-1977an bukatuz (Ofer, 2009). Akademia eta eskola guztiak urte desberdinetan agertzen joan ziren. Baina gero eta emakume formatu gehiago zeuden eta horrek bere fruituak izango zuen.

Urteetan zehar jadanik ikastaroak egin zirela leku eta mota desberdinak, hurrengo irudian ikusten den bezala.

14. irudia: ESak antolatutako GH Ikastaroak urteetan zehar

AGA C36 G2 N15

CURSOS DE ESPECIALIZACION DE MAESTRAS INSTRUCTORAS DE EDUCACION FISICA
(NUMERO DE ALUMNAS POR PROVINCIA) CURSO 1969-70
CUADRO Nº 11

PROVINCIA DE ORIGEN	CURSOS NACIONALES					PROVINCIA DE ORIGEN	CURSOS NACIONALES				
	MADRID	BARCELONA	VALENCIA	TOTAL POR PROVINCIA			MADRID	BARCELONA	VALENCIA	TOTAL POR PROVINCIA	
				CURSO 69-70 APROBADAS	CURSO 68-69 APROBADAS				CURSO 69-70 APROBADAS	CURSO 68-69 APROBADAS	
ALAVA	1	-	3	4	7	MADRID	16	-	-	16	16
ALBACETE	-	-	2	2	9	MALAGA	2	2	5	7	6
ALICANTE	-	-	6	3	5	MURCIA	-	-	5	3	1
ALMERIA	-	1	2	3	6	NAVARRA	-	6	5	11	2
AVILA	6	-	2	6	7	ORENSE	17	1	4	13	9
BADAJOS	5	1	1	5	9	OVIEDO	-	3	1	4	10
BALEARES	2	1	-	2	5	PALENCIA	9	3	1	12	24
BARCELONA	-	2	4	2	9	PALMAS (LAS)	1	1	-	1	20
BURGOS	-	4	1	5	7	PONTEVEDRA	2	-	1	2	8
CACERES	6	1	4	8	9	SALAMANCA	-	-	1	1	4
CADIZ	3	3	-	5	3	SC. TENERIFE	-	1	-	-	17
CASTELLON	-	1	1	1	4	SANTANDER	-	9	-	8	3
CIUDAD REAL	2	5	2	8	8	SEGOVIA	2	1	4	6	6
CORDOBA	1	2	4	5	12	SEVILLA	2	1	6	6	6
CORUÑA (LA)	4	4	8	11	12	SORIA	1	2	-	1	4
CUENCA	-	4	10	6	6	TARRAGONA	-	1	1	1	6
GERONA	-	2	-	2	2	TERUEL	-	-	4	2	5
GRANADA	1	1	3	4	7	TOLEDO	2	-	1	3	6
GUADALAJARA	3	-	-	3	6	VALENCIA	-	-	3	1	16
GUIPUZCOA	1	4	2	6	7	VALLADOLID	1	1	3	5	5
HUELVA	1	-	1	2	2	VIZCAYA	-	1	-	1	9
HUESCA	-	7	-	6	6	ZAMORA	4	2	-	6	4
JAEN	6	-	4	9	8	ZARAGOZA	1	11	-	11	6
LEON	3	5	-	7	9	CEUTA	2	-	-	2	1
LERIDA	-	1	-	-	8	MELILLA	2	-	-	2	-
LOGROÑO	-	10	-	9	18	TOTAL	116	107	108	258	394
LUGO	7	2	3	9	9						

Pág. 36

Eta ikastaro desberdinak leku ezberdinetan egin ziren.

15. irudia: Egindako GH Ikastaroak

AGA C36 G2 N15

CURSOS NACIONALES DE EDUCACION FISICA CELEBRADOS DESDE EL AÑO 1.939 AL 1.969					
					Nº Alumnas
SANTANDER	Marzo	1.939		35
CIUDAD LINEAL	Julio	1.941		44
" "	Mayo	1.942		55
" "	Dobre. 1.942	Enero	1.943	27
" "	Octubre - Dobre.	1.943		31
" "	Enero - Febro.	1.944		75
DEVA	Julio - Octubre	1.944		160
SANTANDER	Julio - Sebtra.	1.945		36
CIUDAD LINEAL	21 Marzo - Julio.	1.949		67
EL PARDO	Enero - Octubre	1.952		120
" "	Enero - Octubre	1.953		102
" "	Enero - Octubre	1.954		48
" "	Octubre 1.954 - Junio	1.956		51
" "	Octubre 1.955 - Julio	1.957		16
ESCUELA NACIONAL E.FISICA "JULIO RUIZ DE ALDA".					
" "	Octubre 1.957 - Junio	1.960		19
" "	Octubre 1.958 - Junio	1.961		15
" "	Octubre 1.959 - Junio	1.962		22
" "	Octubre 1.960 - Junio	1.963		16
" "	Octubre 1.961 - Junio	1.964		29
" "	Octubre 1.962 - Junio	1.965		26
" "	Octubre 1.963 - Junio	1.966		27
" "	Octubre 1.964 - Junio	1.967		23
" "	Octubre 1.965 - Junio	1.968		32
" "	Octubre 1.966 - Junio	1.969		46 (3)

255

Ruiz de Aldako eskola, ofizialki 1959tik aurrera funtzionatzen hasi zen baina egitan 1945. urtean bere lehenengo urratsak izan ziren (Zagalaz Sánchez eta Cachón Zagalaz, 2012). Erabilitako testu-liburua "Julio Ruiz de Alda" honetan Luis Agosti jaunak idatzi zuen, (Zagalaz Sánchez, 1998). Jadanik dakigunez, Luis Agostik oinarri praktiko eta teorikoak sor zituen. Dena den, ESKo

lehenengo GH ikastaroak hasiak ziren. Horietariko lehenengoa Santanderren izan zen (Zagalaz Sánchez eta Cachón Zagalaz, 2012).

16. irudia: Santandertik Lula de Lararen “Carta de una cursillista”

Y aldizkaria 1938 Uztaila-Abuztua




Parte hartzailei dagokiona, hasiera batean ESkideak ziren gehienbat baina denboraren poderioz aldaketa batzuk eman ziren eta Zagalazak (1998) kontatzen dizkigun Martinez del Castilloren (1998) informazioa emakumearen partehartzea kirolan 1968tik 1974 tartean bikoiztu zela. Datu hau beste autore batzuk osatzen dute informazio ezberdinak gehituz, 1943.an argitaratutako dokumentu batean ikusi daiteke kirol talde gehienetan ESko kideak zeudela. Beraien aukeren artean gimnasia, saskibaloia, hockeya, eskubaloia, igeriketa zeuden. Aurretik aipatutako ordenean emakume kirolarien lehentasuna. 1943.an argitaratutako dokumento batean ESak informatzen zuen zituen taldeak saskibaloia, gimnasia, igeriketa, hockey eta eskubaloian (Ofer, 2009)

Emakumeen kirolean partehartzea gorantza zioan heinean ESak datuak argitaratu zituen erakusteko beraiek kontrolatzen zutela. Eta nola igotzen ari zen partehartze hori, gero eta jende gutxiago ESko militanteak izanda (Ofer, 2009). Gehienetan hori ez zen zuzena izan beti eta denboraren poderioz gero eta Esko militante gutxiagok parte hartzen zuten kirol talde horietan (Ofer, 2009).

Laburpen gisa hona hemen hurrengo dokumentoa, non irakurri daiteke nola urteetan zehar formakuntza antolaturik izan zen. Garaien arabera aldeak ikusi daitezkeen.

17. irudia: GH Formakuntza urteetan zehar.

AGA C36 G2 N°15




1.2.4.3. Gorputz Hezkuntzarako janzkera.

Ballarin-en hitzetan (2001) kastitatea eta birjintasuna erakutsi zitezkeen arroparen, hitz egiteko moduaren eta ondo pasatzeko egiten zenaren bidez, besteak beste. Neska guztiak berdinak, emakume guztiak berdinak, andra espainol guztiak berdinak izan behar ziren (Noval Clemente, 1999).

18. irudia: ESaren uniformeari buruzko gutuna.

AGA C8 G2 N°15.



ESak gorputz hezkuntzako klaseetarako derrigorrezkoa zuten arropa zehatz batzuk uniformeak janstea zehatza zen: praka-gona, bonbatxo urdina eta elastio zuria...neurriak zehazten ziren baita ere (AGA C8 G2 N°15).

ESak kontrolpean izan nahi zituen emakumeenganako ondorio eta eragin guztiak. Eta guztiak bete behar zituzten erakundeko goi-partean hartzen ziren erabakiak. Horregatik barneko gutunen bidez behin eta berriro informazio hau bergogoratzen zieten bai instruktorei bai maistrei. Bonbatxo urdin hauek oso “famatuak“ ziren, oso ezagunak, baina ez oso maitatuak. Arropa kirola

egiteko erabili behar ziren soinekoetaz aparte igeriketa egiteko erabili behar zen arropa beste arazo bat suposatzen zuen honek (Ofer, 2009). Estatu barruan horrela izan behar zen, ez zegoen beste aukerarik.


1.2.4.4. Gorputz Hezkuntzarako testu liburuak.

Pajarón Sotomayorrek bere tesian pasa den mendeko lehenengo zatian zelan garatzen joan zen GH estatuan azaltzen digu. Primo de Riveraren diktadura garaian *Cartilla Gimnástica Infantil* Toledoko *Escuela Central de Gimnasia* argitaratu zuen (Pajarón Sotomayor, 1987). Guzti honek erakusten digun jadanik GHk garrantzia handia zuelan urte hoietan, nahiz eta nahiko “estalirik” egon. Cartilla eskolarrean zerrendatu egiten dira dantza ezberdinak, beraien inguruko azalpenak, marrazkiak etab. Lan hau guztiz zehatza, espezifikoa da neskeentzako (Cartilla Escolar de EF, 1958). Cartilla honen sortzaileei buruzko aurkitutako informazioa bakarra hau da: 1958. urtean argitaratu zenean, Manual Escolar de Educación Física Manuel Chavesek liburu honen egileei eskerrak eman zizkien, Dr Adolfo Martin Pastor eta Dr Fausto Higelmori.

*Frente de Juventudes*eko “Curso de Mandos” delako batean GH-ren definizioa, honen historia, zergatik garrantzitsua zen eta zeintzuk ziren helburuak datuak argitaratu zen. (Frente de Juventudes, 1942).

19. irudia: Magisteritzarako Liburua

SF de F.E.T. y de las J.O.N.S. Madrid 1955



1955. urtean, ESak dagoeneko testuliburu bat zeukan garaiko maistrak prestatzeko. Liburu hau zatituta zegoen atal ezberdinetan, egia esanda liburu zatituta agertzen da eta zati bakoitzean gai ezberdinak, adibidez 199. orrialdean irakurri dezakegu: “Lección 38: El atuendo. La luz solar y sus efectos sobre el organismo. Baños de sol. Ejercicio muscular y menstruación” (Sección Femenina, 1955)

Hasiera batean, 1958 baino lehen, ez zeuden liburu asko formakuntzarako, orduan galdera batzuk sortzen dira: zer motatako materiala erabiltzen zen?, nola zeuden ordenaturik behar ziren puntuak, gaiak?. Honi erantzuteko López Fernándezen (2002) hitzak.

Fernández Martínezen (1960) “*Técnica de la Educación Física para Escuelas de Magisterio*” liburuan, teoría batzuk modernoago agertu ziren baina oraindik mutilentzako zuzenduta zegoen, hor agertzen diren komentario eta adibide guztiak maskulinoak dira eta. Horrela, beste programa batzuk agertu ziren adinaren arabera, helburuak, saioak eta eskola mota ezberdinen arabera (orokorrak eta mistoak) (VVAA, 1969).


Lege-mailan sortutako “*Regiduría de Cultura Física*” delakoari esker nabaritu zen GHk ofizialtasun pittin bat eta toki txiki bat lortu zuela. Legeak ezartzen zituen erakundearen helburuak eta antolakuntza mota (Sección Femenina de FET y de las JONS, 1955). Horrek aurrerapauso garrantzitsua suposatu zuen, bertan prestatu behar baitziren gerora estatu osoko nesken GHko irakasleak izango zirenak. 1939ko urtarrilan GHrako lehenengo egiazko plangintza bat aurkeztu zenean Zamoran ospatutako ESren III Nazio-Kontseiluan. Guzti hau Luis Agostiri esker izan zen. Berak ikusgai jarri zuen GH eta kirolaren inguruan filosofia bat, filosofía hau momentu horretan Europan zegoen ikuskera-biologikotik oso urrun zegoen (GH Irakaskuntzaren teoria berarena zen, eta momentukoa biologikoa zen). Baina emakumeentzako kirol modu berezi bat sortzea beharrezkoa zela argi zegoen (Suárez Fernández, 1993).

Agosti jauna izan zen erregimenaren aldeko beste gizon batzuekin batera ESko partetik aukeratutako gizon “jakintsu” bat, beraiek izan ziren izugarri garrantzitsuak mugimendurako, ESko emakumeek beraien laguntza, beraien aholkuak behar bait zituzten. Zoritxarrez, ez dute gauza berririk esaten emakumearen adierazpide propioari buruz hitz egitean (Ramírez-Macías, Kinnebrock, Knieper 2014).

Agostiren aportazioak asko eta oso ezberdinak izan ziren hasiera batetik, eta honen adibide praktiko bat da berak egindako ariketen azalpen eta marrazkiak “*Consigna*” aldizkarian urte ezberdinetan, laguntzeko informazioa emoten eta metodologia bat sortzen irakasle guztientzako.

20. irudia: Luis Agostik berak eskuz egindako marrazkiak eta azalpenak


Consigna 1945 Maiatza-Abuztua aldizkaria



Agostik “Gimnasia Educativa”an (1948 eta 1974an berriz argitaratua) markatzen du hezitzailearen nahien eta helburuen garrantzia, baina adina eta sexua kontutan hartu behar direla beti ahaztu barik. Emakumearentzako egokienak ziren arieketak eta lanak. Egokitu behar ziren erabilitako arieketak eta kirolak emakumeentako (Suárez Fernández, 1993).

21. irudia: Gimnasia-taula adibidea.

AGA C7 G2 N°15



Agostik egin beharreko ariketa motak eta ariketa horiek zenbat aldiz egin behar ziren zehaztu zuten. Bigarren maila batean emakumea mantendu nahi zuten, aldaketarik ez zitzairen interesatzen. Hau da, emakumeak gizonaren lekua okupatu barik (Agosti, 1974). Autore honek baita ere hitz “arraza” hobetzea fisiko ikuspuntutik ezinezkoa zela.

ESren izan zuten eragina estatuko emakumearen hezkuntzarengan argi ikusi daiteke, “izugarri izan zela” bai metodologian bai testuetan bai formakuntzan (Zagalaz Sánchez eta Martínez López , 2006).

1.3. Euskal Herriko emakume kirolaren historian

Euskal emakumeek askotariko kirol praktikak egiteko aukera zuten, eta gizarte mailak, bizitokiak (landatarra, hirikoa), gizarte-eragileek (familia, ikastetxea, adiskideak) eta kronologia-aldiek zehazten zuten egingo zuten kirola. Diktaduraren urteetan, kirol praktikak aldatzen joan ziren. Ordurako, frankismoa heldu aurreko XX. mende hasierako urteetan, argi dago emakume

kirolariak gizarte maila altukoak zirela. (Sentamans, 2010). Euskal Herrian, 1936ko guda piztu aurretik, gizarte maila horretako emakumeek golfa, tenisa eta zaldiketa praktikatzen zituzten. Gipuzkoan eta Bizkaian, hockeya modan zegoen. Kirol hori Ingalaterratik heldu zen (herrialde horretara ikastera joandako nesken bitartez). Hockeyaren goren aldia 40ko hamarkadan koka dezakegu.

Frankismoren lehenengo hamarkadeetan zehar gehien hedatu zen praktiken artean igeriketa dago. Klub pribatuetan bazegoen aukera zuten emakumeak txapelketetan parte hartzeko “La presencia femenina, aunque muy tímida al principio, supone un aliciente añadido, el del nuevo rival a batir” (Torres, 2008: 105).

Aldi berean, emakumeen artean arrakasta gehien zeukaten praktikak naturarekin erlazionatutakoak ziren, mendizaletasuna bereziki. Mendi martxak taldeka, lagunekin bikotearekin egiten ziren (Aguado, 1992; Lekaroz, 2009). Hasi batean, emakumearen parte-hartzea ikuspegi paternalista batetik begiratzen zen, hots, txapelketetan gizonari baino gutxiago eskatzen zitzaion. Hala ere, zenbait emakume mendizalek jarrera hori diskriminaziotzat hartu zuten, eta aukera berdintasuna aldarrikatzen hasi ziren.

El 30 de mayo de 1943 se inició en Guipúzcoa la Marcha de las Catorce Horas de Aralar, de Tolosa a Aralar, que se haría insospechadamente popular. Se había realizado un par de veces en los años 20 (...) Esta nueva edición tenía tres novedades: era abierta a montañeros de todas las sociedades, era de marcha regulada y, por su dureza, se prohibía la participación femenina y de menores de 20 años (...) Participaron 37 patrullas de tres individuos. Terminaron la prueba (de las Catorce Horas) en los tiempos establecidos 35 patrullas. Entre los que llegaron había un participante imprevisto: la tolosarra Maritxu Arana, del Amaiak Bat de Donostia, que se había empeñado en dejar en evidencia a los organizadores, por la prohibición. (Iturriza, 2005:27).

Pixkanaka, emakume mendizaleak espazio propioa lortzen joan ziren, eta, gizonak ondoan eduki gabe, mendi-irteerak egiten hasi ziren.

“Las vizcaínas Maritxu Bilbao y Angelita Olano llegan con sus mochilas en autobús a Sallés y emprenden el camino a Piedrafita.(...) Quizás querían demostrarse a sí mismas que eran capaces de realizar sus propias excursiones sin el apoyo del club o de otros compañeros. jornada siguiente supone superar la Brecha de Roland (...) Bajan por una traza de agua. Cuando llegan abajo y se lo comentan a un pastor, éste responde escéptico: por ahí no baja más que el agua” (1955-07-17). (Iturriza, 2005:56).

Eskia praktikatzen zuten emakumeak ere bazeuden, baina askoz gutxiago ziren. Jarduera hori praktikatzeko ekipamendu berezia erosi behar zer, eta hori ez zegoen guztien eskura. Gauzak horrela, gizarte maila altuko zenbait emakumek eski-txapelketetan parte hartu zuten. Era berean, natura-jardueren artean eskalada zegoen, baina euskal emakumeen artean ez zen erraz zabaldu, nahiz eta 50eko hamarkadan aitzindaririk egon.

El 2 de septiembre de 1951 el Diente del Ahorcado fue escalado por José Mari Zaballa, del Frente de Juventudes, y María del Carmen Alcoceva, de la Sección Femenina de la FET y de las JONS, que formaban la segunda cordada que ascendió ese día. María del Carmen realizó una magnífica ascensión muy en su papel de último de cordada, recuperando todo el material (Iturriza, 2005:54).

Eta ez da hau mendiko pasadizo bakarra.

(1951-08-11): tres montañeros parten hacia la base del Naranjo desde el refugio de Vega de Urriello: Alfonso Martínez (emblemático guía de los Picos), Fernando Etxenike (veterano, había escalado el Naranjo ya en 1935 con Alfonso) y su hija Julene Etxenike, de 18 años (que el día anterior había subido con su padre la cumbre de Torrecerredo, convirtiéndose en la

primera mujer en subir). ‘Me siento orgullosa de ser la primera vasco-navarra en visitar esta montaña’. Tiene los dedos despellejados por los roces de las rocas. (Iturriza, 2005: 55).

Azken denboraldian, 60. hamarkadatik aurrera, emakumeek bestepraktika arriskutsuagoetan parte hartzen hasi ziren, hoien artean eskalada eta mendi-igoerak eskakizun tekniko gogorragoekin. Aurrendaria Loly Lopez Goñi, lehenengo euskal emakumeak eskalatu zituela Gaubeko Couloir eta Perdido mendiko iparraldeko glaziarra. Hau gertatu zen 61-63 urteen artean noiz gizonak baino ez zirela goi-mendiko taldekideak:

La dama de los Alpes. El 15 de agosto de 1958, a las 3:30 de la madrugada, tras haber escuchado la misa celebrada en el interior del mismo refugio, Loli López Goñi y su marido Fue la primera mujer vasca en hacer cima, igual que lo había sido días antes en el Mont Blanc. (Iturriza, 2005:142)

Baina emakumea izaterakoan tranpa batzuk egiteko behartuta sentiten zen. “Generalmente, en casa no decía que iba a escalar, sino que me iba con Imanol de excursión al monte. Sólo cuando estaba ya de vuelta, decía la verdad” (Eguren, 2000: 142).

Taldeka praktikatzen diren kirolei dagokionez, euskal emakumeak batez ere saskibaloian aritzen ziren. 50eko hamarkadan, saskibaloia ‘kirol ez oso agresibotzat, neskentzako kiroltzat’ jo zuten (*Apuntes a la historia del deporte alavés*, 1992-1993: 4). Horregatik, gizarteak emakumearen parte-hartzea onartzen zuen. Hasieran arrakasta gutxi izan baina pixkanaka zabaltzen eta tokia egiten joandako beste zenbait kirol ere bazeuden, besteak beste, boleibola 60ko hamarkadan eta eskubaloia 70eko hamarkada (Aguado, 1992; Bacigalupe, 1986).

Beranduago, garai hartan gizonezkoentzat omen ziren eta emakumeentzat gaizki ikusita zeuden zenbait kirol zabaltzen joan ziren, atletismoa eta txirrindularitza, adibidez. Atletismoa 60ko hamarkadan praktikatzen hasi zen Euskal Herrian. Txirrindularitza, berriz, oso gutxi zabaldu zen

emakumeen artean, nahiz eta emakume askok lanera joateko bizikleta erabili (Aguado, 1992; *Apuntes a la historia del deporte alavés*, 1992-1993).

Herri Kirolen praktika landa zonaldeetara eta herriko jaietara mugatuta zegoen. Testuinguru honetan emakumeek birla-jokoetan parte harteko aukera zuten. Birla Federazioa 60. hamarkada arte ez zen sortu eta emakumeen partehartzea tapelketa instituzionalizatuetan hasi zirenerako gizonak urteak zeramaten. Beste Herri Kirol jardueretan ez zeuden emakumerik normalean nahiz eta beraiek baserrietan indar-lanetan parte hartu (Aguado, 1992). Dena den, emakumezko harrijasotzaile baten bat omen zegoen 40. hamarkadan.

Garai hartan, kirol jarduera profesional bakarra zegoen: erraketistak edo pilotari andereñoak. Emakumeak kirol hori gerra zibila hasi baino lehen praktikatzen hasi ziren, eta, nahiz eta frankismo garaian traba ugari izan, 60ko hamarkadara arte praktikatu zuten (Abanda, 1998).

En el año 1940 se funda la Federación Española de Pelota Vasca, dependiente de la Delegación Nacional de Deportes, al frente de la cual se encontraba el general Moscardó, un destacado, para mal, protagonista, en el devenir de esta especialidad pelotística. Parece ser que consideró que la práctica deportiva con carácter profesional era impropia de la condición femenina o algo parecido, y decidió cerrar los frontones de la especialidad de raqueta. (...) las escuelas existentes dejaron de funcionar, la profesión perdió todo su atractivo para las aspirantes, no se producían nuevos debuts, las raquetistas van envejeciendo, se iban cerrando frontones y la cosa iba languidecie

22. irudia: Ingalaterran, 1925an iragarki bat.

Euskal Herria Museoa (Gernika, 2013).



Emakume Sekzioak kirolaren aldeko lan egin zuen baita ere, 60. hamarkadatik aurrera bereziki.

La iniciación y promoción del voleibol en Álava hay que buscarla a nivel escolar a cargo de las Delegaciones Provinciales de la Sección Femenina y [de] Juventudes (...) A principios de los 60 nace el Medina-Sección Femenina, hasta que en la década siguiente inician la competición federada entrenadas por Quintana. A mediados de los setenta desaparecen La Sección Femenina y Juventudes pasando las competiciones escolares a depender del Consejo Escolar y las respectivas federaciones. (*Apuntes a una historia del deporte alavés*, 1992-1993, fasc. 21, p. 12)

Baina emakumeen kirola hastapenean izugarri garrantzia klub pribatuak izan zuten.

Las mujeres irrumpieron en el deporte a través de iniciativas privadas, generadas por las propias deportistas (...) hockey femenino en San Sebastián (Guipúzcoa) y Bilbao (Vizcaya).

Entonces el hockey sobre hierba, al igual que en San Sebastián, era un deporte de élite que

practican las señoritas de la burguesía de Neguri, cuando el deporte femenino todavía no se había instalado en otros estratos sociales”. (Abanda, 1998: 41-42).

Euskal hirien zabalera eta hedapenarekin batera asisialdirako elkarte eta kirol klub pribatuen kopurua gora joan zen. XIX. mendearen hasieran jadanik elkarte horiek zeudela baina ezaugarri artistikoago, literariago batekin. Mendearen bukaeran burgesen artean kirol klubak agertzen hasi ziren baita ere (Luengo, 2003). Klase herrikoiak beste sozializatzeko espazio batzutan elkartzen ziren, herri kirolekin, jaiekin erlazionatuago zeudenak. Erronkak, apustuak edo herri kirol erakustaldiak egiten ziren (enborrak moztu, pesoak jaso...) (Madariaga, 2003). “La élite burguesa, con ánimo de diferenciación social, dejó de lado la tradición y los juegos de las clases populares, y se puso del lado de la moda, del esnobismo y del sport anglosajón” (Torrebadella, Olivera y Bou, 2015: 15).

Era honetan, Torrebadella, Olivera eta Bouren hitzetan (2015) sortutako kirol elkarte berri hoiengokopurua portu-zonaldeetan izan zen. Estatu osoan zehar gauza bera gertatu zen. Euskal Herrian, bai Bilbon bai Donostian kontakto handia zegoen Ingalaterrako kirol praktikekin. Lehenengoak burdinaren komertzioagatik eta bigarrena aristokraziok bertan uda pasatzen zuelako. “Durante la restauración borbónica (1874-1931) se da un aumento del asociacionismo deportivo. Los reyes (...) inglesa y adoptaron el sport como práctica recreativa e influyen en la aristocracia del país, la cual a su vez adopto esta tendencia” (Torrebadella, Olivera, y Bou, 2015: 48)

Bestaldetik Gasteiz kasua oso desberdina izan zen, eta bere erritmoa askoz mantsoago zen (Garay, Egibar y Ruiz de Arcaute, 2012). Klub pribatuen garrantzia ondo ulertzeko adibide batzuk ditugu: *Club Lawn-tennis de San Sebastián* (1895), *El Club Marítimo del Abra* (1902), *Club de Tenis de Vitoria* (1907), *Club Jolaseta Neguri* (1911), *Las Arenas* (Getxo) (Torrebadella, Olivera y Bou, 2015; Torres Ripa, 2008).

Igeriketa hasiera batean klub pribatuetan soilik egiteko aukera zegoen eta gizonentzako baino ez. Pixkanaka pixkanaka emakumeak horretan sartzen joan ziren eta momentu bat ailegatu zen: igeriketa emakumeentzako oso kirol gomendagarria kontsideratzean. Horietariko klub batzuk ziren: *Club de Regatas de Bilbao* (1867), el *Sporting Club de Bilbao* (1881), *El Club Náutico de Bilbao* (1881), El Club de Regatas de San Sebastián (1882), el *Real Club Náutico de San Sebastián* (1896), *Club Deportivo de Bilbao* (1912), *Club Deportivo Fortuna de San Sebastián* (1914), o el *Club Natación Judizmendi* (1935).

Txangotasun eta mendi elkarteak oso paper inportante jokatu zuten Kataluina eta Euskal Herrian bereziki, industrializaio-prozesua eta Pirineoen hurbiltasunagatik (Moscoso y González, 2014: 9).

Euskal Herrian frankismoan praktika honek identitate karakterra edota aldarrikapen nazionalista bat hartu zuen. Hasiera batean klub batzuetan emakumeak ezin zuten bazideak izan baina muga hau bertan behera gelditu zen eta denboraren poderioz. Emakumeak senideekin mendi-irteetara joaten ziren. Pixkanaka Pirineo eta Alpeko mendietaraino joaten hasi ziren (Iturriza, 2005). Frankismo aurretik mendi-klubak bazeuden eta *Federación Vasco Navarra de Alpinismo* 1924.an sortu zen. Bilbon *Bilbao Alpino Club* (1924) eta *Sección de Montaña del Club Deportivo Bilbao* (1912) sortu ziren. Gipuzkoan, bestetik, *Club Deportivo Eibar* (1924) eta *Club deportivo Fortuna de San Sebastián* (1935). Gasteizen *Acción Católica Sociedad Cultural Goiena* (1947), el *Club Alpino Alavés* (1944) y la *Sociedad Excursionista Manuel Iradier* (1949) hasi ziren. XX. Mendeko 40. hamarkadan Euskal Herrian 50 mendi-klubak baino gehiago zeuden.

1924 aurretik jadanik *Club Deportivo de Bilbao/Bilboko Klub Deportivo* antolatzen zituztenean mendi-irteerak askotan emakumeak joaten ziren eta gero eta onartuago izaten ziren talde barruan. 1924an *Bilbao Alpino Klubak* bere estatutoetan onartu egiten ditu emakumeak, gauza bera *Club Deportivo Eibar* 1933an, eta urte bi beranduago *Club Deportivo Fortuna de San*

Sebastián. Izugarrizko desberdintasunak Europako beste club batzuk egindakoarekin konparatuz, 1974 edo 1975 arte (*Alpine Club de Londres* y *Club Alpin Suisse*, hurrenez hurren). (Iturriza, 2005).

Mendizaletasuna eta euskal kulturaren erlazioa nabaraigoa da frankismoaren azken garaian. Adibide bat da 1963tik aurrera Gasteizetik Gorbeia Mairuelegorretaraino egiten zen mendi marxa, ezpatadantza dantzatuz bukaeran. Frankismoaren kontrako manifestaldia bihurtuz, horregatik segika ibilita eta debekatuta izan zen.

40. hamarkadan eta 50.aren leheengo urteetan klubak kirola kontrolatzen zuten, horregatik kirol praktika pribilegio bat zen. Baina 60. an egoera desberdina zen eta emakumeak parte hartzeko aukera zuten atletismoan (Bilboko San Inaziko pistetan 1950. an eraikiak) (Tutor, 1993). Pastor Ruizen (2002) tesian Bizkaian urte hauetan eskolako kirola nola antolatzen eta garatzen zen oso zehazki azaltzen digu. “

Euskal Herrian txirrindularitza klubak XIX. mendearen bukaeratik bazeuden: *Sociedad de velocipedistas de Bilbao* (1886), *Sociedad de Velocipedistas Irún* (1886), *Sociedad de Velocipedistas de San Sebastián* (1888), *Veloz Club Donostiarra* (1890), *Veloz Club de Bilbao* (1899), *Veloz Club de Vitoria* (1899) *Club Ciclista Irunés* (1897), beste hainbeste. Baina emakumeentzako tokirik ez.

“El uso del velocípedo y la bicicleta por las mujeres desencadena en estas su incorporación en las incipientes prácticas deportivas modernas, provocó un revuelo social. Esta práctica se inscribe en el marco de las reivindicaciones feministas de la época” (Torrebadella, Olivera y Bou, 2015:36).

Urteak pasatu beharko ziren 60. hamarkada arte emakumezko konpetizio-txirrindularitza Euskal Herrira ailegatzeko (Lasa, 2011).

1.4. Jarduera Fisikoak eta Kirola Bizkaian Frankismoaren garaian

Bizkaian kokatuta dago ikerketa hau, horregatik herrialde horri buruz informazio zehatzagoa emango da ezaugarri deberdinak kontutan hartuz. Lan honen lehendabiziko ataletan nazioartean eta espainiar estatuan emakume kirolarien bizitza eta egoera nola aldatuz joan ziren aztertu eta gero, orain arreta ikerketaren mamian jarriko dugu. Bizkaian emandako aldaketak ezagutuko ditugu; lurralde horretan emakumeak kirolarekin eta jarduera fisikoarekin zer nolako harremanak zituen ikusiko dugu. Zenbait puntu aztertuko dira:

- * Emakume Sekzioa eta kirola eta jarduera fisikoa
- * Bilboko Club Deportivo-ren garrantzia emakume kirolarientzat.
- * Bizkaian praktikatzen ziren jarduera fisikoak eta kirolak.
- * Joko Olinpikoetan parte hartutako lehen emakume bizkaitarra.
- * Bizkaian garai hartan argitaratutako berriak egunkarietan emakume kirolariei buruz jasotakoa.

1.4. 1. Emakume Sekzioa Bizkaian.

Espainiako estatu osoan bezala, Bizkaian ere Esren (Emakume Sekzioa) kontrola emakumengan argi eta garbi zegoen. Horretarako Bizkaian ESak bazituen bere antolakuntzarako zentro berezi batzuk, hauen berriak lortu ditugu. (Suárez Fernández, 1993). Bizkaian kokaturik zeuden zentroak hauek ziren.

*ESk zituen zentroak emakumeekin aurrera ateratzeko lan mota desberdinak.

MEDINA-ZIRKULUAK. Medina Zirkulu hauek oso garrantzitsuak izan ziren lehenegotariko kirol-taldeak antolatuak atera bait ziren. Emakumezko kirol-talde hauen izena estatu osoan amankomunean zen: Medina.

GAZTERI-ZIRKULUAK: hauetan denetarik egiten zen, kirol-taldeak antolatu, dantzak egin, Gizarte Zerbitzua etab.

2. taula: *ESren zentroak Bizkaian.*

Emakume Sekzioaren Zentroak Bizkaian	
Gazteri-zirkuluak	Medina-zirkuluak
Abanto	Emakumezko kirol-talde guztiak hasiera batean izen honekin jolasten zuten.
Areeta-Getxo	
Basauri	
Bermeo	
Bilbo (3)	
Durango	
Galdakao	
Orduña	
Portugalete	
Sestao	
Trapagaran	

Suárez Fernández, 1993.

Aurreko taulan agertzen den informazio bat zentro bati buruz, Getxon dagoena esan behar da: ofizialki ezinezkoa izan da jakitea non zuten beraien lokala, ez bait da inon agertzen. Getxon, Punta Begoña izenez ezaguna den eraikinean herritar guztiei zuzendutako bisitak egiten hasi ziren duela zenbait urte. Kasualitatez, bisita egitean gidariak horman dagoen ikur bat “Auxilio Social”-arena dela esan zigun. Horren atzean arrazoi bakarra egon daiteke; agian ESak egoitza gela horretan izan zuen (nahiz eta horren gaineko informazio ofizialik ez izan).

23. irudia: Auxilio Socialaren ikurra Punta Begoñako pareta batean (Getxo).

Norberak (2015)



Getxo hiriaren informazioarekin jarraituz. Getxon kirola eta emakumeari buruzko lortutako informazioa gutxi izan da. Getxoko Artxibuan aurkitutako dokumentu batzuei esker jakin izan da zerbait gehiago, lortutako guztia:

- 1942. urtean Nuevo Club Deportivo Bilbaok 100 pesetatako diru-laguntza eman zuen Abrako igeriketa-zeharkaldirako. (AMB-BUA 3. Karpeta).
- 1950an Esko “Coros y Danzas” estatutik at erakustaldiak ematen egon eta gero Bilbotik bueltatu behar ziren eta erakunde honek jendea, emakumeak, harrera egitera animatzen zuen. (Alkatearen gutuna, 1950-03-06).
- 1971ko urrian Gorputz Hezkuntza ikastaroak egon ziren eta gero andra hauek Getxoko eskoletara bidaliak izan ziren kirola zabaltzera. 12 partehartzaileak izan ziren eta saskibaloia, eskubaloia eta minisaskibaloia-txapelketak antolatu ziren. horrez gain eskola pare batetan Kirol Gimnasia praktikatu zuten (gimnasioa bait zuten ikastetxe hauetan). 1971-2ko denboraldian zehar izan zen hau (urritik martxora arte).
- Hurrengo urtean, 1972-3 (urritik urtarrila arte) Areetan beste Gizarte Sozial-ikastaroa egin zuten beste 12 neska. Kasu honetan, eskoletan jarduera zabalagoa egin zuten: gimnasia, saskibaloia, minisaskibaloia, boleibola, eskubaloia.


Gazteentzako Aterpetxe eta Kanpementuak. Gallartan eta Zornotzan zeuden (Suárez Fernández, 1993). Leku hauek urtean zehar erabiliak ziren helburu batzuetarako baina uda aldean bereziki kirola edota jarduera fisikoetarako.

Bizkaia mailan 1969an kirol gertakizunak egon ziren, horien artean ezin ahaztu “*I Juegos de la Enseñanza General Básica*” Bizkaiko Atletismo Federaziok ESrekin batera eta Bilboko Udalaren laguntzarekin antolatu zutena. Hurrengo lau urteetan berriro ospatu ziren itzelako partehartzearekin. (AMB-BUA Q-5-1974, Q-3-75).

ESren barnean, “*Regiduria de Cultura Física*” delako honetatik kirol-antolakuntza propio bat sortu zen, hona hemen txapelketa batzuen emaitzak eta txapeldunak.

24. irudia: 1947.urteko txapelketak eta emaitza batzuk.

SF de la FET y de las JONS (1947)



Frankismoaren urteetan ikastaro asko izan ziren eta honen inguruan datu estatistiko eta emaitza asko ikusi daitezke Carrero Erasen tesian (1995), hain zuzen ere 1938-1978 urteetan. ESK bere ikastaro propioak bazituen baita ere, maila ezberdinetakoak ego narren Gorputz Heziketarekin

guziz erlazionaturik zeudenak. Delgado Buenoaren tesiari (2009) esker jakin izan dugu nola 1938. urtean gorputz heziketari buruzko ikastaro bi egin ziren. Jakina, antolatzen zena neskeentzako egokiak edota femeninoak ziren jarduerak baino ez zeuden. Honi buruzko informazioa ES berak argitaratzen zituen urteroko aldizkar txiki batean.

25. irudia: Ikastaroak, partehartzaileak. Informazioa.

SF de la FET y de las JONS (1949)



REGIDURIA CENTRAL DE EDUCACIÓN FÍSICA

Número de camaradas inscritas voluntarias en Educación Física de Sección Femenina...	5.042
Número de camaradas practicanes (S. F.) ...	3.919
Número de camaradas movilizadas (S. F.) ...	3.088
Número de camaradas movilizadas (Juventudes) ...	3.500
Número de licencias despachadas para Campeonatos Nacionales (S. F.) ...	2.021
Número de licencias despachadas para Campeonatos Nacionales (Juventudes) ...	2.414
Número de equipos existentes (S. F.) ...	741
Número de locales organizados ...	187

CURSOS EN LOS QUE SE HAN DADO CLASES DE GIMNASIA	
Cursos Nacionales del Servicio ...	1
Camaradas asistentes a él ...	30
Cursos Provinciales del Servicio ...	5
Camaradas asistentes ...	105
Cursos Nacionales ajenos al Servicio de Educación Física ...	11
Número de alumnas que han recibido estas clases ...	737
Cursos provinciales y locales ajenos al Servicio de Educación Física ...	104
Camaradas que han recibido estas clases ...	1.374
Cursos locales de Formación de la Masa ...	10
Camaradas que han recibido estas clases ...	530
Cursos locales del Servicio Social ...	48


91

EStaz aparte, bazegoen beste erakunde bat estatu mailan. Erakunde honen izena SEU, “*Sindicato Español Universitario*”, zen. Honek, gazteen artean kirola zabaltzea asmoa omen zuen.

Kirol-praktika emakumeen artean gero eta hedatuago zegoen frankismoan zehar. Eta nahiz eta ESaren eragina handiegi ez izan Bizkaian (honek ez du esan nahi influentziarik ez zuela jaso) kirolarien zenbakia goruntz zihoala argi eta garbi dago.

26. irudia: Espainiako estatu mailan emakume kirolarien partehartzea herrialdeen arabera, 70. hamarkadaren hasieran.

AGA C9 G2 N19.Norberak moldatua (2015).



Baina nahiz eta aldaketa horiek egon, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak itzelak izaten jarraitu ziren. Kirolak lagunak izateko, askatasuna lortzeko, lekuak ezagutzeko baliogarria izan arren ez du ziurtatzen pertsonen arteko berdintasuna. Kirolan sexoen arteko desberdintasunak oso agerian gelditzen dira (Santos Ortega, Balibrea Melero, 2004).

1.4.2. Bizkaiko kirol klub pribatuak.

Frankismoaren hasieran ez zeuden apenas kirol instalakuntzarik Bizkaian. Egoera hau aldatzen joan zen, baina klub hauei merezi duten lekua eman behar eta nahi diet oinarriak, ezin estekoak izan bait dira Bizkaiko kirolari emakumeen historia eta garapenarentzat.

3. taula: *Bizkaiko Kirol Klub Pribatuak Frankismo garaian*

BIZKAIKO KLUB PRIBATUAK		
KLUBA	NON KOKATURIK	NOIZ SORTU
Club Deportiv Bilbao	Bilbo	1894
Jolaseta	Getxo	1933
Tenis	Plentzia	40.-50. hamarkadetan
Nautica	Portugalete	50. hamarkadan
Kiroleta	Bakio	1955
Kai-eder	Plentzia	1961
Martiartu	Erandio	1968
Landatxueta	Loiu	60. hamarkadan
Sociedad Deportiva	Mungia	50. hamarkadan
Bilbaina		

Norberak (2015)

1.4.2.1. Adibide bat: Club Deportivo Bilbao / Bilboko Club Deportivo (CDB).

Club Deportivo Bilbaok (1912-06-15an inauguratua) garrantzi handia izan zuen Bilboko kirol bizitzarako. Gizonentzako txokoa zen haisera batean klub hau sortu zen, eta gizon hauek egia esanda ez ziren langile arruntak baizik eta goi-mailako familiakoak (Estomba Echepeare, 2007). Igeriketa, boxeoa, esgrima, zirkoa, txirrindularitza, atletismo. Jarduera fisiko eta kirola hauek, besteak beste, Club Deportivo Bilbaori esker Bilbora heltzeko aukera zabaldu zen.

Hauen adibide argi bat atletismoarena izan daiteke, 1914ko udaberrian “Gizarte-Olinpiada” bat antolatu zuten Bilboko kaleetan froga ezberdinak egon ziren. Hauen artean aipatu daitezke 110m heziak, martxa, altuera, luzera, pertiga besteak beste (Ibañez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994:36). Emakumeentzako ezer ez.

Emakume Sekzioaren etorria aurretik, jadanik XX. mendearen hasieran Bilboko Club Deportivo kirol ekintzak antolatzen zituela badakigu, Klub honetan beste kolektibo berri batzuk sortu ziren kirol eta jarduera ezberdinetara dedikaturik: esgrima igeriketa, zirkoa, mendia. Baina garai horretan oraindik orain klubaren barnean emakumearen agerpena baliogabekoa, baliogabeko izaten jarraitzen zuen. Urte dexente pasatu beharko ziren emakumeak klub honetako bazkideak izateko aukera ailegatu arte, eskubide hori izan arte. 60. hamarkadaren bukaeran klubak hartu zuen erabaki importante bat: 18 urtetatik gorako emakumeak “zenbaki bazkidea” izateko aukera izango zutela. (Ibañez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994).

Bai saskibaloia, bai igeriketa, bai tenisa egiteko aukera omen zegoen club honetan historian zehar. Klubaren historian zenbait emakumeren izenak agertzen dira, Kiko Egiraunen emaztearena, esaterako. Hark Elgezabal abizena zuen, eta eskiatzailea zen. Baina, nola ez, Bilboko emakume kirolari gehienek klub horrekin nolabaiteko harremana zuten. (Estornes, 2014).

XX. mendearen lehenengo urte horietaz emakumea hainbat kirol jardueretan parte hartzen zabaltzen hasi zen, adibidez, mendiko lehiaketetan (Granja, 2012). Mendira joaten ziren emakume gehienak gizon mendizale ezberdinen ahizpak edota emazteak ziren. Antza denez, eta gutxi omen ez zirenez, 1924 inguruan klubaren barruan lehenengo aldiz sortu zen txapelketatxo bat emakumeentzako (hau berezia zen), sei mendiko zerrenda bukatzen/egiten zuteneentzako dominak banatzen zituzten. Baina mendizaletasunarekin joera berbera zen: emakumeak ezkondu eta gero beraien seme-alaba eta gizonari bizitza dedikatzen zioten eta agur esaten ei zioten mendira joateari. Egia da, batzuk jarraitzen zutela baina oso gutxi. Hori bai, urteak pasa eta gero mendira bueltatzen ziren (Estornes, 2013). Mendira joateko zaletasuna zuten emakume horien artean, batzuk hurrengo anekdotako protagonistak izan ziren: mendira joateko erosoagoa zen prakak erabiltzea eta igandeetan izaten ziren mendi-irteerak gehienetan. Apaizek ez ziren bat ere adoz arropa mota honekin, horregatik igandeetan elizan atzeko zonaldean jarri behar ziren meza ematen ari zenak ikusiarena ez izateko. 40.-50. hamarkadeetan mendira joateko emakume taldeak omen zeuden.

Mendizaletasunarekin erlazionatuta ere, eskia zegoen. Emakume batzuk hasi ziren jarduera honetan parte hartzen. Espinosa de los Monterosen 1913. urtean jadanik antolatutako martxa batzuetan emakumezko lagun-talde eta mistoak zeudela jakin badakigu (Ibáñez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994). 1915. urtetik aurrera, garai horretan oraindik elur asko egoten zen, emakume batzuk hor praktikatu egiten zuten. Emakume eskiatzaile batzuen izenak ditugu, adibidez Conchita eta kIsabel Ferrer. Familia oso kirolari batekoak ziren hauek, eta beraiek Antonio Ferrer *“El hombre de las Cavernas”* ezizenarekin neba zuten (Granja, 2012). *“La mujer ha entrado con éxito en el mundo del deporte, y su entrada ha sido una conquista más a unir a las que nos tiene acostumbrados”* (Granja, 2012: 122).

27. irudia: Club Deportivo-ko antolatutako irteera bat eskiatzera (1924),
argazkian badaude emakume.

Ibañez, Ruiz Idarraga, Zabala (1994:73)



Lawn-tenis beste kirol mota zen (izen honekin tenisa ezagutzen omen zen Bizkaia aldean), Neguriko goi mailako gizarteak jarduten zuen bereziki (Ibañez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994). Aipatzen ari garen momentu zehatza da, 1936ko guda baino lehenagotaz ari gara. 1931ko apirilaren 5ean, klubak izen berria hartu zuen: *Nuevo Club de Bilbao*. 1941. eta 1958. urteen bitartean garai berezia izan zen. 1959tik aurrera, *Club Deportivo*-ren baitan geratu zen aipatutako kluba eta hark egindako guztia. Beraz, azken izen honekin identifikatua dago hemendik aurrera-. Klubaren eraikin berria inauguratu zen eta nahiz eta bazkide “aurreratuen” “modernuenen” ustez emakumeari lekua egin behar zioten. Momentu hori ailegatu arte klubeko ateak oraindik orain urte batzuk pasatu beharko ziren. (Ibañez, Idarraga, Zabala, 1994)

Egia da klubeko ateetatik kanpora antolatzen ziren ekintzetarako ongi etorri izaten ziren andrak, baina barrukoetan parte hartzea askoz zailagoa zen (ezinezkoa hobe esanda) “gizonezko santutegia arriskuan” ikusten zalako. Nola nahi ere 1942ko martxoan ez zegoen ezta emakume bat klubean, baina pixkanaka hau aldatuz joan zen (Ibañez, Idarraga, Zabala, 1994)

Club Deportivo Bilbaoko “Emakume Sekzioa”k EZ zeukan Emakume Sekzio ezer ikustekorik, ez zuen harremanik Pilar Primo de Riveraren erakundearekin (hau argi gelditu behar da), Falangeko Emakume Sekzioarekin, kasu honetan klubaren antolakuntza baino ez zuen adierazten, gela bat zen non emakumeak elkartzeko aukera zutela, non emakumeek elkartzen ziren berba egiteko, kafea hartzeko, eta non “beraiantzako aproposak ziren aldizkariak” zeuzkaten. Giza berberan “Haur Sekzio” delako bat baita ere sortu zuten klubean.

Emakumeentzako momentu hain berezia ez zen ailegatu 1954. arte, urte honetan, emakumeak bazkidea izateko eskubidea, baimena lortu zuen. Klubak dirua behar zuen aurrera egiteko, eta, beraz, emakumeak sartzea onartu zuten, diru-sarrera handia ekarriko zutelako. Hain desiragarria zen parekatzea diru beharrak ekarri zuen. (Ibañez, Idarraga, Zabala, 1994).

*Club Deportivo*aren barruan bere historian zehar jarduera fisikoa, kirol ezberdinak izan ditu. Hoiere artean batzuk gaur egun klubaren praktiken artean desagertuak daude, hoietariko bat txirrindularitza adarra zen, hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran desagertua. Eta xelebrea, zergatik, ba?. Erantzun erraza: 1945. urtean lehenengo aldiz emakumeentzako froga berezi bat egin zelako. (Ibañez, Idarraga, Zabala, 1994). Ez ahaztu txirrindularitza emakumeentzako ondo ikusita ez zegoela. Etorkizunean holako gertakizuneei esker emakume txirrindularien agerraldiak hobe onartuko bait ziren.

Club Deportivoaren barnean hasieratik Bizkaiko igeriketa protagonista izan zen, bere toki propioa izan zuen. Are gehiago, 1920ko uztailan Espainako Igeriketa Federakuntza Bartzelonan sei klubere artean sortu zenean, hoietariko bat Bilboko Club Deportivoa zen. Emakume bizkaitar igerilari gutxi, oso gutxi. Hala ere batzuen aztarnak aurkitu ditugu. 1925. urteko klubeko txapelketak (barnekoak zirenak) Abrako Itxas klubeko ontziralekuan, Getxon, ospatu ziren. Honen inguruan Estornesek (2011) Hernandez andereñoak 50metan parte hartu zuela idatzi zuen. berri

Estornes jaunak informazio hauek ziurtatu zituen egindako elkarrizketa personal batean Bilbon (2014-12an).

Ekitaldi askotan parte hartzen zuten baina zonaldeko garrantzitsuena Abrako Kaian Itxas-zeharbidea iraila aldean egiten zena izaten jarraitzen zuen. Antza denez, I. eta II. edizioak 1937 eta 1938. urteetan ospatu ziren baina hurrengo bost urtetako geldiene bat egon zen. Denbora hau eta gero Abrako jarduera errekuperatu zen 1942.an. Eta honen inguruko informazioa irakurri dezakegu emakumeak egon zirela. (Ibañez, Idarraga, Zabala, 1994:105)

28. *irudia*: Chuchi Mota, Abrako IV. igeriketa zeharkaldiaren irabazlea (1943)

Ibañez, Idarraga, Zabala (1994:94)



40. eta 50. hamarkadeetan oraindik emakume eta gizonak bai entrenatzeko bai konpetitzeko aldenduak egon behar ziren. Baina 1950 aldera Juantxu Gonzalezek, entrenatzaileak, klubean aldaketa batzuk sortu zituen. Urte hoietan igerilari bilbotar batzuk oso maila onarekin egon ziren, beraien artean Inge Anduiza eta Esther Moragas aipatu ditzakegu (emak.18), (5. taula).

1.4.3. Joko Olimpikoak eta emakume bizkaitarra.

Emakume eta olinpismoaren artean harremana zaila eta berezia izan da (Contecha Carrillo, 2000). Baina noiz hasi ziren euskal emakume kirolariak Joko Olimpikoetan parte hartzen?. Nortzuk izan ziren lehenengo aitzindari horiek?. Emakumeak apurka joan ziren parte hartzen Joko Olimpikoetan baina horrek ez du esan nahi guztiz onarturik zeudenik eta beraien espazio propioa zutenik, eta horren adibide bat izan daiteke nola Berlingo Joko Olimpikoetan (1936) “Villa Olimpica” delakoan Hiri Olimpikoan emakumeentzako tokirik ez zegoela, soilik gizonentzako.

29. irudia: Berlingo JJOOetan emakume kirolari italiarrak.

Dost (2004:11)



Aipatu behar da bizkaitar bat, jaiotzez bilbotarra dena: *emak.4 informatzailea* (5. taula, 106. orrialdea) lehenengo euskal emakume kirolari olinpikoa izan zela. Kirolari honek Londreseko Jokoetan, 1948. urtean, parte hartu zuen jauzi-ohol edota tranpolin jauziak espezialitatean. Bera izan zen lehenengo emakume kirolari bizkaitarra Joko Olimpikoetan (Leibar, 2011). Familia kirolari batekoa da *emak.4*, bere aita eta osaba Athletic Clubeko jokalaria izateaz gain Mexikoko izenean bera eta neba kirolari olinpikoak izan ziren baita ere (familia atzerri aldera joan ziren arrazoi

politikoengatik). Beste aldetik, bere ahizpa Bibiñe Bizkaiko mailan oso tenislari ona eta famatua izan zen (Bizkaia aldera bueltatu zen bera 70. hamarkadan).

Emakume berak ere Mexiko ordezkatu zuen 6 metroko jauzi-ohol txapelketan. Bigarren Mundu Gerraren ostean izandako jokoetan egoera ez zen inorentzat erraza izan. Dena den, eta Joko Olinpikoetan egon arren, selekzio honek egoera nahiko ezberdina zuen neska eta mutilen artean. Berak kontatutako pasadizo hauek:

*Neskeentzako janari nahikorik ez zegoen, eskerrak beste selekzio bateko jendeak ematen zien, EEBBkoek hain zuzen ere.

*Entrenatzeko arazoak bazeuden ere bai. Beraien entrenamendu-ohiturak desberdinak ziren Igeriketa-zuloaren sakontasuna nahikoa ez zen eta jauzitzaileei inork ez zien abisurik eman. Horregatik Ibone lesionatu zen (eskumuturra apurtu zitzaion) baina txapelketa bukaeran 16. poztua lortu zuen.


Nazio arteko mailan ezin ahaztu Joko Olinpiko hauetan (London, 1948) emakume atleta batek historian idatzi zuen urrezko lau domina lortzerakoan lehenengo aldiz. Oso berezia izan zen 30 urte izateaz aparte seme-alaba bi zuen, Fanny Blankers-Koeni “*ama de casa voladora*” izendatu zutena (Mundo Deportivo, 2016:20).

Lehenengo euskal emakume kirolaria izateaz gain, ezin ahaztu nola jauzitzaile honek, gaur egun jarraitzen duen praktikatzen bere betiko kirola, eta are gehiago Munduko Master Txapelketetara gaur egun joaten jarraitzen duen horietariko bat da.

Esan beharra dago Euskadi erkidegotik Seul-88ko Joko Olinpikoak ailegatu arte ez ziren euskal emakume kirolari gehiago joango, bi izan ziren hain zuzen ere Blanca Lacambra Saiz eta Maite Zuñiga Dominguez, biak atletismoan. Hurrengo emakume kirolari bizkaitarra ez daukagu Bartzelona 1992. urte arte, beste atleta bat izan zen hau Cristina Castro Salvador. (Leibar, 2011).

30. irudia: Emak.4 jauzi bat egiten iraganean eta gaur egun.

Emak.4 informatzailea



1.4.4. Prentsa , emakumea, jarduera fisikoa eta kirola Bizkaian.

Nola ikusten zen emakumearen papera jarduera fisikoan, kirolean Bizkaiko komunikabideetan?. Ondorengo taulan (4. taula) ikusi daitezken egunkari batzuei buruzko informazioa eta bertan aurkitutako berriak gai honi buruz. Eranskinetan taula honen garapena kontsultatu daiteke datu zehatzagoekin. Gaur egun, emakume kirolariak eta beren irudia ardatz duten zenbait ikerketa daude, baina nahiko anekdotikoak eta estetikoak dira (Lallana del Río, 2005). Urteak pasatu dira baina batzutan egoerabatzuk antzekoak gertatzen dira.

Egunkarietan emakumeaz hitz egiten zenean kortesia, adeitasun eta fintasun osoz izaten zen baina emakumeen kirolari-papera berri-berria zenez oraindik orain asko aldatu beharko ziren gauzak (etxe barrukoak ere bai, jakina).

Bizkaia mailan egin da analisi hau. Bizkaiko egunkariekin soilik. Eskola, parrokia, auzo eta familietan hurbil zituzten pertsonen partetik galderak eta erantzunak jaso dira. Baina andra horien

eremu pertsonalatik ateraz gero, pixka urrutira joanda, ingurura denok dakigu prentsa eta aldizkariak duten eragina gizartearengan, iturri-informazioa beraiei sor diegu, bereziki urte horietan kultura eta informazioa sistemak kontrolpean bait zeuden. Nola ikusitak ziren?. Zer pentsatzen zuen jendeak kirola egiten zuten neska horiei buruz?. Itauñ hauei erantzuteko garai horretan zehar, frankismoan zeuden hainbeste egunkari eta aldizkariak aztertu izan dira. Jomuga honetara ailegatzeko ziren. Hona hemen laburpen-taula: sortutako urteen arabera ordenaturik:

4. taula: *Aztertutako egunkari eta aldizkarien zerrenda.*

NOIZ SORTU?	IZENA	ZENBAT ALE ZTERTU IREN?	ZENBAT BERRI MAKUME IROLARIETAZ URKITU ZIREN?
1891	El Nervión	14	1
1901	Gaceta del Norte	413	67
1924	Excelsius-Excelsior	17	1
1937	Diario Hierro	438	111
1970	Diana,	40	7

Atzeko eranskinetan ikusi daitezke hauen erreferentziak bai miatuen aleak bai aurkitu ziren berriak. Hauetaz aparte, Sabino Arana Fundazioan (Bilbo) “Avante” (“*El correo español el pueblo vasco*”-k zuen kirol-astekariak ale batzuekin topatzerakoan emakumezko kirolari buruzko berri batzuk lortu topatu ziren.

Prentsa, aldizkari hauek erregimen-gizartearen ideiak isladatzen zituztela ezin ahaztu. Lorpenak, garapenak berri hauek irakurtzerakoan somatzen dira. Hurrengo taula hauetan ikus daitezke hemerrotekan jarraitutako etapak prentsarekin lan hau egiterakoan:

*Egunkari eta aldizkariak aukeratu.

*Ikertu 1936-1975 egunkari eta aldizkariak.

*Urte bakoitzatik hileroko ale bat zozketaz aukeratu.

*Ale hori miatu ea emakume-kirolariei buruzko berririk dauden ala ez. Baietz izaterakoan urdinez markatu bestela beltzez agertzen dira.

Orokorrean, esan behar da aldaketak nabaritzen direla urteetan zehar. Gero eta berri gehiago argitaratzen dira emakume eta kirolaren inguruan. Aztertu diren ale eta berrien artean desberdintasun importante bat dago, emakumeen inguruko kirol-berriak aurkitu nituen “*Diana*” aldizkari honetan, *Banco Bilbao* argitaratzen hasi zen 70. hamarkadan. Aldizkari hau espreski argitaratzen zen emakumeentzat. Baina Frankismo iraundu zuen bitartean urteetako ale guztiak aztertu eta gero, oso berri gutxi aurkitu dira, emakumezko kirol-berriak hain zuzen ere.

Egunkariak aukeratzekoan kontutan hartu zen bertokoak (Bizkaian argitaratuak) zirela, alde politiko ezberdinenak eta frankismoaren zehar une desberdinetakoak zirela. Hilabeteko ale bat aukeratzeko, ordenik gabe, antolatu barik. Banco Bilbao delakoko aldizkaria aukeratu zen Emakume Sekzioaren aldizkaritaz aparte bakarra zelako “emakume-aldizkaria” hitzekin agertzen zena zen. Dena den, Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegiaren hemerrotekan beste aldizkari bat aurkitu arren ezinezkoa izan zen bere erabilera frankismoaren hasierarekin batera desagertu bait zen. Gainera, estatu mailako berriak soilik agertzen ziren. Dena den, kirol-berri desberdinak agertzen ziren, atletismoa eta eskia beste hainbeste. Frankismoarekin debekatuko zen atletismoa jadanik neska batzuk praktikatzen zutelaren berriak argitaratuak zeuden.

31. irudia: Jaurtitzale bat.

Cronica aldizkaria 1934-03



Orokorrean, esan beharra dago, oso berri gutxi agertzen zirela emakume-kirolarien inguruan. Hala ere, 70eko hamarkadan aldaketa nabarmena izan zen. Hasiera batean, 30. hamarkadan irakurri zitekeen gehienak ez ziren bizkaitarretaz, atzerritarretaz baizik, horiek ziren emakume kirolariei buruzko berriak. Adibide bat daukagu Hierro egunkarian (1937) non Willie den Ouden igerilariak 20 urtekin bere burua zaharra ikusten zuen.

Espainiako estatuko emakumetaz berriak apenas argitaratzen ziren. Eta salbuespen bat zegoen momentu horretan, oso andra berezi bat aipatu beharra dago, Lili Alvarez. 1924an Joko Olinpikoetan Rosa Torresekin batera Espainiako estatutik lehenengo emakumezko kirol ordezkariak izan ziren hauek. Gaur egun emakume kirolariei buruz egindako ikerketek argi uzten dute garai hartan Lili Álvarez edo Rosa Torres bezalako emakumeen lorpenak gutxiesten zirela; beraiei buruzko pasadizoei lehentasuna ematen zitzaien (Gómez-Colell, 2015). Beste aldetik, Lili Alvarez Francoren alde (Hierro egunkaria, 1937-12-29) jarrera hartu zuen (behintzat hasiera batean) eta oso ondo kon sideratua zegoen

Itxurazko adeitasunarekin tratatzen zituztela esan daiteke; hori pentsa daiteke artikulua ugari irakurri eta gero (ezin ahaztu urte asko igaro direla). Eta berria kirolaria izatearena garrantzitsuena ez izanda. Beraien bizitza pribatua interesanteagoa bait zen.

32. irudia: Kirolari pare baten ezkontza


Excelsius egunkaria 1936-12-19



Kirol-froga bereziak egon arren emakumeentzako, kirol praktikaz aparte beste detailaz arduratzen zen askotan prentsa, hurrengo berri honetan erabili behar zuten janzkerari emandako garrantzian nabaritu daiteke.

33. irudia: Emakume txirrindulariak, “andereño”entzako soilik, arroparen kontrola.

Hierro Egunkaria 1942-05-27



Atletetaz eta frogataz hitz egin eta gero bat batean emakumeen fisikoaren garrantzia agertzen da, emakumearen edertasuna hain zuzen ere.

34. irudia: Emakumeak “guapas”.

Hierro egunkaria 1964-09-19

Será el cierre de temporada en pista (en este caso la ceniza es sustituida por la arena) y allí estarán los más firmes puntales del atletismo vizcaino para correr el hectómetro, los 400 y 1.500 lisos. Tirar el disco, jabalina y hacer relevos olímpicos. Ellas, por su parte, tomarán la salida en 100, 400, relevos cuatro por ochenta, tirando también al peso y disco. En total, guapas y «feosa» serán unos veinticinco atletas.

Las pruebas, organizadas por el Vizcaya Club de Educación y Descanso, con el patrocinio del Ayuntamiento de Sopelana. De modo que el domingo, atletismo... y baño. Casi nada.

MYRON

Gaur egungo ikerketa batzuk badaude honen inguruan eginda, Planteamendu interesanteak eta gogorrak egiten dituzte. Aipagarria da prentsaren eraginagatik gizarteak emakumezko edo gizonezko kirolarien aurrean modu batera edo bestera erreakzionatu dezakeela ikustea. (Lallana del Río, 2012).

2. Metooda

2.1. Ikerketaren helburuak

Tesi honen bidez ikertu nahi dugu frankismo garaiko emakume bizkaitar kirolarien esperientziak eta bizipenak nolakoak izan ziren ezagutzea, analizatzea eta belaunaldi berrietara helaraztea, memoria hau gal ez dadila, eta haiengandik ikasteko.

Beraz, tesiaren helburua orokorra hauxe da:

Emakume kirolari bizkaitarren frankismoan zehar izan zituzten bizipenak eta esperientziak jasotzea, informazio hau berreskuratzeko, gordetzeko eta belaunaldi berrietara transmititzeko.

Hau da, frankismo garaiko emakume kirolarien IKUSGAITASUNA ematea, eta kirolaren historia berriaztea, hurrengo belaunaldiak ez ahazteko eta erreferenteak edukitzeko.

Frankismo garaian kokaturik dago, 1936-1975 tartean, eta momentu historiko honen testuinguruak emakume kirolarien praktikak baldintzatu zituen, baina zein zentzutan izan zen eragin hori aztertu nahi nuke. Hau dela eta, lanari ekiteko momentuan galdera batzuk sortu zitzaizkidan, hauek dira garrantzitsuenak:

1. Zein motatako emakumeak praktikatzen zuten kirola?. Zein testuingurutakoak ziren?. Zer eragina zuen klase sozialak kirola aukeratzekoan?
2. Emakumeak zein kirol mota praktikatzen zuten?.
3. Nolako zen emakume kirolarien bizitza, garapena eta amaiera, haien traiektoria?. Zergatik uzten zioten kirola egiteari?
4. Nork bultzatu edo lagundu zien kirolaren hastapenean? Agente sozializatzaileen eragina: familia, lagunak, irakasleak, entrenatzaileak, beste batzuk

5. Nolakoa zen eskoletan egiten zuten heziketa fisikoa (gorpuz heziketa)?
6. Nolakoa zen Emakume Sekzioaren kontrola kirolean?
7. Frankismo garaiko moralak nola baldintzatzen zuen emakumearen kirol praktika?
8. Nolakoa zen garai hartako kirolarien janzkera?

2.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa

Lan honen asmoa emakume kirolarien ahotsak berreskuratzea denez, ikerketa bideratzeko modu aproposena kualitatiboa dela uste dugu, emakumeen esperientzia bera jasotzea garrantzitsuena delako eta ez kuantifikatzea esperientzia hauek. Hau dela eta, gure ikerketa metodologia ikuspegi kualitatibotik planteatu dugu, zenbakiak edo estatistikak baino gehiago bizipenak eta esperientziak interesatzen zaizkigulako. Lan honetan, genero berdintasunaren arloko frankismo garaiko bizieraz ezagutarazten dira, historia berreraikuntzarako, emakume kirolarien historia osatzeko nahian.

Riaño Gonzalezen (2004) hitzak jarraituz gaur egun ildo honetako ikerketek lagundu diezaguke iragana ulertu eta berrinterpretatzeko, horregatik lan honen planteamendu metodologikoa emakume kirolarien ahotsa errekuaratzean datza. Historia hauek errekuaratzeke ahozko metodoa erabiltzea erabaki genuen. Ikerketa honen sostengua, oinarria ahozko metodoan datza. Emakumeek emandako informazio guztia ahozko elkarrizketen bidez lortu da. Elkarrizketa hauek banaka egin dira leku desberdinetan. Elkarrizketak egiteko gidioen egitura erdi-irekia izan da, gaia bideratzeko abiapuntuko galdera batzuekin, baina elkarrizketaren ildo itxi gabe, horrela informatzaileak libre izan ziren garatzeko haien bizipenak, batetik bestera komentarioak egiteko, edota nahi izanez gero gai azaldatzeko.

Beste aldetik, Ikerkuntza dokumentalaren metodo ere erabili dugu informazioa jaso eta

analizatu ahal izateko. Horrela iturri dokumentalen azterketa sistematikoa egin dugu, idatzizko edota ez-idatzizko dokumentuekin (prentsako berriak, informatzaileek emandako argazkiak, artxibategikoen dokumentazioa...) elkarrizketatik ateratako datuak osatzeko edota kontrastatzeko.

Ikerketa hau fenomenologia metodora hurbiltzen daitekeela esan dezakegu, bi ezaugarri hauek betetzen dituelako:

- a) Gertakari sozialen ikerketa horiek bizi dituzten pertsonen lekukotasunetan oinarritzen da.
- a) Ez du bilatzen orokortzea. Gertakarien deskribapenak eta hausnarketak egiten ditu, ulerkuntzarako mugak aitortuz

Gainera, ikerketa honek fenomenologiak jarraitzen duen prozedura bera jarraitzen du: lehendabizikoa, gertakarien deskribapena, gero deskribapenen egituraketa (sistema kategorialak), eta azkenean emaitzen aurkezpena eta eztabaida .

2.3. Parte-hartzaileak

Informatzaileak bilatzeko ezaugarri jakin batzuk kontatutan hartu behar ziren, emakume bizkaitarrak izatea, eta kirola edo jarduera fisikoa praktikatzea frankismo garaian (1936-1975 urteetan). Ikerketa honetarako 30 emakume elkarrizketatu nuen.

Informatzaileen multzoa hiru zatitan banaturik dago jaiotze-dataren arabera: lehenengo zatian, 1940. urtean jaio baino lehen (emak.1-emak.11), bigarrenean, 1941-1949. urteetan artean jaio zirenak (emak.12-emak.21) eta hirugarren zatian, 1950-1959 tartean jaiotako emakumeak (emak.22-emak.30).

Hurrengo taula ikusi daiteke 3 koloreetan banaturik dagoela, kolore bakoitzari jaiotze-data jakin bat dagokio: morea 1940. urtean jaio baino lehen, urdina 1940-1949. urteetan artean jaio

zirenak, eta horia kolore zatian 1950-1959 tartean jaiotako emakumeak. Irizpidea holako denborabanaketa egiteko hasiera batean erabaki pertsonala izan zen: jaiotze-datak kontutan hartuz zenbakiak borobiltzeko asmoa zen, hau da hamarkaden arabera antolatzea. Horrez gain, oso garrantzitsua zen adin minimo bat izatea andra hauek beraien bizipenez hitz egiteko. 1959 baino lehenago jaiotako emakumeak soilik hautatzea erabaki erraza izan zen, une horietako neskek frankismoaren bukaeran (1975.an) 15-16 urteekin oroipen propioekin jarduera fisiko eta kirolekoak zutelakoan. Kontutan hartu zen, baita ere, frankismoan zehar eman ziren aldaketa erabakigarriak historia ikuspuntutik adierazten den bezala. Hau da, guda osteko urte gutxira, 50. eta 60. hamarkadetan aro desberdinak egon ziren, irekitasun-urratsak agertuz.

5. taula: *Elkarrizketaturiko emakumeen oinarrizko datuak.*

Emakumea	Kodigoa	Jaiotze Urtea	Kirola, Jarduera Fisikoa	Jaiotze Lekua
1940 baino lehenago jaiotakoak (emak.1-emak.11)				
RBD	emak.1	1923	Gimnasia	Cadiz
MBDM	emak.2	1929	Tenisa	Bilbo
BSJR	emak.3	1929	Mendia	Galindo
IBA	emak.4	1930	Jauziak	Bilbo
MLMJ	emak.5	1933	Igeriketa	Bilbo
ELB	emak.6	1933	Golfa	Areeta (Getxo)
MBA	emak.7	1934	Mendia, eskalada, eskia	Bermeo
MCSV	emak.8	1938	Saski-baloia	Bilbo
MBOF	emak.9	1939	Atletismoa	Algorta (Getxo)
MTGD	emak.10	1940	Saski-baloia	Bilbo
CFG	emak.11	1940	Saski-baloia	Bilbo
1940-1950 (emak.12-emak.21)				
BLV	emak.12	1941	Atletismoa	Bilbo
MCDLS	emak.13	1943	Txirrindularitza	Orduña
RVA	emak.14	1943	Atletismoa	Lutxana
RMAV	emak.15	1944	Esgrima, mendia, tiro	Muskiz

JMPG	emak.16	1945	Igeriketa	Bilbo
ACFA	emak.17	1946	Hockeya	Areeta (Getxo)
CYY	emak.18	1946	Hockeya	Getxo
EMC	emak.19	1946	Igeriketa	Bilbo
YNB	emak.20	1946	Saski-baloia	Bilbo
MAPS	emak.21	1949	Atletismoa	Salamanca
1950-1959 (emak.21-emak.30)				
MEAU	emak.22	1950	Saski-baloia	Bilbo
MJRO	emak.23	1950	Atletismoa	Areeta
CBM	emak.24	1951	Esku-baloia	Bilbo
MALG	emak.25	1951	Atletismoa, Saski-baloia	Bilbo
MMC	emak.26	1953	Tenisa	Teruel
REG	emak.27	1956	Saski-baloia	Bilbo
BGG	emak.28	1958	Saski-baloia	Bilbo
ICG	emak.29	1958	Igk	Barakaldo
BCR	emak.30	1959	Saski-baloia	Bilbo

Jaiotze tokiari dagokionez, Bilbok jasotzen du jende-kopuru gehiena, salbuespen bi izan ezik (Urduña eta Mexiko) beste emakume guztiak Bilbo hirian edota Bilbo handian bizi izan dira. Bilbo, Bizkaiko hiriburua izateagatik, kirola egiteko aukera gehiago aurkezten zituen.

2.4. Informazioa biltzeko tresnak

Elkarrizketak.

Ikerketa honen mamia emakume kirolarien esperientzietan datza, horregatik elkarrizketak erabili ziren. Elkarrizketak erdi-gidatuak izan ziren, emakumeen diskurtsoa ez ixteko. Ez genbilako erantzun itxien bila, kontrakoa baizik, askatasun osoa ematen nien andreei beraiek nahi zuten zatia, erantzuna zabaldu edota sakontzeko. Horregatik gidoi bat prestatu genuen, ikerketaren hasieran sorturiko galderak abiapuntutzat harturik, eta emakume guztiakin berbera erabili zen. RIHMUD taldeak bere lehendabiziko ikerketa erabilitako gidoiari oinarritu nintzen baina nire ikerketara egokituta.

Gidoiaren egitura 5 ataletan banatuta dago: Hasierako galderak (haien datu pertsonalak). Gorputz Hezkuntzarekin erlazionatutako datuak . Eskolatik kanpo egindako jarduera fisikoak. Txapelketako kirolarekin erlazionatutako informazioa. Aspektu moralekin erlazionatutakoak.

- Elkarrizketak egiteko baliabideak: grabagailu digitalak eta Nvivo-10 programa.

Elkarrizketa guztiak grabatuak izan ziren bat ezik, emakume honek grabaturik ez zuelako izan nahi (emak.11). Horretarako Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Gizarte Ikerketarako Laborategitik grabagailu digitalak maileguan hartu nituen, eta gero Sony Digital Voice Recorder programarekin ordenagailura audioak pasatu nituen, transkripzioak egiteko. Transkripzioetan idatzi nuen informazioa analizatzeko QSR NVivo 10 programaren laguntzarekin kontatu nuen.

2.5. Iturri dokumentalak

Elkarrizketutako informatzailen bidez jaso nuen informazioa osatzeko beste iturri desberdinetara jo nuen: liburutegiak, artxibategiak, datu-baseak, hemerrotekak, argazkiak etab.

2.5.1. Datu baseak.

- EHUko datu-baseak: Dialnet, Eric, CSIC-ISOC, Heracles, Proquest, SportDiscus, Web of Science, Scopus...
- TESEO (Base de Datos de Tesis Doctorales).
- TDX (www.tesisenxarxa.net).
- DART Europe (tesi europarrak).

2.5.2. Dokumentazio-zentroak: Artxibategiak eta Liburutegiak.

1. AGAn (Archivo General de la Administración) Alcalá de Henaresen kokatuta dagoela Emakumeari buruzko informazio gehiena lortu nuen. Estatu osoko Emakume Sekzioari buruzko informazioa hor gordeta omen dago, niri interesatzen zitzaidana (hau da Bizkaikoa) hor zegoen. Egia esanda, gure herrialdeari buruz apenas ezer ez zegoen. Dena den, berri baliotsu ugari lortu zen bertan.
2. BFAH-AHFB (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa). Zoritxarrez, hamen argazki batzuk baino ez zeuden. Informazio idatzirik batere ez zegoen (nere gaiari buruz esan nahi dot, jakina).
3. Bilbon dagoen “Bizkaiko Artxibo Hsitoriko Probintzial”ara joan arren ezer ez nuen lortu, hango langileen erantzuna gogorra izan zen: Bizkaian ESak egindako lanari buruzko ezer ez zegoela. Zerbait egotekotan AGAn (Archivo General de la Administración) izango zela, antza denez beraien artxiboan egon behar zena erre omen zen (ez zekiten noiz, nork, zergatik, zertarako)
4. Bilboko Udal Artxiboa (BUA-AMB). Bilboko udalbatzarretan hartutako erabakiak eta informazio oso ezberdina, beste batzuen artean non zeuden ESko bulegoak, ESko kirol-arduradunak Udalarentzako, nortzuk ziren nesken kirol-txapelketak, San Inazioko Polikiroldegia noiz sortu zen.

5. Deustuko Unibertsitateko liburutegia. (liburu batzuk Emakume Sekzioari buruzko idatzirik baita ere bazeuden).
6. EHUko liburutegia.
7. Euskal Herria Museoa, Gernikara joan “Emakume Pilotaria” erakustaldia ikustera, bertan liburu bat emakume pilotari buruz informazio pilo eta kontaktu batzuk lortu ziren.
8. Getxoko Udal Artxibuan. Emakume Sezkioko “Coros y Danzas” gaiari buruzko zerbait dago eta udalerrian antolatutako umeentzako txapelketaxo batzuk, eta emakumeentzako ikastaroak.
9. INEF-UPMA (Universidad Politécnica de Madrid) Liburutegia: liburuak (zaharrak eta berriak) eta tesiak.

2.5.3. Federazioak.

Federazio askorekin kontaktuan jarri arren ez zen oso bide lagungarria. Batzuk hasiera batetik saiatu ziren laguntzen (Bizkaiko Igeriketakoa, Bizkaia eta Euskadiko Zaldiketakoa, Tenisekoa, Saski-baloikoa, Esku-baloikoa, Boleibolekoa adibidez) beste batzuk, aldiz, ez zuten ez da erantzun. “Ez zegoela informaziorik” zuzenean esanez. Pena handia izan zen, baina inork ez zekien non egon zitekeen emakumeekin erlazionatutako informazio hori. Emakume kirolarien izenak historian galduak ziren.

Edonola ere, hainbeste federazioetan emakume batzuekin kontaktuan jartzeko lagundu zidaten (igeriketa, tenisekoetan).

2.5.4. Prentsa.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia. Hemeroteka oso interesgarri bat dago. Hasiera batean hemeroteka-lana kontsulta-gelan hasi nintzen mikrofilmatuta zegoen materiala erabiliz. Lehenengo momentuan “*Hierro Diario de la Falange Española*” (1937-1975) egunkaria aztertzen hasi nintzen,

baina gero bilaketa Euskal Herriko Unibertsitateko Leioan dagoen hemerotekara jo nuen material gehiago bait zegoen. Beste batzuekin, adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia, interneten bidez kontsultatu nuen: “*El Nervión*” (1936-7), “*Excelsius-Excelsior*” (1936-7), eta “*Gaceta del Norte*” (1938-1972). Eta garaiko aldizkariak, esate baterako “*Y*”, eta “*Consigna*”.

- *Diana* Revista Femenina del Banco de Bilbao. BBVko artxiboetan aurkitu ziren.
- EHU Leioako hemerotekan “*Diario Hierro. Diario de la Falange Española*” (1937-1975) egunkariaren ikerketarekin jarraitu nuen.
- Sabino Arana Fundazioan, Bilbon, “*Avante*” kirol-astekaria. Fundazio honetan ale batzuk zituzten eta horien artean emakumeei buruz batzuk bazeuden.

2.6. Ikerketa aurrera eramateko erabili den prozedura

Ikerketa prozesu hau etapa desberdinetatik pasatu da. Orokor eta ezezagun batetik beste bat zehatza eta errealago batera. Hau da, lehenengoz gorde, sailkatu eta artxibatuta zegoen informazioa bilatu eta miatu zen. Ondoren, emakume kirolari bizkaitar batzuekin nola kontaktatzearen beharra sortu zen. Zailtasun guzti hauek gaindituz gero 30 andra elkarrizketatu ziren, eta beraiek emandako informazioa transkribatu zen. Honi esker datu hamaika batu, sailkatu eta aztertu ziren.

2.6.1. Lehenengo etapa: Ikerketa dokumentala.

Ikerketaren inguruan zegoen informazioa bilatu eta batzeko hemerotekara jotzeaz aparte artxibategi eta liburutegi ezberdinetan aritu nintzen. Dokumentazio gehiena zuzenean aztertu nuen, baina egunkari eta aldizkari batzuk Interneten bidez kontsultau ahal izan nuen, adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegian, interneten bidez kontsultatu nuen: “*El Nervión*” (1936-7), “*Excelsius-Excelsior*” (1936-7), eta “*Gaceta del Norte*” (1938-1972). Eta garaiko aldizkariak, esate baterako “*Y*”, eta “*Consigna*”. Hor nire tesiaren gaiarekin erlazionatutik den guztiak aztertuak izan

ziren, hilero zorizko egun bat aukeratuz ea emakumezko kirol-berririk agertzen ziren bertan sailkatzeko. Ea garaiko prentsak emakumezko kirol-berritz arduratzen zen ala ez ziurtatzeko, aldizkariak. “*Diana*” BBVako emakumeentzako aldizkaria banku honen fondo historikoan aurkitu zen.

AGAk artxibategian (Archivo General de la Administración) hiru egun eman eta gero, paperen artean, Bizkaiari buruzko ES-ren paperak aztertzeko aukera izan genuen. AGAk bere ateak eguerdian ixten zituztenez *Universidad Politécnica de Madrid*-eko *Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del deporte/INEF*-en dagoen liburutegira joatea erabaki nuen. Bertan, aukera ezin ukatu liburutegiko “fondo zaharrea” zeuden liburu batzuk aztertzeko. Hau konplikatu xamarra izan zen: aurreko egunetik eskaera egin behar zen eta “fondo” horretarako bakarrik ordu zehatz batzuetan jeisten ziren material bila, pena merezi izan zuten itxaronaldi eta artxibo batetik fakultate batera korrikaldi horiek.

2.6.2. Bigarren etapa: Informatzaile egokiak bilatzeko prozesua.

Elkarrizketaturiko emakumeekin kontaktatzeko era zeharo desberdinak izan ziren. Federazio pare batean izen-abizenak eta telefonoak lortu ziren. Beste hainbeste gizon pare batekin izandako aurrez-aurre elkarrizketa eta gero (*Estornes eta Ramos* jaunekin, hain zuzen ere) mendizale eta atleta batzuekin berba egiteko aukera sortu zen. Nire ahizpak saskibaloian ibilitakoak dira, baten entrenatzailea bestearen taldekidea izan zenari esker beste jokalaria bat lortua, eta saskibaloia jokalarien kate bat sortu zen. Dena den, onartu beharra dago kontaktu batzuk ezustean sortu zirela (irakasle ohi bati gaia komentatzen, lankide baten abesbatzakidea beste batzuen artean)

Nola erabaki zen nortzuk, proposatutako andreen artean, egokiak zirela?. Alde batetik non jaio ziren partehartzaileak inportantea zen. Elkarrizketaturiko emakumeak leku desberdinetan jaio ziren, batzuk Bizkaitik kanpo, egia da kasu bi baino ez zirela izan. Baina bestetik, erabakigarriena

“kirol-bizitza” Bizkaian herrialdean garatzea izan zen. Aipagarria da Bilbon jaiotako bat atzerrira joan zela bizitzera baina berak bere burua kontsideratzen duenez guztiz bizkaitarra, guztiz bilbotarra eta berak holan eskaturik (asko gustatuko litzaiokeela ikasketa honen parte izatea) bera bilbotarra delako sartuta dago baita ere, gainera eta ikusi denez, bere kasua apartekoa izan.

2.6.3. Hirugarren etapa:Emakumeekin kontaktatzeko prozesua.

Informatzaileekin kontaktuan jartzeko prozesua guztiz garrantzitsua izan zen, azken finean emakume hauen oroipenak, esperientziak ikerketa honen altxorak eta oinarriak eratu zituzten. Emakume kirolariekin kontaktua lortzeko bide desberdinak izan ziren erabiliak:

- Federazio batzuekin kontaktuan jarri eta gero beraiek eman zituzten telefono batzuk eta andra hoi baimenekin pasatu zizkidaten. Holan izan zen Bizkaiko Igeriketa, Bizkaiko Saski-baloia, Bizkaia eta Euskadi Tenisa, Bizkaiko Esku-baloia federazioa, Pilota federazioak. Azurmendi jaunarekin telefono-elkarrizketa bat antolatzen lagundu zuten.
- Jolaseta Klubean. Bizkaiko emakumezko hockeyaren sustatzaile (lehenengo kluba izan zen eta) pare batekin harremanetan jarri ninduten.
- Kaixo B.C. taldekideak izan ziren batzuekin hitz egin eta gero elkarrizketa bat lortu zen. Honi esker beste batzuk eskuratu ziren. Talde hau emakumezkoa soilik zen eta estatu mailan oso lorpen ederrak lortu zituen. Baina zoritxarrez duela urte batzuk desagertu zen, diru falta eta. Gaur egun kirol honetan emakumezko goi-maila errekuperatzeko asmoarekin dabiltzate Bizkaian.
- Gernikako Euskal Museora erraketisten inguruan esposaketa ikustera joaterakoan bertako langileek erraketistak izandako emakume pare batekin kontaktatzen lagundu zuten. Baina arrazoi desberdinetatik andra hauek ez dira izan informatzaileak.

- Getxo Atletismo Taldeko entrenatzaile batek (Dimas Ramos jaunak) Bizkaia mailan lehenengotariko atleta batzuekin berba egiteko aukera eman zidan.

Pertsona anonimo batzuei kontaktuak lortzea sor zaie baita ere:

- 2015-03tik aurrera Bilboko Museo Etnografikoan “*Mujer y Deporte*” argazki-esposaketan beste kontakto pare bat egin nuen. Argazki hoietan agertzen ziren andrak eta bertan egon zirenez ezagutzeko aukera guzti honek zabaldu zuen.
- Emakumeen artean, informatzaileen artean, ezagunak zituztenak lagunekin hitz egin zuten elkarrizketak egiteko, saskibaloian hain zuzen ere.
- Cesar Estornes jaunak, elarrizketatu eta gero gizon hau, nork *Club Deportivo Bilbaori* buruzko *blog* bat idazten duen mendizale eta esgriman aritutako batzuen harremanetan jarri.

2.6.4. Laugarren etapa: Elkarrizketak egiteko prozesua.

Elkarrizketak banaka egitea erabaki zen, intimidatze-gradua ahalik eta handienaizateko, elkarrizketatzaile-elkarrizketaturikoen arteko harremana estua lortzeko. Azken finean, emakumeek beraiek sentipenetaz hitz egingo zuten, beraiek bizitako esperientzietaz, beraiek praktikatutako kirolak eta jarduera fisikoak, beraien lorpeneei buruz.

Grabaturik izan ziren elkarrizketa guztiak bat ezik, *emak11k* erabaki bait zuen hitz egitea baina grabaziorik ez zuen nahi, bere desioa errespetatuz holan egin zen, eta berak emandako informazioa soilik egun bateko bion artean hitz egindakotik aterata dago (ez grabaziorik ez da transkripziorik zoritxarrez). Beste kasu batean, emak.3aren grabazioarekin soinu-arazoak sortuz gero hasierakoa baino ezin izan da gordeta izan, dena den nik hartutako noteei esker kirolari honek kontatutakoa ez da zeharo galdutzat.

Kirolari batzuk nahiago izan zuten ikertzailea beraien etxeetara joatea. *Club Deportivo Bilbao/Bilboko Club Deportivo*ko kafetegian, Getxoko Kultur Etxean gelatxo bat lortu pare bat aldiz, Bilboko *Instituto Central* zelakoan (non andra horrek lan egiten egon zen urteak), *San George ikastetxean* eta kafetegi batzuk izan dira gure topaketen lekukoak baita ere.

2.6.5. Bostgarren etapa: Transkripzioak eta datuen analisisa.

Hurrengo pausua idatzi eta gordetak zeuden transkripzioetatik informazioa ordenatzea zen. Sailkatu behar ziren Dimentsio/Zutabeen bidez, eta Dimentsio/Zutabe hauen barnean informazioa ondo kokatuta egon behar zen. Horretarako, kategoria desberdinak sortu genituen. Sailkapen honetarako Ikerketa Kualitatiboekin erabiltzen den programa bat aukeratu eta erabili zen, NVivo10. Elkarrizketen bidezko lortutako informazioa antolatzeko oso erabilgarria izanda.

Hasteko lau, 4, Dimentsio nagusi planteatu ziren eta hoiien barnean Kategoria batzuk. Zutabe eta azpizutabeekin programak gordetzen dizu informazio guztia dagozkien erreferentziarekin (kasu honetan emakumeen inzialekin) taldekatuz. Hasiera batean datuak sartzea denbora luze kostatzen da, geldotasun osoz egin behar delako, baina gero dena sailkatuta gelditzen denez ederto irakurri eta ulertu daiteke.

Lortutako datuei zentzua emateko, prozesu zehatz bat jarraitu behar da (Fernandez Nuñez, 2006) kodifikatze-tratamendu bat erabiliz (Patton, 1990; Ryan, Bernard, 2003). Kodifikazio honetan kategoria desberdinak daude, aukeratuak izan daitezkeela modu ezberdinetan (Rodriguez, Lorenzo, Herrera, 2005).

Denbora luze bat beharrezkoa izan zen emakume hauek elkarrizketatzeko. Baina erabili zen denbora honi esker informazio asko lortu zen baita ere. Guzti honek transkripzio mordo eta luzeak ekarri zituen. Ordu horiek hitz luzera handiko testu multzoa eman dute, Rubin eta Rubini (1995)

jarraituz elkarrizketa ordu bakoitza bihurtzen dela 10000 hitzetan gutxi gora behera, eta guztiak aztertuak izan behar dira.

2.7. Kodifikazioa eta kategorizazioa

2.7.1. Kodifikazioa.

Bildu, transkribatu eta ordenatu eta gero, informazioari zentzua eman behar zaio (Alvarez-Gayou, 2005). Horretarako, sailkapen maneigarri edo kode-sistema bat garatzeko, kodifikazio-sistema baten beharra dago (Patton, 2002). Kodifikazioak lan intelektuala eta mekanikoa eskatzen du, datuak kodifikatzeko, patroiak aurkitzeko, gaiak sailkatzeko eta kategoria-sistemak garatzeko.

Informatzaile bakoitzari kode hau jarri genion, gero emaitzen analisis bakoitzaren informazio aurkezteko, frankismo garaiko emakume kirolarien adinaren arabera 3 etapetan antolatzeko. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, informatzaile bakoitzari kode bat jarri genion, ondoren emaitzen analisis bakoitzaren informazio aurkezteko. Frankismo garaiko emakume kirolariak 3 arotan sailkatu genituen jaio ziren urteak kontuan izanda.

6. taula: *Emakumeak kodigo binarioan antolatuturik.*

1. aroa: 1940 baino lehenago jaiotakoak (emak.1-emak.11)

RBD	emak.1
MBDM	emak.2
BSJR	emak.3
IBA	emak.4
MLMJ	emak.5
ELB	emak.6
MBA	emak.7
MCSV	emak.8
MBOF	emak.9
MTGD	emak.10
CFG	emak.11

2. aroa: 1940-1950 (emak.12-emak.21)

BLV	emak.12
MCDLS	emak.13
RVA	emak.14
RMAV	emak.15
JMPG	emak.16
ACFA	emak.17
CYY	emak.18
EMC	emak.19
YNB	emak.20
MAPS	emak.21

3. aroa: 1950-1959 (emak.22-emak.30)

MEAU	emak.22
MJRO	emak.23
CBM	emak.24
MALG	emak.25
MMC	emak.26
REG	emak.27
BGG	emak.28
ICG	emak.29
BCR	emak.30

2.7.2. Kategorizazioa.

Kodifikazioa egin ostean, hurrengo urratsa informazioaren kategorizazioa egitea izan zen. Prozesu misto bat izan zen hori, ordurako eginak zeuden kategoria batzuk bagenituelako (RIHMUDk egindakoak). Kategoria horiek abiapuntutzat hartu genituen, baina beste zenbait kategoria berri ere sortu ziren.

Kategorizazioa egiteko orduan Nvivo programa oso lagungarria izan zen informatzaileek emandako datuak sailkatzeko.

2.7.2.1. Sistema Kategoriala.

Datuak antolatzeko kategoria sistema hau proposatu genuen:

7. taula: *Dimentsioak eta Kategoriak.*

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK
I. KULTURALA	<p>1. <u>Emakumearen hezkuntza baldintzatzaileak.</u> Egindako ikasketa motak eta mailak. Hezkuntza zentroak. <u>Lanbideak.</u> Gizarte Zerbitzua. Gurasoen ikasketak. Gurasoen lanbideak. Gurasoen kirol praktika.</p> <p>2. <u>Emakumeak praktikaturako kirolak.</u> Eragin ingelesa duten kirolak (golfa, tenisa, hockeya...). Klub pribatuek sustaturako kirol eskaintzak. Natur ekintzak (mendizaletasuna, eskia). Talde kirolak (saskibaloia, eskubaloia eta boleibola). Beranduago hedaturako praktikak (atletismoa eta txirrindularitza).</p> <p>3. <u>Kirolarien hastapenaren arrazoiak.</u> Kirol praktikan</p>

	<p>hasteko arrazoiak: medikuaren aginduz, entrenatzaile edo irakaslearen aholkua...</p> <p>4. <u>Kirola uztea</u>. Kirol praktika bertan behera uztearen arrazoiak: umeak izatea, lana lortzea...</p> <p>5. <u>Kirolera bueltatzea</u>. Gaur egun, informazioa eman diguten emakume batzuek jarduera fisikoa egiten jarraitzen dute; kasu batzuetan bere garaian egindakoari heldu diote berriz ere.</p>
II. SOZIALA	<p>6. <u>Agente sozializatzaileak</u>. Familia: aitaren eredia, amaren eredia eta beste zenbait eredu maskulino.</p> <p>7. <u>Kirol soziabilitatea</u>. Kirolarien arteko harremanak: lagunak, bikoteak...</p> <p>8. <u>Gorputz Hezkuntza eta kirol praktika eskoletan</u>. Gorputz Hezkuntzaren edukia. Kirol praktika ikastetxeetan, jokoak, dantzak eta beste kirol jarduerak, metodoa eta diziplina, ebaluazioa, irakasleriaren irudia.</p> <p>9. <u>Kirol praktika eskolatik kanpo</u>. (1)Irakaskuntza-instituzioen zeregina kirol hastapenean: eskolako kirol praktikaren eragina emakumeen kirol hastapenarengan. Kirol praktikaren agerpena Gizarte Zerbitzuan.</p> <p>(2)Kluba kirol praktikaren erdigune. Klub pribatuak (patinaje klubak, tenis klubak, igeriketa klubak, txangozaleen edo mendizaleen elkarteak, txirrindularitza klubak) eta elkarte publikoak (atletismo klubak).</p>

III. MORALA	<p>10. <u>Kontrol morala.</u> Eliza eta erlijio katolikoaren eragina.</p> <p>Beste zenbait eragile moralizatzaile: familia, publikoa...</p> <p>Emakumearen jarrera agente horien eraginaren aurrean.</p> <p>11. <u>Oztopoak.</u></p>
IV. ELIKADURA	<p>12. <u>Elikadura mota eta zainketa.</u> Elikadura ohiturak eta motak: osasuntsua eta naturala. Aholkularitza. Kirol praktikorako egokia den elikadura motaren gaineko ezagutza edo ezjakintasuna.</p> <p>13. <u>Dopina eta osasuna.</u> Dopinaren presentzia edota dopina ahalbidetzen duen substantziarik ez izatea.</p>
V. ESTETIKA	<p>14. <u>Baldintzapean estetikoak.</u> Emakume kirolariaren irudiaren balorazioa. Nola hautematen dituzten emakumezkoen estetikako eredu edo mota 'idealak'. Emakumezkoaren estereotipoak. Elkarrizketatutako emakumeen pentsamenduak eta jokabideak baldintzapean estetikoaren inguruan.</p> <p>15. <u>Janzkera mota: materiala, forma.</u> Janzkeraren erosotasuna/deserosotasuna. Janztea eta kirol praktika. Arroparen funtzionaltasuna/erosotasuna. Arroparen ehuna. Lotsa.</p>

2.7.2.2. *Kategorien deskribapena.*

Kategoria guztiak banan-banan azalduko ditut:

1. kategoria: hezkuntza baldintzapenak.

Emakume gehienek bigarren mailako ikasketak egin zituzten. Askok lanbide-heziketa (magisteritza, merkataritza, erizaintza...) egin zuten, eta horri esker ibilbide profesionala garatzeko aukera izan zuten. Era horretan, garai hartako erregimenak sustatutako emakumearen ideala (etxeoandrea eta emaztea) alde batera uzten joan ziren, batez ere hirietan bizi ziren emakume kirolariak.

2. kategoria: emakumeak praktikaturako kirolak.

Elkarrizketaturako emakumeek egindako kirol praktikak aldatzen joan ziren frankismoaren aroekin batera. Lehenengo momentuan nabarmena zen Ingalaterratik heldutako kirolen eragina. Informatzaileek golfa, tenisa eta hockeya praktikatzen zuten. Beste kasu batzuetan, zenbait kirol modan jarri ziren klub pribatuen eraginari esker, igeriketa, esaterako. Natur ekintzak XX. mendearen lehenengo hamarkadetatik zeuden, eta diktaduran jarraitu zuten mendiko klubei eta elkarteei esker (Euskal Herrian oso ugariak ziren). Garai horretako beste praktika batzuk bola-jokoa eta pilota ziren, baina ez zeuden instituzionalizaturik eta, batez ere, herrietan praktikatzen ziren, herrietako jaietan eta apustuak tarteko, hain zuzen ere. Frankismo garaian heldutako praktika berantiarrenak atletismoa eta txirrindularitza izan ziren, 50.eko hamarkadan zehazki. Bestalde, nahiz eta ikerketa honetan kirol honi buruzko informaziorik ez bildu, erraketistena izan zen garai horretan emakumeek egindako kirol praktika profesional bakarra.

3. kategoria: kirolarien hastapenaren arrazoiak.

Kategoria honetan, emakumeek kirol praktikak aukeratzean izandako arrazoiak bildu ditugu, eskolako testuingurua kontuan izan gabe (jadanik Dimentsio Kulturalaren barnean kokatuta dagoelako). Orokorrean, esan daiteke familiaz gain klubetako entrenatzaileak izan zirela kirola egitera gehien animatu zituztenak.

4.kategoria: kirola bertan behera uztearen arrazoiak.

Kirol praktika uztearen atzean bi arrazoi nagusi zeuden: seme-alabak izatea, eta lan ordainduak lortzea.

5. kategoria: kirolera bueltatzea.

Gaur egun informatzaileek egiten dituzten kirol praktikak zeintzuk diren. Kirola egiten jarraitzen ote duten, eta, horrela bada, zer kirol mota egiten duten jakitea.

6. kategoria: agente dinamizatzailerak.

Kontutan hartzen dira emakumea kirol munduan sartutako agente sozializatzailerak. Lehenengoz, familia orokorrean, eta figura maskulinoak (aita eta aitona) zehatzago. Amaren eragina anbiguoagoa da; batzuetan animatu egiten zituzten, baina beste batzuetan oztopoak jartzen zituzten. Emakume Sekzioa sozializatzailer inportantea izan zen emakumezkoen kirol praktikari dagokionez, batez ere 60ko hamarkadatik aurrera eta talde-kirolen esparruan.

7. kategoria: kirol soziabilitatea.

Kirola egitean, kirolariak gizarte harremanen sare bat eraikitzen zuen. Horrela, kirolarien bikote gehienak kirolariak ziren baita ere, eta lagun gehienak testuinguru horretan egiten ziren.

8. kategoria: Gorputz Hezkuntza eta kirol praktika eskoletan.

Garai hartako GH gimnasia analitikora, martxetara eta gimnastika-jokoetara mugatzen zen. Diziplinatuegitzat eta aspergarriztat jotzen zen. Soilik ikastetxe pribatu, institutu eta magisteritza eskola batzuek eskaintzen zituzten kirol jarduerak, bereziki gimnasia, saskibaloia eta boleibola. Neskek kirol gabezia hori jolas-orduan konpentsatzen zuten dantzen eta jolasen bidez. Normalean, klaseak jolastokian edota estalitako geletan izaten ziren; gimnasioetan ez. Materiala sinplea eta eskasa zen. Normalean, irakasleak ES-aren kideak ziren.

9. kategoria: kirol praktikak eskolatik kanpo.

(1) Hezkuntza erakundeen papera.

Ikastetxeetan izandako kirol praktikari esker, emakumeek zenbait kirol ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izan zuten. Hala ere, ikastetxeen eragina nahiko urria izan zen familia, klub eta entrenatzaileenarekin alderatuz gero. ES-aren kirol eskaintzaren eragina are gutxiagoa izan zen. Kasu batzuetan Gizarte Zerbitzuak kirol praktikaren bat zuen.

(2) Klub pribatuen papera.

Elkarrizketatutako emakumeen kirol praktikaren kasuan, klub pribatuen eragina handia izan zen. Tenisa, hockeya, igeriketa, mendi-ekintzak... klub horien bidez antolatzen ziren, baina klub horiek ez zeuden emakume guztien eskura. Geroago, publikoak (edo herrikoiagoak) sortu ziren, eta beste kirol batzuk zabaldu ziren, atletismoa, adibidez. Horrek atea ireki zien gizarte maila altukoak ez ziren emakumeei.

10. kategoria: kontrol morala.

Elizak emakumeen portaera moralarengan izandako eragina nabarmenagoa izan zen frankismoaren lehen partean. Emakume kirolarien kasuan ES-aren eta ikastetxe erlijiosoen arteko elkarlana garrantzitsua izan zen. Izan ere, irakasleriaren bitartez erregimenaren emetasun eredia hedatzen saiatu ziren GH eta kirola erabiliz. Hirietan, familia liberalagoetako zenbait emakumek aurre egin zioten eredu ideal horri. Horrela, bizimodu aktiboagoa eramaten eta erregimenaren idealarekin bat ez zetozen janzkerak eta portaerak hartu zituzten. Bizimodu femenino independente eta modernoagoa bilatzen zuten aitzindaritzat jo ditzakegu.

11. kategoria: oztupoak.

60.go hamarkadako emakume kirolariek ez dute onartzen elizak beren portaera moralarengan eragin handirik izan zuenik. Kontaketetan kontrol moralari buruz hitz egiten digute, batzuetan *mari-mutiltzat* hartzen zituztela gaineratuz. Hala ere, komentario horiek hunkitzen ez zituztela diote. Familia, senide eta kirol esparruaren laguntzari esker presio horri aurre egiteko gai ziren. Komentario horiek ugariagoak ziren oso “femeninotzat” jotzen ez ziren kirolen kasuan (halterofilia edo atletismoa), baina ez ziren tradizio aristokratikoa zuten kirolean ematen, hockeyan, adibidez. Kirol praktikaren abantailek presio hori jasotzera animatzen zituzten. Kirolari esker mutilen lagun minak egiteko aukera zuten, hots, normalean barrandatuta zeuden gauzak egiteko aukera zuten. Kirolari batzuek lotsa sentitzen zuten kirol jantziekin publikoaren aurrean agertzean. Izan ere, normalean jendea ez zegoen ohituta emakumeak hain arropa gutxirekin ikustera. Hala ere, orokorrean emakume kirolariek ikusleen begirunea sumatzen zuten, eta pentsatzen dute gaur egun garai hartan baino adierazpen matxista gehiago daudela.

12. kategoria: elikadura

Emakumeen elikadura-ohiturak. Jaten zutena osasuntsua zela pentsatzen ote zuten jakingo dugu. Kirol praktikarako elikadura berezirik ote zuten, eta, horrela izanez gero, noren aholkuak jarraitzen zituzten ezagutuko dugu.

13. kategoria: dopina eta osasuna

Adierazle honek ez du elkarrizketatutakoen interes handirik piztu. Kirol munduan bizitakotik urrun ikusten dute.

14. kategoria: baldintzapean estetikoak.

Emakume kirolariaren irudiaren balorazioa. Nola hautematen dituzten emakumezkoen estetikako eredu edo mota 'idealak'. Emakumezkoaren estereotipoak. Elkarrizketatutako emakumeen pentsamenduak eta jokabideak baldintzapean estetikoaren inguruan.

15. kategoria: janzkera eta kirol praktika

Elkarrizketatutako emakumeek kirola egiteko erabilitako elementu zehatzak eta kirol janzkera (arropa, zapatak...). Kirol arroparen eta arropa mota hori egiteko erabilitako ehunen erosotasun eta deserosotasunaren balorazioa. Momentuko moralak eragindako lotsaren eta janzkera egokiaren eskakizunak.

2.8. Egiaztasuna eta baliotasuna

Jasotako informazioa modu ezberdinetan triangelatu da. Alde batetik, material ezberdina bildu eta kontrastatu da: emakumeen ahotsak, argazkiak eta dokumentazio bibliografikoa. Bestalde, garai bereko emakumeek emandako informazioa kontrastatu da.

3.Ikerketaren emaitzak eta emaitzen analisia

Atal honetan jaso dugun informazio guztia analisatzen dugun, bai emakumeek elkarrizketen bidez emandakoa, eta bai dokumentazioen analisietatik ateratakoa. Katetoria sistema eskemari jarraituko diogu emaitzak aurkezteko.

3.1. KULTURA DIMENTSIOA

Lehenengo dimentsio honen barruan hamabi katetoria analisatuko ditugu: emakumeen ikasketak, emakumeen hezkuntza, Gizarte Zerbitzua, gurasoen ikasketa, gurasoen lanak; gurasoen kirol praktika, kirol praktikren arduradunak, kirolarien hastapena, kirola aukeratzeko arrazoiak, kirolarien amaiera, kirolaren jarraipen gaur egun, eta praktikaturako kirolak.

3.1.1. Elkarrizketaturiko emakumeen ikasketak.

XX. mendearen hasieran emakumeentzako oinarrizko ikasketak aparte aukera gutxi zuten ikasten jarraitzeko. Guztien artean batzuk baino ez zuten jarraitu ikasten. Salbuespenak zeuden, eta batez ere, gurasoek ikasketak bazituzten edo klase-altuko pertsonak baziren, orduan laguntza gehiago zuten ikasten jarraitzeko. Aztertutako etapeetan emakumeek gero eta gehiago ikasketak egiten joan ziren. Hurrengo taulan andren ikasketei buruzko informazio osoaren laburpena agertzen da. Ikus ditzakegu emakume guztiek egindako ikasketak.

Badago kasu berezi bat, andra bat guztiz interesatua zegoela bere ikasketekin jarraitzeko baina hori ez zen “neskeentzako egokia”. 1. etapako informatzailea zen. 40. hamarkadaren bukaeran eta 50. ren hasierako urteetan gertatu zen hau. “Sí, mi madre era profesora de piano, eso sí me dejaban pero no me gustaba. Yo quería ir a Madrid, quería estudiar. Quería estudiar matemáticas física o químicas pero no me dejaron”. (emak.2)

Aldaketak baietz somatzen direla etapa historikoen arabera. Hau hobeto ulertzeko hurrengo taula honetan aurrekoan ateratako guztiaren laburpena dago.

8. taula: *Informatzaileen ikasketen laburpena.*

ETAPA	IKASKETAK
1940 baino lehen	<ul style="list-style-type: none">– Ezer ez (1)– Oinarrizkoak (2)– Batxilergoa (2)– Musika (1)– Enpresa-administrazioa (1)– Gorputz Hezkuntza (3)
1941-1949 jaioa	<ul style="list-style-type: none">– Oinarrizkoak (5)– Arte eta dekorazioa (1)– Batxilergoa (2)– Erizaintza (1)– Unibertsitatea 1 (Magisteritza)
1950-1959 jaioa	<ul style="list-style-type: none">– Batxilergoa (3)– Lanbide Heziketa (Klinika-laguntzailea, Zuzendaritza-idazkaria)– Merkataritza-eskola– Unibertsitatea (4) (Historia eta Geografia, INEF, Magisteritza, Medikuntza)

Norberak (2015)

Arreta jarri behar dugu aurreko taulan agertzen diren emaitzetan, ikasketeei dagokie kasu honetan eta hoiengatik hona hemen ateratako informazioa:

- Azken etapa ailegatu arte emakumerik ez zeuden lanbide heziketa munduan, ikerketa honetan batek klinika-laguntzailea izateko prestakuntza egin zuen eta beste batek zuzendaritza-idazkaria izateko, baina ezin ahaztu 3.etapakokideak direla biak.
- Batxilergoa egitera 2, 2 eta 3 emakume ailegatu ziren (etapen arabera). Adi egonez gero kopurua nahiko antzekoa da hiru uneetan nahiz eta 3. etapan andra bat gehiago egon.
- Enpresa-administrazioarako emakume bakarrak, 1, ikasi zuen. Bere etxeko ikasketa-giroa nahiko altua zen, kontutan hartu aita sendagilea eta ama erizaina zirela. Informatzaile honek ez zuen ziurtatu non ikasi zuen, ea unibertsitatean edota ikastetxe berezi batean.
- Erizaintza ikasi zuenak Gurutze Gorrian egin zuen, horrek esan nahi du unibertsitariora ez zela izan.
- Gorputz Hezkuntzarekin erlazionaturik egin zituzten ikasketak guztira 4 izan dira. Hoiien artean, lehenengo eta hirugarren etapako andrak soilik sartuta daude: 3 eta 1. 3 horiek Emakume Sekzikoak antolatutako ikastaro sinpleetatik egiten hasi ziren El Pardon ematen zireneraino ailegatu. 4. horrek Madrilgo INEFen ikasi zuen. 1ek ES-koek antolatutako ikastaroak egiten hasi zen, beranduago Magisteritza eta INEF baita ere ikasi zuen, pixkanaka lortuz.
- Lehenengo etapan dago baita ere ezer ez ikasi zuenak, 1, bere gurasoak baserritarrak zirenak, baina eskolatik baietz pasatu ze.
- Merkataritza-eskolan ikasi arren ez zen honetara dedikatu hau, ikasi zuenak.
- Musika, bibolina-irakasle bat dugu talde honen barruan.
- Oinarrizko ikasketak, (gaur egungo Lehenengo Hezkuntza kontsideratu daitekena) 3. etapako inor ez da agertzen. Datu hau aipagarria da, emandako aldaketeetan nabaria bait da. Behintzat elkarrizketaturiko emakumeen artean guztiak ikasketa maila horretatik gora egin bait zituzten. 2 eta 5 emakume dira, 1. eta 2. Etapakoak.

- Unibertsitatera Magisteritzan diplomatuta bat dago bitarteko etapan, baina gehiengoa, 4, 1950-1959 tartean jaiotakoen artean dago: Medikuntza, Historia eta Geografia, Magisteritza eta Madrilgo INEF izan ziren beraien aukerak.
- Argi ikusten da taulan PREU (Unibertsitate Aurreko Ikasturtea) edota Unibertsitatera joan zirenak 1951-1959ko tartean jaiotak dira gehiengoan (4).

Hiru kaso berezi ezin alde batera jarri, aipatu beharra dago. Elkarrizketaturiko bi emakumek aipamen berezia merezi dute (hau da, 1940. urtea baino lehenago jaiotak). Kasualitatez Eskuz zuten El Pardo, La Almudena zentroan ikasi zuten, hoietariko batek Plastikarekin erlazionaturik ikastaroa egin zuten baina bere lan-bizitza nagusiki GH eta kirol munduan garatu da, Bilboko Udalarako kirol-arduradun bezala jubilatuta arte. Bigarrenak hortik jauzi egin zuten eta Magisteritza, INEF titululak lortuz urteak joan ahala. Hirukote honek bere garapen profesionala bide horretatik jarraitu zuten, MTMGD, emak.10 eta emak.16 dira andra horiek hain zuzen ere.

Hauetaz aparte badaude beste batzuen lanbidea kirola eta jarduera fisikoarekin guztiz erlazionaturik dagoena nahiz eta beraien formakuntzak loturik ez izan GH-rekin.

3.1.2. Emakumeen hezkuntza zentroak.

Kategoria honetan oinarrizko ikasketak, Batxilergo arte egiteko non ikasi zuten, zein zentro motak ziren aztertuko ditugu. Alde batetik, non ikasi zuten emakumeak eta, beste aldetik, ea ikastetxe hauek publikoak (estatukoak edo udal-eskolakoak) ala pribatuak ziren. Ea zein motatako zentroak ziren. Zoritoxarrez, erantzun batzuetan ez dago zehaztapenik zein zentro-mota zen ezta elkarrizketagileak zehaztapen hori ez zitzaizela eskatu esan beharra dago ere. Jakin badakigu nola urte hoietan ez zegoela apenas ez jarduera fisikorik ezta kirol eskola publikoetan eta pribatu batzuetan soilik. Dena den, apur bat gehiago garatzen zela kirola, GH eta jarduera fisikoa zentru pribatuetan (Garai, 2005). Eta elkarrizketaturikoen artean ikastetxe pribatuak dira gehiengoa,

Ikastetxeen zerrenda hona hemen antolatuta gelditzen dira:

9. taula: Informatzaileen ikastetxeak

	Pribatuak	Publikoak
1. etapa	5	1
2. etapa	9	1
3. etapa	8	1

Aurreko taulan ikusten da errez ikastetxe pribatuak gehiengoak zirela informatzaileen artean. Bizkaian ikastetxe asko egon ziren urte hoietan zehar. Bi motako ziren: mojenak (pribatuak), eta estatukoak edo udalekoak. Berba egin da 30 pertsona desberdinekin, beraien artean bikote batek hemendik kanpo ikasi zuen, hoietariko bi Bizkaiara etorri eta beraien kirol bititza bertan pasatu dira. Beste pare bat gaur egun bizi den tokian gelditu zen, Mexikon emak.4. emak.1ren kasua pixka bat ezberdina da bera ez zelako Bizkaian bizi ez da herrialde honetan bere kirol-bizitzarik garatu, Cadizen jaio eta gaur egun Madrilen bizi da.

Emakume bi ez ziren Bizkaian jaio baina hemen ikasi zuten, bata eskolan eta besteak institutuan. Hemen garatu zuten beraien kirol-bizitza. Hemendik aurrera aipatzen diren datuak elkarrizketen bidez lortutakoak izan dira, andra hauek emandakoak. Ikastetxe gehienak pribatuak ziren, bazituzten kirol-taldeak, instalazioak (gehiegi ez izan arren), eta arduradunak (irakasleak, entrenatzaileak). Publikoetan, bestela, ez zen ezer egon, nahiz eta garapena gertatu zela urte hoietan zehar.

(...) lo que ahora son extraescolares en aquella época formó un equipo que se llamó el club Escolar de Bilbao, el cual todos sus monitores estaban en los colegios públicos en los extraescolares haciendo pues educación física, haciendo balonmano, voleibol, toda la parte

deportiva (...), porque los colegios públicos tenían pocas instalaciones” (emak.16 60. hamarkadaren bukaeran 70. hamarkadaren hasierari buruzko azalpenak ematen)

Bilboko ikastetxe pribatu horien artean batzuk askotan agertzen dira txapelketetan: Vera Cruz, Esclavas eta La Pureza adibidez. Talde hauek oso garrantzitsuak izan ziren saskibaloia eta eskubaloia munduan 60. hamarkadatik aurrera (Bacigalupe ,1986).

3.1.3.Gurasoen Ikasketak.

Gurasoen prestakuntza maila izan daiteke aspektu bat kontutan hartzekoa kirol-praktika bultzadan. Eta zein puntutaraino emakume hauen gurasoen prestakuntza akademikoa eragina zuen edo ez. Dena den, kategoria honetan oso adierazgarria da generoen ikuspuntutik, aita eta amen arteko ezberdintasunak daudelako, ikasketeei buruz zeharo aldeak daude. Ondorengo taulan ikusten da aitek amek baino ikasketa-prestakuntza altuago zutela.

10. taula: Gurasoen ikasketak

Aitak ikasketekin	Amak ikasketekin
Oinarrizkoak (7)	Oinarrizkoak edo ezer ez (15)
Besteak (12)	Besteak (4)

Taulan, “besteak” aipatzerakoan aukera zabala dago: Formakuntza Unibertsitarioa, Lanbide Formakuntza, Batxilergoa, Musika/Pianoa jotzea... Taula honetan argi ikusi daiteke nola emakume hauentzat ikasteko aukerarik ez zela izaten arrunta (denborarekin hau aldatzen joan zen). Hemen desberdintasun itzela daude gizon eta emakumeen artean. Gizonak ikasketak “inportanteago”, zabalagoak zituzten: ekonomia, administratzailea, zerbaiten espezialista (adibidez ebanista), medikuntza, zuzenbidea, batxilergoa., “(...) mi padre Dr. Oculista especialista en cáncer”. (emak.4)

Zoritzarrez familia batzuetan argi eta garbi gelditzen zen emakumearen eskubideak ez zirela berdinak, nahiz eta kultur handiko jendea izan. Beste adibide honetan ideia bera ikusi daiteke. “Pues no tendrían ni estudios, supongo, mi madre era una persona muy inteligente que dice que como en aquellos tiempos solo estudiaban los hombres eran tres hermanos dos chicas y un chico y entonces solamente el chico tenía carrera, y siempre le quedaba aquella cosa”. (emak.24).

Era berean emakume batzuen ama batzuk aukera izan zuten ikasteko. Ikasketa-maila horiek desberdinak zirela ikusi daiteke. “(...) mi madre era profesora de piano...economista (aita)...”. (emak.2), “mi madre estudió, bueno no sé si sería bachiller en aquel momentu...tenía una cultura para su época, su padre fue económico”. (emak.15). Baina gehienentzako ikasketa gutxi egiteko aukera baino ez zegoen. “Mi padre ingeniería industrial y mi ama lo básico”. (emak.29)

Orokorrean oinarrizko ikasketak baino ez zituzten eta batzuk ikasketarik ez izan edo oso oinarrizkoak: “Pues los básicos de aquella época”. (emak.10). Eta oinarrizkoekin asko konformatu behar ziren urte hoietan. Hona hemen adibide batzuk.

“Mi padre...con un poco de cultura”. (emak.3). “Yo creo que una cultura general de su época y nada más”. (emak.18). “Mi padre los elementales”. (emak.25). “(...) “Mi ama era ama de casa”. (emak.6).

Bazegoen ere jende askok ikasteko aukerarik izan ez zuena. “Básicos, menos que básicos”. (emak.30). “Yo creo que harían solamente lo que es la escuela básica, no tenían estudios ninguno de los dos”. (emak.19)

Goi-mailako formakuntzadunak badaude baita ere, egia esanda. “Médico...Sí, mi madre hizo algo deeeeeee que se hacía antes como comercio le llamaban...”. (emak.27), “Medicina y enfermería”. (emak.4)

Jakina, aita eta ama batzuen ikasketak eta lanak kasu gehienetan guztiz erlazonaturik zeuden beraien lanarekin, eta ama batzuk nahiz eta karrera bat edo zerbait ikasita izan, gero praktika

horretan ez zuten lanik egiten etxetik kanpe etxeakoandrearenarekin nahiko zen eta. “Mi padre era ingeniero y mi madre era ATS”. (emak.18)

Momentu larriak zirenez jendeak ahal zuen guztia egiten zuen beraien familen egoerak hobetzeko. Eta formakuntza gehiago, nagusiak jadanik izanda, hainbat kasuetan baita ere egon omen zen. “Mi aita...iba de mecánico y tenía que hacer para poder ir un poco más así, hizo mecánico mayor...” (emak.13). “Bueno, mi madre estudios, no había aprendido más que a leer y escribir, le gustaba mucho leer y aprendió a coser...y mi padre...era marino, capitán de barco, capitán de la marina mercante...”. (emak.7)

Denbora oso ezberdinak ziren gaurkoekin konparatuz eta jende askok ez zuen ez da oinarrizko ikasketarik izaten. Genero ikuspuntu kontutan harturik beste ezaugarri batekin topo egin da, lehen aipatu den legez emakume eta gizonen arteko desberdintasuna izugarria da, aurreko taulan ikusi daiteke oso era errez batean zegoen.

3.1.4.Gurasoen lanak.

Gurasoen lanak beraien ikasketekin zuzen erlazionaturik daude, orokorrean esanda. Generoa kontutan harturik talde desberdinetan bananduko dira:

*Gizonak, aitak: ekonomistak, abokatua, medikua, itxasgizona. Beste aldetik, nahiz eta batzuk ikasketa handirik ez izan empresa txikitxu batzuekin oso ondo atera ziren, alabaina beste batzuk ezin ahaztu aipatzen: kamioilaria, elektrizista, dendariak, udaleko langilea eta baserritarra.

*Emakumeak, amak: etxeakoandreak gehienak ziren, udaleko langilea eta baserritarra (kasu bakarra dago), dendariak. Honez gain jostun pare bat, erizain bat eta piano irakasle bat ere bai.

Beraz, aitak etxetik kanpo lan egiten zuten eta lan mota asko ziren. Emakumeen artean etxeakoandrearena zabalena, hedatuena zen. Laburbilduz, familiaren goiko puntan, piramidearen tontorrean gizona eta bere lana etxetik kanpo. Beheko lekuan emakumea “soldaduaren apoioa” beti izateko prest. “Mamá era ama de casa y mi padre tenía un puesto directivo en EARLE, creo que era

facultativo de minas, pero no sé”. (emak.21). “(...) mi madre...nos hacía una ropa...mi padre era marino”.(emak.7).“Mi padre administrativo y mi madre pues ama de casa...”. (emak.28)

Andrak seme-alabak izaterakoan etxean egon behar ziren hauek zaintzen. Horregatik, emakume asko etxeoandreak ziren eta ez zuten etxetik kanpo lan egiten. Beraien lekuak etxe barnean bait zeuden, umeekin. “Mi aita era, como se dice, empresario, se dedicaba a la construcción, bueno él tenía unas canteras en Berango...constructor...industrial...ama...en casa” (emak.8).

Familia izateak emakumeak markatzen zituen, nahiz eta formakuntza izan. “ padre era director de la agencia número tres en Gregorio Balparda...Mi madre ama de casa, seis hijos...fue enfermera en la guerra” (emak.23). “Mi padre era, trabajaba en una oficina, tenía la carrera de magisterio también y mamá tenía estudios primarios y bastante tenía con atendernos a siete hermanos que éramos.. “ (emak.20)

Aiten betebeharrak guztiz desberdinak ziren. Hemen ere emakumeak etxeoandreak. “Mi madre era ama de casa y mi padre electricista”. (emak.18)

Nahiz eta aitaren lana berezia izan, beraien andrak etxeoandrarena izaten zen. “Mi padre era de derecho y mi madre ama de casa y luego mi padre también luego fue militar carrera militar” (emak.17). “Mi padre era ingeniero en La Naval de Sestao y mi ama en realidad nada, se dedicaba a sus labores” (emak.29)

Familia hauetan aitak etxera diruan eraman eta amak etxeko ardura hartu egiten zuten. “Nooooo, trabajaba en negocios por Bilbao, mi abuelo tenía un negocio y empezó a trabajar en ello. Pero mi madre como era hija única mi padre se quedó el negocio del abuelo” (emak.2). “Mi madre ama de casa y mi padre tenía un taller de bicicletas, en la cual yo le ayudaba y era el chico de mi padre” (emak.12).

Hainbat kasuetan guraso biak etxetik kanpo lan egiten zuten, behintzat beraien bizitzen denboraldi batean. “Mi padre era ingeniero industrial, mi madre era ATS” (emak.18). “Tenían negocio, bueno una tienda y en un trabajo encargado de una empresa o algo, bueno en lo que había, mi madre en la tienda” (emak.10). “De mi padre Dr. Oculista especialista en cáncer y mi madre enfermera. (emak.4). Bueno, tenían una tienda de muebles y los dos trabajaban” (emak.24). “(...) mi padre era comerciante, mis abuelos eran comerciantes” (emak.19)

Oso bereizturik zeudela lanak generoak kontutan hartu argi ikusten da.


3.1.5.Gizarte Zerbitzua.

Servicio Social, Gizarte Zerbitzua (GZ) ESren tresna oso garrantzitsu bat izan zen. Hau zela medio eta Espainiako estatuko emakume guztiak kontrolatzeko aukera ederra izan zen. Honen oinarri nagusiak Alemania nazin daude, non Reichbraüteschule (Reichen, inperioaren neska-lagunentzako eskola) eta BDM (Bund Deutscher Mädels, neskeentzako Hitleriar-gazteria) zeuden (Jewish Virtual Library, 2015) beraien helburu nagusiak emakumeak “egokiak” izatea zen. Momentu horretan, ESak Espainiako estatuko emakumeekin helburu oso antzekoa lortu nahi zituen (arrazia aurrera ateratzea, etxekoandre finoak beste hainbeste). Gizarte Zerbitzuaren betebeharrak gizonentzako zerbitzu militarrenarekin konparatu zitekeen. Guzti hau Emakume Sezkiko burukideak ekarri zuten Alemaniatik. Are gehiago, Gizarte Zerbitzuaren garrantzia ulertzeko adibide bat: nola Espainiako estatuko emakumeentzat pasaporte lortzeko ezinezkoa zen GZ egin barik.

Egin behar zen “aberriaren” aldeko zertxobait, hori GZ bera zen. Denboraldi eta bete behar minimo batzuk jarritak bazeuden. Egia da, ESrentzako gero eta zaila, ahulago izan zen guzti hau kontrolatzea. Hurrengo Bilboko egunkarian GZren derrigortasunaren berria irakurri daiteke.

35. irudia: Bizkaian GZren derrigortasunaren berria.


Hierro egunkaria 1938



Ofizialki, ondo definiturik zegoen jende guztiarentzat zeintzuk ziren betebeharrak hurrengo irudian ikusten den bezala baina errealitatean emakumeak elkarriketatu eta gero informazio hau argi agertzen da desberdintasun handiak egon ziren GZaren eskakizunak eta errealitatean egiten zirenak. GZak bazeukan funtzio nagusi bat: estatu osoko emakumeak kontrolatzea, denak berdinak izatea. GZak erregimen frankistaren ideologiari laguntzeko eta indartzeko zen.

36. irudia: Gizarte Zerbitzuaren liburua.

AGA C58 G2 N°19



ESak argitaratu arren zerrenda eta liburu bat GZ-ko ikastaroetan ikasi behar ziren gaiak, gero errealitatea pixka bat desberdina zen. Jakina minimo horiek errespetatuz. Taula honetan agertzen diren lan-esperientziak emakume informatzaileei esker lortu dira. Ez doa matematikoki emakume informatzaileen esperientzia desberdinak izan bait zituzten.

11. taula: *Informatzaileek ikasitakoa GZan.*

BETEBEHARRAK, ZEREGINAK. (Elkarrizketaturiko emakumeak kontatutakoa)
Bulego-lanak
Elektrizitate oinarriak
Esku-lanak
Lisatu, sukaldatu, josten (etxeko lanak)
Musika eta abestiak
Osasunarekin erlazionaturik
Politika
Puerikultura

Puerikulturarako zuzendutak ziren ekintzak gehien errepikatzen diren andren esperientzietan dira, emakumezko egokiena zen betebeharra gazteei irakatsi behar. GZ-k diskurtso politiko eta etxeko lanak ondo egitea irakastea garrantzitsuenentzat jotzen zuen.

GZan bete beharreko denbora errealitatean, informatzaileen esperientzietan oinarrituz, hilabete batzuk eta urte bat eta piku artean iraupen aldakorra zen, nahiz eta ESak (1963) idatzita zuen “periodo de cumplimentación” delako hori “Este periodo es de seis meses” (AGA C58 G2 N19) gero errealitatean Bizkaiko emakume hauen esperientziak kontutan harturik gutiz aldakorra da.

Laburbilduz, GZ honek argi eta garbi azaltzen digu nolako emakumeak espero zituzten ES-tik. SF de la FET y de las JONS (1965) argituratako liburuan ondo ikusten da zein izan behar zen emakumearen papera:

12. taula: *ESko liburuaren arabera nola izan behar ziren emakumearen ezaugarriak.*

AGA C58 G2 N°19

Hasiera batean, esan den bezala, tresna hauen bidez erregimenak emakumeentzako zituen helburuak betetzeko erabili ziren.

Elkarrizketaturiko emakume guztien adina kontutan hartuz GZ egiterakoan batz bestekoa 18 urte pasata da. Informazio honetatik beste datu edota emaitza batzuk atera ditzakegu. Hurrengo taulan ikusi daitezke zein zereginak zituzten andra hauek GZ-a betetzerakoan.

13. taula: *GZan betebeharrak.*

ZER EGIN BEHAR	ZENBAT ANDREAK
Umeekin	%26
GH, Kirola	%10
Politika	%20
Jostea	%16

Panpinatxoak	%6
Elektrizitatea	%10
Musika	%6
Esku-lanak	%10
Lisatu	%3
Sukaldea	%13
Erljioa	%3
Bulego-lanak	%6
Puerikultura	%3

Kuriositate bat aipatuz, elektrizitatea hiru kasuetan agertzen da eta hiru emakume horiek Barakaldon GZa egin zuten. Kasualitate bat da Ibaizabalen ezker aldean zeukan ES-ak soilik zentroan elektrizitatea egotea?. Edota erlazio zuzena dago, hain zuzen ere, langile-aldea egotearekin?. Ziuraski erlazionatuta daude ideia hauek beraien artean.

14. taula: *NON egin zuten GZa emakumeak.*


NON egin	Areeta	Barakaldo	Bermeo	Bilbo
ZENBAT andre	2	3	1	11
NON egin	Bilbo + Areeta	Cañamero	La Almudena	Urduña
ZENBAT andre	1	1	3	1

ESan zeuden emakumeak GZ baita ere bete behar zuten, emakume guztiek bete behar zuten. Bukaeran, ziurtagiri bat ematen ei zieten. "Yo estuve como un año y luego había que hacer para coger el título de servicio social, pero te lo daban, para sacar el pasaporte tenías que tener el servicio social hecho...". (emak.16)

Argi dago, aldakorrak izaten ziren GZko iraupenak eta edukiak nahiz eta ESk jadanik idatzita izan.

37. irudia: Nola eta zer egin behar Gizarte Zerbitzuan I

AGA C58 G2 N19



Herrialdeen arabera, hirien arabera, herrien arabera aldaketak zeuden eta, interes desberdinak bait zituzten zonaldeka.


En estos centros culturales de la Sección Femenina, se benefician del Servicio Social y de la Educación Sanitaria que en él se efectúa, un total de 70.000 mujeres al año como término medio.

Durante este periodo las alumnas que lo realizan reciben las siguientes enseñanzas:

- Economía Doméstica,
- Educación Nutricional,
- Educación Sanitaria,
- Puericultura Posnatal,
- Socorros de Urgencia y Salvamento Náutico y de Montaña,
- Educación Física,
- Formación Familiar y Social,
- Religión,
- Historia,
- Trabajos Manuales,
- Corte y Confección,
- Lavado y Plancha,
- Cocina,
- Labores,
- Cultura General.

2.º Periodo de PRESTACION, que consiste en el desempeño de TRABAJOS o FUNCIONES DE INTERES PARA LA COMUNIDAD, de tipo práctico, realizándose en instituciones y establecimientos con carácter de asistencia social, bien sean estatales, paraestatales o privadas.

Entre estas instituciones figuran:



Prestación en una guardería infantil

Andren azalpenetan irakurri daiteke “klase” horiek pixka bat aspergarriak zirela. Madrilen egin zutenek azalpen gehiago ez zituzten ematen baina antza denez nahiko gustora egon zirela. Beharrezkoa zelako egin zuten guztiek bat ezik, honen arrazoia sinplea izan zen, bestela berak gustokoena zuena ezin izango zuen egin.

Lo hice porque quise, en contra de la voluntad de mi padre y mi madre porque había el ambiente, porque yo tenía ilusión con la bicicleta, entonces pues era importante para poder pasar la frontera, si que había posibilidad de andar en bicicleta y yo tenía ilusiones, no me lo prohibieron pero no les gustaba tanto, pero quise hacer el servicio social. (emak.12)

3.1.6. Gurasoen kirol praktika.

Gurasoen artean aukera desberdinak zeuden kirol praktikari dagokiona, baina bereziki ezberdintasun horiek ama eta aiten artean ikusten dira. Hori dela eta, datuak elkartu dira amak edota aitak izanda.

15. taula: *Gurasoen kirol praktika*

AMAK	AITAK
BAI hockeya, tenisa, zaldiketa, igeriketa (guztira 4-5 andra)	BAI boloak, golfa, tenisa, futbola, pala, pelota, palanka-jaurtiketa, txirindula
EZ Beste guztiak	EZ oso gutxi (4-5 gizon)

Ama gehienak apenas jarduera fisikoa egiten zuten egia esanda, noizean behin batzuk mendira joan edo dantzatu. Baina emakume gehienak ez zuten hau jarduera fisikotzat hartzen, horregatik askotan erantzuten dute “ez zutela kirolarik egiten”: “Mi ama no hizo ningún deporte mas que cuando nosotros eramos pequeños subía con nosot) subía siempre andando a Artxanda, con los hijos más pequeños le gustaba mucho andar pero no practicó nunca ningún deporte”. (emak.19), “Mi ama no, mi ama no, no, iba con ella le encantaba el ballet y todo eso y que yo hiciera pero nada más.”. (emak.29)

Salbuespenak badaude, egia da, tenisa eta hockeya kasu zehatz bietan zaldiketa eta igeriketa beste batean. Aldi berean, aurreko jarduera fisikoak praktikatzen zutenek klub pribatukide familiak dira. “Sí, mi madre llegó a jugar al hockey también, regateaba muchísimo, hacía atletismo” (emak.18). “Y(...) a ama le gustaba mucho andar a caballo... y nadaba” (emak.4)

Oso gustokoa izan arren kirola, ez ziren jarduten, praktikatzaileak ez ziren izaten. “Mi madre era muy forofa de todos los deportes, buaaaaaaaaaaaaaaaa del Athletiiiiiiiccc, pero ella no no hacía deporte pero le gustaba mucho”. (emak.27)

Eta horen artean andra asko ez ziren ezertan ibiltzen zoritxarrez, jadanik aipatu dudán lez. “A mi ama no le iba nada de eso”. (emak.29), “(...) no, ninguna”. (emak.13)

Aitak, bestalde, askoz praktika gehiagotan parte hartzen zuten. Gainera, hoién artean bazeuden “profesional” batzuk edota goi-mailako kirolariak barne ere. “Mi padre fue campeón de España de bolos”. (emak.23). “Mi padre pues sí, jugaba al golf, al tenis un poco, de esos deportes hacía así en plan serio” (emak.17). “Mi padre sí, era deportista, jugaba la fútbol, ha jugado a pelota...Bizkaia quedaba campeón de pala” (emak.26).

Elkarrizketak egin eta gero ikusi daiteke momentu horretako nahiko gizon aktiboak zirela andren familien artean. “(...) aita fue deportista...en el Athletic de Bilbao...cuando estaba allí, París, jugó en el...” (emak.4). “(...) mi aita sí jugaba a pelota. (...) el fútbol... a la pelota sí que había jugado. (emak.7). (...) mi padre ha sido campeón de Bizkaia de pelota” (emak.2), “(...) mi padre fue campeón de Bizkaia de barra baska” (emak.8).

Kasu batzutan nahiz eta gurasoak kirolariak ez izan sostengu osoa baietz ematen zieten alaba hauei, andra hauei.

Aurreko informazioari esker argi ikusi dezakegu emakumeen amen kirol-praktika aitenekin konparatuz askoz txikiagoa, eskasagoa zela. Ama kirol-praktikarik ez zuten egin, 24 ziren, eta aita ez kirolariak 4.

3.1.7. Kirol praktika: Antolatzaileak.

Kirol-antolakuntzarako klubak ezinbestekoa izan ziren frankismoan zehar. Bereziki hasiera batean, ESak paper hau hartu arte.

39. irudia: Ikerketan agertzen diren klubuen zerrenda eta kokapena.

Norberak (2015)



Informatzaileak, orokorrean, nahiko informaturik zeuden nortzuk antolatzen zituzten praktika hauen txapelketak eta kirol-frogak. Urteak aurrera joandak aldaketa nabariak izan ziren. Beraiei egindako elkarrizketetatik honen inguruan informazio oso argia lort da. Baina federazioa aipatzen duten kasu askotan ez zekitelako oso ondo nortzuk ziren antolatzaileak, ez zeuden ziur. Kontutan hartu behar dugu nola gaur egun den-dena federazioen eskuetan dagoela kirol-kontrola eta beraiek dakitenez horregatik erantzun hori emango zutelakoan. Orduan, guzti hau kontutan harturik antolakuntza aldetik emakumezkoen jardura fisikoa eta kirolaren eboluzio bat egon zen.

Hasiera batean, klubuen eskuetan kirol-antolakuntza zegoen eta horri esker informatzaile batzuk parte hartzeko ekintza desberdinetan aukera izan zuten “(...) era que los socios hacíamos

tenis, y había campeonatos interclubes, y vasconavarros...los clubes organizabana nivel social...” (emak.2).

Emakume Sekzioak emakumeen kirola kontrola lortu zuenetik Medina taldeak sortzeari ekin zion ahal zen leku guztietan, eta jakina Bilbon baita ere gure emakume batzuk esan zuten bezala “(...) con el Medina vuelta a la Sección Femenina... “(emak.27). Ikastetxeen presentzia indartzen hasi zenean beraien artean txapelketaxoak eta prestatzen ziren “(...) en la época del colegio eran las copeticiones escolares... (emak.20).

Azkenean federazioak sortu ziren eta kontrol guztia beraien kargura pasatu zen “(...) A nivel federativo “ (emak.26). Dena den, momentu batzutan informatzaileak ez daude guztiz ziur nola zen antolakuntza.

Kasu berezi bat ezin ahaztu, tenisarena. Emak.2-en hitzetan bere denboraldian klubetan, barne-mailan edo klubetan artean txapelketak antolatzen ziren. Baina 60.-70. hamarkadetan antolaketa aldatu zen eta kontrola marka batzuen eskuetan zegoen beraien dirua jartzen bait zuten. “Esos campeonatos son abierto y los organizaba marcas de pelotas, marcas de ropa, siempre era alguna marca, entonces los organizaban ellos, los mismos delegados de tenis” (emak.25)

3.1.8. Kirolaren hastapenak.

Zergatik kirolean hasi?. Galdera honen aurrean gehienek erantzun berbera ematen zuten “ezagun batek komentatu zitelako, beraien lagun bat horretan sartuta bait zegoen, etxean animatzen gintuzten...”.

Kirolari hauen hastapenarako familia eta lagunaren eragina oinarritzat, ezinbestekoa izan zen. Senitarte kirolariak izateak laguntza baino ez zuen ematen. Gauza bera gertatzen zen klub pribatukokidea izatearekin edota entrenatzaile interesatu bat egotean bertan. Ezin ahaztu, noski, nesken artean kirola hedatzen saiatu ziren irakasle "gogotsu" horiek. Holan arrazoiak kirola aukeratzekoekin topatzen gara: interesak eta gustoetaz aparte familiaren eragina eragile zuzena zen,

kasuen arabera senide desberdinei esker: aita, ama, gurasoak, neba, osaba. Eskura izateak, gertutasunak baita ere lorpen bat suposatzen zuen andra batzuentzako, emakume hoientzako beste aukerarik ez zutenentzat bereziki. Ezin ahaztu irakasleak eta entrenatzaileen papera, beraiek andren kirola hedatzeaz gaina espezialitate berriak, aukera gehiago eraman zituztela. Kasu baten batean gaitasun fisikoek determinatu zituzten aukeratutako kirola.

16. taula: *Kirolean hasteko arrazoiak* .

ETAPA	ARRAZOIAK
1. Etapa	*Klub batekokideak izan *Familiak animatu edota kirolariak zirelako
2. Etapa	*Klub batekokideak izan *Familiak animatu edota kirolariak zirelako *Ikastetxean aukera izan *Lagun, ezagun baten bidez
3. Etapa	*Klub batekokideak izan *Ikastetxean aukera izan *Lagun/ezagun baten bidez *Familiak animatu edota kirolariak zirelako

Aukera asko ziren beraien Klubetan aukera hori zegoela, emak.2 tenisean, txikitan hasi zen, bere aitak beti animatzen zuen jarraitzeko. Beranduago ikastetxeetan aukera bertan zegoelakoari esker neska gehiagoentzako kirol-bidea ireki zen. Hasteko erreztasun txikiago edo handiago ziren, baina persona batzuk sorte ederra izan zuten klubkideak izaterakoan. “Sí, pertenecía a un club, claro

quizás por eso haya tenido más posibilidades que si no hubiese pertenecido a ningún sitio”.
(emak.18)

Aukerak eta hasteko kirolean adina desberdinak ziren kasuen arabera. “(...) desde muy pequeños nos tenían con la raqueta en la mano o llevándonos al barco de algún amigo”. (emak.18), “(...) natación de los 5 años en adelante”. (emak.4), “Pues yo empecé con 11 en el colegio”. (emak.30).

Aurreko lerroetan irakurtzen denez emakume batzuk oso goiz hasi ziren kirolean, jarduera fisiko egiten baina besteentzako beranduago arte ez zen egon aukerarik. Hasteko adina 11-12 urte batzbestekoa da. “Empecé a los doce años” (emak.16). “(...) entre los 13 y...” (emak.15). “Baloncesto y volei pues como te digo desde los 14 o antes a través de la sección femenina y...” (emak.10). “(...) con 18 años me metí en Gorostiza” (kasu honetan, elkarrizketa bukatu eta gero komentatu zidanez, jadanik gazteago hasi zen baina adin honekin “seriotasunez” entrenatzen hasi zen). (emak.25).

Eta desberdinen artean ezberdintasun handirik ez daude batz besteko adinaz hitz egiterakoan, hau da 11 urtetakoa ateratzen dela. Nahiz eta kasu batzuk nahiko bereziak izan, adibidez emak.4 hiru urtekin igeriketa egiten ikasi bait zuen eta emak.25 18 urtekin tenisean hasi zen.

Hainbat familietan kirola zerbait oinarritzkoa hartzen denean beraien bizitzan egunerokotasunean lekua hartzen du.

Teníamos tres años cuando él nos hacía hacer gimnasia calisténica y como teníamos una piscina en la casa pues tranquilamente nos tiró a la piscine... Cuando tenía seis o siete años a ama le gustaba mucho montara a caballo y a Bibi y a mí nos llevó al picadero y allí aprendimos... teníamos un frontón en casa en casa y teníamos que jugar a frontón y sábados y domingos era obligatorio jugar frontenis. (emak.4)

Honi esker emakumeak informazio asko kirol-aukeretan izan zuten. Eta beraiek egiten zutena defendatzaileak zituztelakoari esker zen. “(...) ¿Juanamari está jugando a la pelota? ¿Te molesta?.” (emak.15). “Mi familia me apoyaba toda completamente, me iban a ver siempre que podían lo mismo que mis hermanos que mis padres, osea nunca nunca tuve problemas en ese sentido” (emak.20). “(...) era un enamorado de la bicicleta (aita)...ama también pero ir en bicicleta a la pradera dondes mis abuelos nos dejaron un terreno entonces iba y venía a la huerta en bicicleta” (emak.12).

Familiak sustatzen zutela hasiera eta jarraipena. “Bueno, a mí nunca me pusieron pegas para eso, igual también gente que le gustaba el deporte. Si estudiabas y no dabas muchos problemas en casa te dejaban hacer” (emak.26). “(...) ellos me fomentaron el deporte (gurasoak).. “(emak.18). “(...) mi padre trabajaba en verano por las mañanas, iba en bicicleta a la fábrica...se venía directo con la bici al Molino donde teníamos para cambiarnos de ropa y todo eso, en el río” (emak.5). “(...) que nosotros todos hemos sido muy deportistas, un don que tienes” (emak.25)

Eta laguntza eta baimena ziurtatua zuten kasu hauetan. “(...) mi padre le gustaba la vela, ha sido muy aficionado... (...) yo con mi hermana la mayor que llevaba cinco o seis años sí me iba muchas veces con ella al Gorbea, porque ella era montañera” (emak.19)

3.1.9. Kirola aukeratzeko arrazoiak.

Hainbeste emakumeak hainbeste arrazoiak kirol-hautaketan eta andra bakoitzak bere burua kirol mundura bultzaturik ikusi zuen zergatik desberdinengatik eta ez batengatik soilik. Garai guztietan, etapa guztietan, familia eta lagunen eragina guztiz inportantea da. Lagunen bidez, ezagunen bidez kirolak ezagutu eta hurbiltzeko lagungarriak izan dira. Klubkideak izateak beti atea irekitzen zizkieten eta kontrakoa, klubkideak ez zirenak zaila zuten kirol batzuetan parte hartzeko emak.10k dioen bezala. Eta noski ikastetxeak eskeintzen zituen aukerak erabili behar ziren.

Datorren taulan ikusiko dira zeintzuk ziren informatzaileen kasuetan arrazoiak kirolean hasteko, aritzeko: familiaren eragina, entrenatzaileak/irakasleak, interesak/gustuak, lagunak, instalazioen edota eskaintzaren gertatutasuna (ikastetxeak), gaitasun fisikoak.

17. taula: *Kirola aukeratzeko arrazoiak.*

<u>ARRAZOIAK AUKERATZEKO</u>
Familiaren eragina: GURASOAK
Familiaren eragina: NEBA
Familiaren eragina: OSABA
Entrenatzaileak / Irakasleak
Interesak, gustuak
Lagunak
Instalazioen edota Eskaintzaren gertatutasuna (Ikastetxea)

1). Familiaren eragina.

Sendien papera zeharo inportantea da, kirol-aukeratzerakoan funtsezko eragile bat da (Llorente Muñoz, 1999) eta hori argi eta garbi ikusten da ikerketa honetan. Familia eta inguruaren eragina ederra izan zen kasu askotan

GURASOAK, hurrengo ataletan ama eta aiten eraginatuz aparte azterketa bat egin da. Baina nire ustez inportantea da kontutan hartzea, nahiz eta oso gutxitan izan, informatzaile batzuk orokorrean gurasotaz hitz egiterakoan ez dagoela desberdintasunik beraien artean kolektibo bezala kontsideratuz, talde bat bezala eta ez banako.

Jolaseta klubera joateaz gain emak.18k kontatu zuen nola egunerokotasunaren barruan ikusten zuen berak kirolak. “(...) nos inculcaban el deporte desde muy pequeños nos tenían con la raqueta en la mano o llevándonos en barco...” (emak.18)

Dena den, kontutan hartu behar da informatzaileen gurasoen artean aitak zirela kirola desberdinetan gehienek parte hartzen zutena praktketan. Honek bere logika badu urte hoietan emakumeentzako zaila bait zen kirolean aritzea, beste aldetik elkarrizketaturikoek emandako datuetan informazio hau agertzen da. Aitekin zuten harremanari esker kirol aldera hurbildu ziren eta era batera edota bestera praktikan hasi ziren. Familiaren laguntzak bideraturiko aukerak paregabeak ziren. Hona hemen beraiek kontatutako pasadizo batzuk: “Y antes vivía en el antiguo campo de golf...Mi aita profesor de golf” (emak.6). “(...) mi padre siempre nos solía alquilar...teníamos que pasarlo de un lado a otro en bote...y yo cogía me tiraba al agua sin saber nadar, me agarraba de la cadena...con siete años aprendía a nadar”(emak.5). “Bueno, pues porque teníamos el garaje de bicicletas y me gustaba salir al monte con mi aita. Mi padre era también una válvula de escape”(emak.12).

Emak.17 eta emak.18ren amek hockeyan aritu ziren eta horrek bideak ireki zizkien. “(...) cuando mi madre cuando se hizo hockey femenino aquí en Bizkaia bueno aquí en Getxo, eran mujeres que pertenecían al club Jolaseta..., se jugaba en otros campos por aquí..., le llamaban creo que Gobelondo por aquí..., y bueno pues quizás sí un poco de tradición”(emak.17)

Dena den, ezin ahaztu ama hauek klub pribatukokideak zirela, eta klase-altukoak horregatik kasu hauek bereziak ziren. Gainera, berriro aipatu behar da emakume askok ez zutela parterik hartzen jarduera fisikoetan, orduan ama horiek baietz bereziak zirela.

Emak.4k zaldiketan bere amarekin hasi zen, aurreko kasu bezalakoa kontsideratu behar da, familia pribilegiatu batekoa bait ziren. “Cuando tenía seis o siete años a ama le gustaba mucho

montar a caballo y a Bibi y a mí nos llevó al picadero y allí aprendimos (...). (emak.4).
Desberdintasuna aurrekoarekin hau da: informatzaile honek praktikatutako kirola ez zela berbera.
emak.19ren kasua aipatzea komeni da, bere familia ez bait zen bazkide inongo klubekorik eta
beraien maila ekonomikoa ez zen oso altua. Baina amarekin menditik noizean behin joaten omen
ziren.

NEBA: Emak.8 atletismoan hasi zen bere neba batek animatu zuelako. “Mi hermano Luis Onaindía
que fue campeón de España de altura, y mi otro hermano también, -Maribe, tienes que venir a
Fadura, tienes que...- entonces fuimos unas cuantas, Raquel, Maribe Urrutia, M^a Jose...”. (emak.8)

Horrez gain, neba hau bere dantzakidea zen, euskal dantzetan aritzen bait ziren. Beraien
espezialitatea jota zen eta txapelketa batzuk irabazi zituzten. “(...) ibamos mi hermano Luis mi
pareja de baile y yo, participábamos en todas las fiestas desde Plentzia aquí en verano, si nos
enterábamos que había concurso de jotas allí íbamos. Yo creo que eramos muy buenos jajaja. En el
año 60 ganamos en Berriz...”. (emak.8)

OSABA

Familiakideen artean elkarrizketaturiko emakume baten osaba batek oso pisu handi izan
zuen andra hau atletismoan hasteko. “Tenía un tío que era el que me llevó que era el presidente del
Getxo”(emak.21)

2). Entrenatzaileak/Irakasleak.

Ikastetxeetan gero eta irakaslego formatuago zegoen, beraiei esker Bizkaiko hainbeste
zentroetan kirola hedatzen joan zen.

“(...) vino la señorita Carmen Guerra...ya había chicas que jugaban a baloncesto, hacían su
pinito y tal y voleibol y balonbolea como se llamaba en aquella época, a mí tampoco me
gustaba mucho, a mí me gustaba jugar a campo quemado. Entonces nos dijo a ver el
balonmano, ¿balonmano?, pues si esto es el fútbol pero con la mano en un sitio más

reducido, queréis, pues sí...y ahí jugé por primera vez a balonmano y me gustó. Empezamos a jugar, nos inscribimos.(emak.23)

Kasualitatez, irakasle berri hoien artean bazeuden bizkaitar batzuk ikerketa honetan parte hartu dutela, zehazki 1. etapakoak. “(...) pues porque vino Carmen, empezó a sacar equipos...”. (emak.26)

Hasierako entrenatzailearen laguntzak ezinbestekotzat jotzen dute kirolariak. “Cuando yo tenía diecisiete años, tuve oportunidad de entrar al centro deportivo (Chaturoperte), donde estaba el profesor Toba y fue él que me enseñó los clavados que decimos aquí o los saltos que dicen ahí....”. (emak.4).

Desberdinak izan ziren andren aukerak tokien arabera, irakasleen arabera, entrenatzaileen arabera.

3). Interesak, gustuak.

Denok ditugu gure afinitate eta zaletasunak. Informatzaileak baita ere. Baina badaude hoietarikoak aipatu dituztela hauek arrazoi inportanteena kirolean hasteko. “Pues natación porque el mar me atrae más que...Lo del ballet me gustaba, me gustaba porque, ya te digo que mi madre...y lo del voleibol pues fue una cosa así como de rebote me gustaba, me gustaba eso lo ví en Valencia.... “(emak.29).

“(...) me gustaba andar por el monte, porque eso sí el amor a la naturaleza allí (Ingalaterran) es muy grande...Me fui a las oficinas del Juventus...pues tenemos excursiones, tenemos un calendario...Artxanda, Pagasarri, Arraiz, Ganeko...entonces me empecé a enamorar de todo esto y ya siempre....” (emak.7).

“Gustu” horiek batzutan mugaturik zeuden eskeintzarekin. Kirol batzuk soilik klubetan praktikatu zitekeen eta. “Era lo que había, y quería hacer de todo pero nada, por ejemplo no podríamos haber hecho hockey o golf nooooo”(MTMGD)

4.) Lagunak.

Argi geratzen da lagunaren eragina egon zela elkarrizketaturiko ekmakume hauek beraien kirola aukeratzekoan. “(...) estábamos paseando y mi amiga Begoña le conocía a éste, cómo se llamaba éste que corría Isaac Rueda y nos dijo que iban a crear un equipo de atletismo, un equipo de atletismo el Vizcaya Club de Educación y Descanso... y empezamos”(emak.13)

Betikolez, sorte pittin bat eta aukera onak izateaz gain ezagutzerakoan jendea izan zen baita ere. Praktikatzaileren artean ahoz-aho informazioa ibili eta jendea jakinaren gainean zegoen. “(...) siempre me gustó correr, siempre me gustó hacer este deporte y también fue por casualidad por conocer a una compañera del instituto que ella ya hacía jabalina, Raquel , y me llevó, y nada más llegar...”. (emak.20).

Nerabetasunean, egia esanda, nora lagunak doazen hara besteak doaz baita ere. “(...) porque todas las amigas que eramos amigas a todas nos gustaba el deporte y nos gustaba el balonceto y empezamos a jugar todo el grupo de amigas que eramos de niñas...”(emak.26)

5). Instalazioen edota eskaintzaren gertutasuna (Ikastetxea).

Gertutasunak garrantzia handia zeukan andra hauentzat. “Mi primer contacto con el deporte al llegar a Bilbao como vivíamos cerca del Deportivo... Pero yo ví una vía de escape en, porque todo lo que hacía por deporte mi madre me lo permitía...”. (emak.14), “Porque teníamos allí las pistas...”. (emak.2),

Etiket edota eskolan, ikastetxean bertan eskaintza kontutan hartzekotan horiek hautetsi zuten. Ikastetxean izaterakoan materialak edota irakasle batzuk lagundu zutelakori esker kirol

horiek agertu ziren. “Simplemente porque en el patio del colegio había dos canastas, aunque eran pequeñas y no necesitabas a nadie para coger un balón...”(emak.19),

Inguruaren indarra nabaria izan zen beraiengan, jakina.

6). Gaitasun Fisikoak.

Beraien gustoak kontutan hartuz aukeratu eta fisikoki sortedunak zirenak bazeuden ere bai. Gorputz liraina, indartsua izanda errezagoa zen kirolarengan interesatua izatea. “Pues mira porque venía muy alta y muy delgada y se me daba lo que más y tenía mucha fuerza, en mi época las chicas no jugaban al fútbol como juegan ahora, lo que más era el baloncesto y voleibol luego ya empezó la inclinación por el tenis de mesa pero baloncesto era lo que más hacía la gente” (emak.16)

Arrazoi ezberdinengatik aukeratu zuten kirol bat edo beste bat, bide desberdinak izan ziren praktika hoietara hurbiltzeko. Beraien ikastetxeetan aukera horiek bakarrak zirenez hoiekin gelditu ziren. Ez zen hain erreza aukera gutxi batzuk baino ez zirelako eta Klub Pribatuetan zeuden aukerak ezinezkoak ziren jende arruntarentzako. Irakasle batzuk (beraien artean elkarrizketatu dudak emak.10) ikastaroak, formakuntza bat jaso eta gero aukera hori zabaldu zuten. Hasiera batean ikasleak izan ziren batzuk gero irakasleak bihurtu ziren eta aukera gero eta hedatuagoa aurkezten zieten neskeei. Dena den, hoiien arteko askok familiko norbaiten eraginari esker erabaki hori hartu zuten- Honetaz jadanik kategoria zehatz bat aztertu dut.

Taularen irakurketan nabaria da ikustea klubuen agerpena eten gabekoa dela etapa guztietan zehar, honek dio klub pribatuaren pisua eta papera betidanik oso garrantzitsua izan dela emakumezko kirolarentzat. Aipagarriena den aldaketa 3. etapan dago, bertan ikastetxeek gero eta interes handiago jartzen zuten kirola bultzatzeko bai irakaslego bat gero eta formatuago izateko bai aukera gehiago zentro barruan izateko.

Irakasle bat zegoen oso kirolzalea eta berari esker ikastetxe batzuetan kirolak lantzen hasi ziren. Beste esperientzia desberdinetan klubkideak, lagunak eta familiakide kirolariak ziren lagungarriak.

3.1.10. Kirola egiteari uzteko arrazoiak.

Frankismo garaian zergatik emakumeak kirola eta jarduera fisikoei agur esaten zietenaren inguruan haiei galdetu zitzairen eta erantzun batzuk oso orokorrak dira. Amankomunezkoak: *ezkontzea eta *seme-alabak izatea kasu gehienetan arrazoi nagusitzat jo zuten.

Batzuk beraien kasuak azaltzen dute baina askotan beraien garaian zeintzuk ziren zergatiak baino ez dituzte ematen.

Argi dago nola kirola usteko arrazoi nagusia ezkontzea, bikotea izatea dela. Hau da, seme-alabak izatea nagusia zen, Riaño Gonzálezek bere lanean adierazi zuen legez (2004). Etapa guztietan batezbesteko nahiko antzekoa izan arren, hau da 20-21 urteekin. Baina denboraren poderioz pixkanaka hau gorantza doa. Dena den, badaude salbuespen batzuk seme-alabak izan eta gero jarraitu zutenak. horiek master-txapelketetan jarraitu izan direnak eta duela denbora gutxi utzi ziotela praktikari. “(...) hasta hace siete años (2007)...”. (emak.18)

Ezkontzea edota mutil-laguna izatea maiz arrazoi nagusienetarikoa izaten zen. “(...) hasta que te casabas más o menos...nuestra época era 26, 27 años más o menos” (emak.17). “hasta los 19...me casé”(emak.15) . “(...) me casé a los 27” (emak.27). “(...) yo creo que era hasta los veintitantos años “(emak.10).

Beste batzuetan betebeharragatik edota lana aurkitzerakoan andrak ez zuten kirolean jarraitzen. “(...) en mi caso la pareja no hubo ningún problema...el quehacer y la obligación y la economía, todas esas cosas” (emak.13). “Se casaban o lo mío era el curro” (emak.23)

Alabaina, seme-alabak izaterakoan arrazoi “normalena” jotzen zuten kirola baztertzeko. “(...) pero luego llegan los hijos y tal...normalmente desaparecían cuando se casaban o seguían

hasta que tenían niños” (emak.7). “(...) yo creo que dejé el atletismo cuando me casé...lo dejé por mis hijos” (emak.20).

Hala ere, arrazoi bat baino gehiago bazeuden bertan behera uzteko kirola, desberdinak direnak. “(...) a tenis hasta los 60 años...tuvo mi marido un derrame...mis amigas y todo mi grupo siguió jugando a tenis” (emak.2). “(...) se abandonaba...algún problema personal o así” (emak.21) Beraien artean bazeuden andra batzuk adinagatik utzi zutela, nahiko “nagusiak“ beraien hitzetan. Eskerrak kontzeptu hau aldatzen doa. “(...) yo creo que era hasta los veintitantos años...”. (emak.15).

Egia da kasu batzuetan baietz seme-alabak izan arren edota izan arte jarraitzen zutela. “(...) en plan competitivo hasta el año 84 con treinta y muchos años,sí”. (emak.18). “(...) pues 32 años”. (emak.19)

Lesioen eragina askotan guztiz erabakitzailea zen eta horregatik batzuk ezin zuten jarraitu. “(...) con natación hasta que sales del colegio con 16 años o así...y baloncesto por la lesión...a los 18 me lesioné...”. (emak.28)

Beraz, batezbesteko bat eginda, 20 urte betetzerakoan elkarrizketaturiko neskak uzten zuten kirola, jarduteari agur esaten zioten.

Guztientzako oso era natural batean sortu zen abandonatze hau, arrazoi desberdinengatik zen bai baina holan zen edota izan behar zen eta kitto, buelta gehiago ez zioten zergatiari emoten. Nire ikuspuntutik, beraiek guztiz barneraturik, onaturik zeukaten emakumearen papera. Garrantzi handiena amatasunak zuen eta momentu hori ailegatzerakoan ez zegoela asko pentsatzekorik. Horregatik praktika usten zuten nahiz eta batzuk abandonatze hori “urrun”, irrealia ikusiz.

“Vamos a ver, yo creo que dejé el atletismo cuando me casé, en realidad nunca he dejado el atletismo, nunca he dicho, voy a dejar el atletismo, osea que cualquier día empiezo otra vez, ja ja ja ja, nunca he dicho voy a dejarlo. Lo que pasa que yo me casé...” (emak.20)

Azken finean beraien helburua kirolean parte hartzerakoan ez zuten harremanik feminismoarekin, emakumearentzako bide berriak irekitzea edota generoen berdintasunaren aldeko borrokatzea, ezta ezer ez apurtzeko gogoekin. Elkarrizketaturiko emakumeek behintzat ez dute horrelakorik aipatu, kontrakoa baizik. Honen adibide bat emak.13k esandakoan argi eta garbi gelditzen da:

“Era otra forma de ver la historia era una forma de aparte de hacer algo, yo no pretendía romper ningún molde, que no, si dijese otra cosa ahora sería una estupidez. Pretendí pasármelo bien agradablemente...pero romper moldes yo no he pretendido romper ningún molde porque no me he sentido, no he sentido esa historia” (emak.13)

Baina inteligenteak zirenez aldaketa hoietaz baietz konturatu ziren eta jakitun izan holan aipatu zuea emak.20ek: “(...) éramos las primeras y entonces tienes que romper muchos hielos pero...”

Nahiz eta beraien partehartzearen helburua ez izan apurketarik sortzea, egin zuten.

Atal honen barnean ezin alde batera utzi andra hauen bikotekide batzuk kirolariak bait ziren, modalitate berakoak edo ez. Aipatu behar da emakume batzuen elkarrizketen ez dela agertzen informazio hau, baina grabazioa bukatu eta gero, berba egiten egon ginen eta modu informalean kontatu zidaten beraiak.

18Taula: *Elkarrizketaturiko emakumeen bikotekide kirolariak.*

	modalitate berbera (bikoteak)	modalitate ezberdina (bikoteak)	bikote kirolaria + mutil-laguna kirolaria
7	5	3	9
%25	%37'5	%62'5	%33

Egiaztatu dudanez, neska batzuk kirola, jarduera fisiko egiteari utzi ziotela mutil-laguna izaterakoan. Informatzaileen kasu gehienetan horrek ez zuen garrantzirik izan. Askok ezkondu ziren beste kirolari batzuekin. Honek bere logika badu jakina, mundo berakoak izaterakoan errezago ulertuko zuten beraien ezkongaien aukerak, kirolean aritzea. Horri esker, neska hauek ez zituzten arazorik izango jarraitzeko. Beraiek baita ere konfirmatu zidaten nola ezagunak zituzten neska eta mutil kirolariak bikoteak zirela. “Mi marido también era deportista con lo cual no tenía ningún problema” (emak.24). “Yo me casé con un jugador de baloncesto pues Teresa Ruiz también y Ruth se casó con otro” (emak.26)

Esperientzia hau, kirola egitearena, partekatzerakoan askoz errezago izan zen guztiontzako, bai kirolarientzako bai ondoan zeudenentzako. “(...) el que hoy es mi marido tengo que reconocer que se ha chupado entrenamientos” (emak.19). “(...) y yo creo que mucha gente hizo pareja dentro del atletismo, a mi por ejemplo a mi, mi marido me apoyó muchísimo muchísimo, me apoyó, también yo a él eh y nunca tuve ninguna pega” (emak.20). “Yo de soltera y sin novio también jugaba al tenis” (emak.25).

3.1.11. Kirolaren jarraipena.

Gure partehartzaile batzuk guztiz urrundu ziren jarduera fisiko eta kirol mundutik aurretik aipatu den lez arrazoi desberdinengatik, hori egia da, baina beste hain beste gaur egun mundo horretan jarraitzen dute. Nahiz eta kasu askotan ez izan gaztetasunean praktikatutako berbera. Aldaketa hau arrazoi desberdin askoren ondorioa izan daiteke, baina hoien artean eta ondo azaltzeko emak.30ren hitzak erabiliz “...porque evidentemente el deporte te deja secuelas mil y lo que puedes hacer es pasear...”. Azken finean, urte mordo pasatu dira kirolean hasi zirenetik emakume hauek eta urte hoietan bizitzaren aldaketak eta lesio desberdinak jaso izan dituzte. Hau da, gure gorputzak egin dezakena ezberdina da, duen adinaren arabera gai izango da puntu batera

edo besteraino ailegatzeko. Horregatik, intentsitatea eta kasu batzutan jardueraz aldaketa egon da, aldaketa beharrezkoa, jakina, aurretik azaldu dudana kontutan hartuz.

Bestetan emakumeen lagunek ez zuten ulertzen kirolak ematen ziena andra-kirolariei nahiko zen beraientzako eta horren truke gauza batzuk galtzeko prest zeudela “...nos decían, jo, es que no haces nada, es que no sales, es que no puedes fumar, es que no puedes tomarte una copa...”(emak.18)

Hemen agertzen dena hobeto ulertzeko Macías Moreno (1999) bergogoratu behar da, berak aukeratzeko momentuan balore batzuk aipatzen ditu, lau hain zuzen ere erabilgarritasun-balioa, sumatutako balioa, sustapen-balioa, lorpen-balioa. emak.18k esandakoa sumatutako balioan sartzen dut, bere lagunek beste era guztiz desberdina somatzen bait zuten. Horregatik ezin zuten ulertu zer lortzen zuten kirolari hauek beraien aisialdiaren erabilera hori ematen (kirola egiten).

Ezin ahaztu horietariko emakume batzuk oraindik ere gaur egun master eta beste txapelketa mota batzuetan parte hartzen dutela. horiek baietz jarraitzen dutela gazteak zireneko kirola egiten. “Si, sigo con los saltos y ahora participo en los saltos de master” (emak.4).

Gaur egun informatzaileen erdiak baino ez du jarraitzen partehartzaileak izaten froga desberdinetan. Etapa guztiak orekatuak daude, gezurra ematen du baina gaur egun 1. etapakokide dexentek oraindik orain kirola egiten jarraitzen dute.

Horrela argi eta garbi gelditzen da jarduera fisikoa egiten segitzen dutenen artean emakume gutxik daude gaztetasunean, praktikatutakoarekin jarraitzen dutenik. “(...) al monte pero menos que antes” (emak.3).

Bestetik, badaude andra hoietariko batzuk, jarduera fisikoan praktikan jarraitzen dute. “Si, aunque tengo muchos años pero sigo haciendo actividad física a diario (Gimnasia a diario, berton elkarriketa egin nuen toki beran)” (emak.16). “Sí, ahora juego a golf. (emak.26). ...en bici siempre que sea llano sin esfuerzo y jugar al golf. (emak.30)

Jakina, kirola egiten jarraitzeak eskatzen du egokitzea beraien adinera eta egoera fisikora. “ (...) un master de veteranas...el esquí lo he practicado hasta hace poco pero el esquí no es como la natación” (emak.15). “(...) pero esquiar toda la vida, todavía he seguido esquiando porque se ha practicado mucho y atletismo no” (emak.21). emak.14 gaur egun mendira joaten jarraitzen duela grabatzailetik at kontatu zidanez. “(...) andar por el monte o aquí o allá porque...”. (emak.19)

Elkarrizketaturiko emakume batzuk eta gero kirolean hasi ziren berriro. Gaur egun emakumeak badaude mendira joaten direnak, emak.14, emak.19. Baita ere eskiarekin gozaten dutenak, emak.18, emak.15, emak.21. Eta, bukatzeko, atal honekin, aipatu beharra dago nola 3.etapakideen artean golfa zabaldu dela, emak.30, emak.28, emak.26, emak.27 zaleak dira.

3.1.12. Emakumeek praktikaturako kirolak.

Lehenengo etapan (1923-1940 urtetan) banakako kirolak. Bigarren etapan (1940-1950 urtetan) taldekako kirol praktikan agertzen hasten dira, hockeya eta saskibaloia. Eta azkeneko etapan (1950-1960 urtetan) kirol praktikak ugaltzen hasten dira, eta talde kirol batzuk (saskibaloia, eskubaloia eta boleibola) sendotzen dira.

Ondorengo taulan sailkapen bat dago. Bertan banandu dira hiru etapak, andreen jaiotze-datak kontutan hartuz eta praktikatzen zituzten kirolak errez ikusi daitezke.

19. taula: *Etapaka informatzaileak praktikaturako kirolak*

1.ETAPA	Gimnasia, Igeriketa, Dantza folklorikoak, Mendia, Eskia , Tenisa, golf, Igeriketa-Jauziak, Frontenis, Igeriketa, Zaldiketa, Izotz-irristaketa, Txirrindularitza,
2. ETAPA	Eskrima, Txirrindularitza, Atletismo, Igeriketa, Eskia, Mendia, Arku-tiro, Eskalada, Frontenis/Pelota, Irriaketa, Txirrindula, Eskia, igeriketa, padel, bela, Hockey, Saskibaloia

3. ETAPA Eskia, Atletismo, Boleibol, Eskubaloi, Saskibaloi, Tenisa, Golf, Frontenis, Mahai-tenisa, Skimboarding, Igeriketa, Saskibaloi, Igeriketa, Mendia, Frontenisa, bela, Mendia, Igeriketa, Eskubaloi, Golf, Ballet, Surf, Boleibola, Moto-kros, gimnasia-erritmika, Igeriketa.

Lehenengo etapan (1923-1940 urtetan) banakako kirolak. Nabariak dira. Bigarren etapan (1940-1950 urtetan) taldekako kirol praktikan agertzen hasten dira, hockeya eta saskibaloia. Eta azkeneko etapan (1950-1960 urtetan) kirol praktikak ugaltzen hasten dira, eta talde kirol batzuk (saskibaloia, eskubaloia eta boleibola) sendotuz.

ESk kirol zehatz batzuk gomendatzen zituen, gogoratuko ditut zeintzuk ziren, eta , nola gaur egun: taldeka ala banaka kirolak kontsideratuak diren.

*boleibola

*saskibaloia

*hockeya

*"balón a mano"

TALDE-KIROLAK

Gure informatzaileen artean gehien praktikatzen zirenak (lehenengo aukera bezala) hauek ziren:

Eskubaloia: 3. Etapa

Hockeya: 2. Etapa

Saski-baloia: 1. Etapa 2. Etapa 3. Etapa

Zoritzarrez, boleibol-jokalari informatzailerik ez da lortu, nahiz eta emak.29k kontatu zidan nola berak baietz jolastu zuen denboralditxo bat baina oso gutxi, eta guztiz gainetik horretaz hitz egin zuen. Elkarrizketaturiko emak.10ak Gorputz Heziketa irakasle lanean hasi zenean (Miguel de Unamuno Institutuan urteak pasatu zituen berak) boleibola bere klaseetan erabiltzen zuela badakigu, eta AGAn aurkitutako paperan artean Bizkaian bazeudela talde bizkaitarren berria baita ere.

Dena den, hauen artean Bizkaiko ikastetxeetan normalenak edo arruntenak saskibaloia eta “balón a mano” delakoak ziren, eta saskibaloia talde pilo bat zeuden gure herrialde honetan asko zabaldu bait zen. “Balón a mano”, emak.23ek kontatutakoaren arabera, antza ederra zuten eskubaloia kirolarekin eta zelai-errea jolasarekin. Jarduera bien arteko gurutzaketa eskubaloia emaitza omen dela.

Hockeyaren kasua pizka bat aparte doa, Bizkaia mailan jadanik XX. mendearen hasieran talde bat bazegoela (hau ondo dakigu emak.17 eta emak.18aren amak eta izekoak bertan jolasten bait zuten) Gobelondo taldean. Izeko eta ama hauek Jolaseta klubekideak zirela jakinarazi zuten. Horrek adierazten digu zein garrantzitsuak izan diren klub pribatuak kirolaren hedapenean eta jendarteratzean. Goi-mailako jarduera kontsideratua izan daiteke espezialitate hau, egia esanda, publiko osoarentzako zabaldua ez bait zegoen. Berataz aparte, emak.17ren ama aurrekoen taldekideak izan ziren.

*tenisa

*eskia

BANAKA KIROLAK

*igeriketa

Banaka kirolekin argi eta garbi dago nola hasieratik egiten ziren kirolak nahiko aristokratikoak ziren, tenisa eta eskia, beraien praktika zaila eta garestia zelako:

Eskia, bidez egiteko aukera bakarrik zegoelako. Materiala, leku aproposak zirenetaraino lortzea ez zen bat ere erreza alokairuan. Naturaz gozatzeko laborariak astirik ez zuten argi da. Bizkaia mailan honen hasieran Bilboko Club Deportivoan dago, tenisarena eta igeriketarena bezala.

Igeriketa, nahiz eta izaugarritzko kontrola egon emakume kirolariek erabiltzen zituzten kirol-arropa igeriketa guztiz ondo onartuta bait zegoen. Jakina, hasiera batean emakume eta gizonak igeritokia erabiltzeko ordu desberdinetan izan behar zen. Baina igeriketa betidanik nahiko femenina

eta onuragarria konsideratzen zenez emakumeentzako kirol hau onartua zegoen. Ikerketan ikusi daiteke nik planteatutako hiru denbora-tarteetan praktikatzaile baten bat egon zela bakoitzean.

Elkarrizketaturikoen artean hedatuenak ziren banaka-kirolak hurrengo hauek ziren:

Atletismoa: 1. Etapa 2. Etapa 3. Etapa

Esgrima: 2. Etapa

Eskia: 1. Etapa

Igeriketa: 1. Etapa 2. Etapa 3. Etapa

Tenisa: 1. Etapa 3. Etapa

Txirrindularitza: 2. Etapa

Hauetaz gain, jakina, euskal dantzak bazituen bere tokia, beraien “España una y libre” delako herriko dantzen barnean kokaturik beste mota bateko jarduera fisikoa zen. emak.8k txapelketeetan eta guztiz parte hartu zuen bere nebarekin bikotea.

40. irudia: Euskal dantzak Bizkaian (antza denez Ibaizabalaren ezker aldean).

Neskak eta mutilak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa R1744/0004



Errealitatera itzuli, lortutako datuetara bueltatu ikusten dugu nola nahiz eta horiek izan poterearen ikuspuntua, gero kalean emakume batzuk aukera desberdinak izan eta gero beste kiroltan parte hartzen zuten.

Guzti hau aztertuz hurrengo taula hau atera da. Bertan ikusi daitezken zein harremanak egon daitezke egindako praktikak eta frankismoaren momentuaren arabera, lokailu bezala jaiotza-data hartuz. Hori izan da arrazoi bat holako taula bat planteatzeko, noiz jaio ziren emakumeak eta data horiek erlazionatuz frankismoaren momentuaren ezaugarriekin. Hau da, historian zehar eman ziren aldaketak eta hoiien eragina gure ikerketan, kasu honetan kirol-praktikekin.

20. taula: *Emakumeen kirol-praktika eta jaiotze-data*

ETAPA	JAIOTZE DATA	KIROL PRAKTIKA
1. ETAPA	1940. baino lehenago jaio	igeriketa
		zaldiketa
		golfa
		tenisa
2. ETAPA	1941-1950 urteen artean jaio	saskibaloia
		igeriketa
		atletismoa
3. ETAPA	1950-1959 urteen artean jaio	saskibaloia
		eskubaloia
		igeriketa
		atletismoa

1. ETAPA: 1940. urtea baino lehenago jaio. Talde-kirol bakarra agertzen da hemen, saskibaloia, eta jarduera honetara dedikatzen zirenak ES-ren barnean ikastaroak egin zituzten, biak GH irakasleak lanbidearekin.

Beste neska guztiek banaka kirolean parte hartzen zuten. Hoiien artean atleta bat dago, hau berezia da berak parte hartu zuelako Bizkaian egon zen lehenengo atletismo taldean, Bizkaia Klub delakoan, “Educación y Descanso“n sartuta (60. hamarkadan). Jarduera hau ez zen bat ere arrunta, partehartzaileak herriko jendea zela ezin ahaztu, San Inazio polikiroldegian (errauts-pistan) entrenatzen hasi bait ziren neska hauek. Zaila zen baina emak.11k korrikan ibili zen eta asko disfrutatu zuen. Bide berri bat ireki zuten.

Beste jarduera guztiak zeharo bereziak ziren, edonork ezinezkoa zeukan parte hartzea. Adibidez:

*Igeriketa-jauzietan: klase-altukoa izateaz gain klub pribatu bateko entrenatzailea izateko aukera ederra izan zuen honek. Mexikon izan zen, eta da, baina azken finean praktika oso berezia, zaila eta mugatuta herriko jendearentzako. Arrazoi batzuegatik: materiala, entrenatzeko, sartzeko ez erraz. Gaur egun igeriketa-jauziak ez dira oso ezagunak Bizkaia mailan eta gutxi praktikatzen dira.

*Golfean: emak.6k esan zuenez bera onartua izan zen golf-klubetan nahiz eta aberatsa ez izan. Baina bera Espainiako estatuan txapelduna izatea lortu zuen eta horrek ate guzti horiek ireki zizkieten. Espezialitate horretan txapelduna izaterakoan klasea alde batera utzi zuten. Bere lorpenak aita golf irakaslea (bertan bizi ziren, aita belarretaz arduratu eta klaseak eman zituelako) eta berak asko entrenatzeari esker lortu zuen. Gaur egun jarduera hau ez da asko hedatu, klase-altuko praktika izaten jarraitzen du.

*Tenisean: gaur egun polikiroldegi publikoetan tenis klaseak ematen diren arren, momentu horretan ez zen bat ere erraza izatea aukera jolasteko. Bai garatu dela zentzu orokor batean. Emak.2 txikitatik jolasten zuen bere anaiarekin bikote eta bere aitak laguntzen eta argazkiak ateratzen.

*Igeriketan: emak.5ek erreka batean ikasi zuen igeri egiten eta urteak pasatu ziren Bilboko Club Deportivora joan arte. Eskerrak beste klub batzuk zeudela baita ere, Martiartu hain zuzen ere igerilari gehiago izaten hasi ziren.

*Mendian aritzen zirenak Deportivoa eta Juventus klubekin hasi ziren. Betidanik mendizaleen emazteak edota ahizpak mendira joaten. Jadanik urte batzuk lehenago emakumeentzako mendi-txapelketa batzuk baziren ere bai.

2. ETAPA: 1941-1950 jaio. Elkarrizketaturiko atleta gehienak urte hauetan jaio ziren eta beraien artean hasi aurretik batzuk elkar ezagutzen zuten. Jarduera guztiz berria zen 60. hamarkadan eta neska hauek bide berri bat zabaltzen hasi ziren atletismoan.

Aipatu beharra dago nola urte hauetan jaiotako informatzaile batzuk jarduera oso bereziak praktikatzeko zituzten baina hauek beraien artean guztiz desberdinak ziren: alde batetik esgrima, Bilboko Club Deportivoan soilik zegoen aukera praktikatzeko eta oso era mugatu batean parte hartzea, bestetik, txirrindularitza debekatuta egon arren emak.12 bere aitarekin bizikletaz zebilen. Gaur egun jarraitzen du honekin. Zailtasun askori aurre egin arren berak nahi zituen txapelketetara ezin izan zuen joan.

Kuriositatez, igerilari biak Náutica de Portugaleten beraien lehenengo entrenamenduekin hasi ziren, klub hau 50. hamarkada honetan fundatu zen. Holan ikusi dezakegu nola gero eta aukera gehiago zeuden kirol munduan. Ildo beran jarraituz saskibaloia taldeak gora zoazten, gero eta ikastetxe gehiago zeuden, gero eta jokalaririk gehiago.

Baina zeharo desberdina zen beste aukera bat, hockeya. Lehen esan dudana bezala, hockey soilik zegoen klub batzuetan, Bizkaian bakar batean, Jolasetan. Gauzak ez dira gehiegi aldatu herrialde honetan eta gaur egun ez dago mugimendu oso handirik kirol honen inguruan.

3. ETAPA: 1951-1959 jaio. Eskubaloi-kirolari bakarra izan dut ikerketa honetan. Bazeuden neskak parte hartzen zutena baina egunean jarraitzen da izaten ezezagun pittin bat. Eskubaloiarekin ez bezala, saskibaloian gero eta jende gehiago zegoen (eta holan ikusten da baita ere informatzeileen artean).

Aipatu beharra dago nola tenislari bakarra dagoen talde honetan baina kasu berezia da. Barakaldokoa izateaz gain (zonalde honetan kirol-ohitura handirik ez zegoelako) hango polikiroldegian hasi zen baina gero open/txapelketa pilo batean parte hartu zuen eta denbora luzez beste klub batzuetakokidea izaten.

Hurrengo irudian, (Espainiako estatu mailan egindakoa) ikusi daiteke urte zehatz batzuetan Bizkaiko kirol-emakumeen partehartzea estatu mailan kirol-espezialitate ezberdinetan. Urte hauek 1967-1971en tartea izan zen. Taula hauetan soilik agertzen da ES-ak antolatutakoa baina Bizkaian egiten zen kirolaren adibide handia da. Hau da, federazioak, ikastetxeak edota klubek antolatzen zituzten txapelketak eta topaketei buruzko ez da. Dena den, ezin diogu kendu garrantzirik Bizkaiko emakumezko kirolaren historiarentzako oso inportantea izan zelako.

41. irudia: 1967-1971 Bizkaiko emakumeen partehartzea

ESak antolatutako kirol desberdinetan I. AGA C9 G2

DISTRIBUCION POR DEPORTES Y CURSOS							PROVINCIA VIZCAYA					
	EQUIPOS					DEPORTISTAS						
	JUVENTUDES				MAYOR	TOTAL	JUVENTUDES				MAYOR	TOTAL
	alevin	infantil	juvenil	total			alevin	infantil	juvenil	total		
ATLETISMO												
1967-68												
1968-69							--	211	211	14	225	
1969-70							180	44	224	35	259	
1970-71							361	156	517	43	560	
							315	125	440	54	494	
BALONCESTO												
1967-68	13	34	24	71	6	77	117	340	240	697	67	764
1968-69	--	29	21	50	8	58	--	290	210	500	87	587
1969-70	--	34	26	60	9	69	--	340	260	600	97	697
1970-71	14	84	37	135	13	148	126	840	370	1.336	147	1.483
BALONMANO												
1967-68	--	--	--	--	5	5	--	--	--	--	60	60
1968-69	--	--	6	6	6	12	--	--	66	66	80	146
1969-70	--	4	3	7	4	11	--	44	33	77	48	125
1970-71	--	10	6	16	6	22	--	100	66	166	84	250
VOLEIBOL												
1967-68	--	6	5	11	4	15	--	60	50	110	40	150
1968-69	--	18	--	18	7	25	--	180	--	180	72	252
1969-70	--	12	--	12	14	26	--	126	--	126	158	284
1970-71	--	17	5	22	10	32	--	162	48	210	104	314
GIMNASIA EDUCATIVA												
1967-68												
1968-69												
1969-70												
1970-71												
GIMNASIA DEPORTIVA												
1967-68												
1968-69												
1969-70									2	2	--	2
1970-71									1	1	2	3

Nº19.

Eta hurrengoan beste espezialitate batzuk.

42. irudia: 1967-1971 Bizkaiko emakumeen partehartzea

ESak antolatutako kirol desberdinetan II. AGA C9 G2 N19

PROVINCIA VIZCAYA													
	EQUIPOS						DEPORTISTAS						
	JUVENTUDES				MAYORES	TOTAL	JUVENTUDES				MAYORES	TOTAL	
	alevin	infantil	juvenil	total			alevin	infantil	juvenil	total			
HOCKEY EN HIERBA													
1967-68					1	1						23	23
1968-69					1	1						20	20
1969-70					2	2						39	39
1970-71					2	2						32	32
HOCKEY EN SALA													
1967-68					2	2						22	22
1968-69					--	--						--	--
1969-70					1	1						12	12
1970-71					--	--						--	--
NATACION													
1967-68							105	64	33	202	19	221	
1968-69							111	107	37	255	24	279	
1969-70							168	122	48	338	25	363	
1970-71							219	191	49	459	21	480	
TENIS DE MESA													
1967-68													
1968-69													
1969-70													
1970-71							18	61	--	79	--	79	
TOTAL POR DEPORTES													
1967-68	13	40	29	82	18	100	232	464	334	1.230	245	1.465	
1968-69	--	47	27	74	22	96	111	757	357	1.225	318	1.543	
1969-70	--	50	29	79	30	109	168	993	499	1.660	422	2.082	
1970-71	14	111	48	173	39	202	363	1.669	659	2.691	444	3.135	

- 305 -

Hamar kirolari buruz informazioa agertzen da taula bi hauetan, aurrekoan eta ondorengoetan. Bertan Bizkaia herrialdean zenbat taldeak, zenbat kirolariak, kategorietan banandurik, parte hartu zuten 1967, 1968, 1969, 1970, 1971 urteetan. Informe hauetan garapen argia ikusi daiteke, urteekin neska, gazte eta andra gehiagok parte hartzen bait zuten. Eta NON hasten ziren parte hartzen kirol desberdinetan ikusi daiteke ondorengo taulan.

21. taula: Zer erakundeetan egiten zuten praktika.

Kirola, Jarduera Fisikoa	Ikastetxea	Klub Pribatuak	EZ, beste motatako erakundea
Golfa	-	X	-
Tenisa	-	X	X
Ohol-jauziak	-	X	-
Zaldiketa	-	X	-

Esgrima	-	X	-
Hockeya	-	X	-
Igeriketa	-	X	-
Mendia (mendia, eskalada)	X	X	X
Eskia	-	X	-
Eskubaloia	X	-	X
Saskibaloia	X	-	X
Atletismoa	-	X	X
Txirrindularitza	-	-	X

Datu hauek aztertu eta gero esan daiteke etapa guztietan badaudela hiru kirol praktikatuak izan direla, hoietariko bat banakakoa igeriketa, beste bat klubetan soilik zegoena eskia. Aipatutako azken kirol hori taldeka jolasten dena da, saskibaloia. Hirurak ES-ren zerrendan (emakumeentzako kirol egokienean) agertzen ziren nahiz eta saski-baloia beranduago sarturik izan. Etapa bitan, 2. eta 3.-an baita ere atletismoa agertzen da. Kasu honetan hasiera batean debekaturik zeudenen artekoa kirola izan arren denborarekin hedatu eta ezagutarazi egin zen.

Tenisa eliteko jarduera kontsideratu izan arren, 1. etapakokideak bereziki klubean eta klubean arteko txapelketetan parte hartzen zuen, jadanik 3. etapako emak.25-k hasiera batean aukera izan zuen instalazio publikoetan (Gurutzetakoan) jolasteko nahiz eta gero bukatu klub pribatu batean (Bilbainan). Beste guztiak etapa batean baino ez dira agertzen ikerketa honetan, baina esan beharra dago ezberdinak zirela beraien artean: banaka, taldeka, klubetan soilik egon, ikastetxetan.

3.1.12.1. Askotariko Jarduera Fisiko eta Kirolak Bizkaian.

Elkarrizketatutako andreen bizipenak kontutan hartzeaz gain, atal honetan urte horietan garrantzia izandako jarduera fisikoak eta kirolak aztertuko dira. Sailkapena egitean ordena kronologikoa mantendu da. Hau da, kirolak Frankismoan zehar agertutako epearen arabera sailkatu dira:

* 20ko hamarkada: golfa, tenisa, zaldiketa, eskrima, hockeya, igeriketa eta natur ekintzak (mendia, eskia eta eskalada).

* 50eko hamarkada: eskubaloia eta saskibaloia.

* 60ko hamarkadatik aurrera: atletismoa eta txirrindularitza.

* Erraketistak: kasu hau oso berezia da, kirol horren praktika ordainduta baitzegoen.

20ko hamarkada.

3.1.12.1.1. Golfa.

Lan hau egitean golf-jokalari bakarra aurkitu dut, emak.6, hain zuzen ere. Hala ere, hura goimailako jokalaria izan zen. Emak.6 Areetako golf zelaiaren ondoan jaio zen. Harrigarria da ikustea horrek haren etorkizuneko kirol-ibilaldian izango zuen eragina. “Había una higuera muy bonita al lado, en mi casa, y el terreno de...nos separaba del campo al terreno de mi casa, esta anchura (eta eskuekin keinu egin du)”. (emak.6). Bere aitak golf zelai horretan lan egiten zuen; mantentze lanetan ibiltzeaz gain, golf-irakaslea zen. “Mi aita profesor de golf”. (emak.6 kirolaria). Gaur egun bezala, urte horietan golfa gutxi batzuentzako kirola zen, baina hori ez zitzaion emakume honi inporta.

43. irudia: Emak.6 pilota astintzen.

Emak.6.



Emak.6k zorte itzela izan zuen aitak golf zelaian lan egiten zuelako, eta aukera primeran aprobetxatu zuen. Dena dela, ez dezagun pentsa bide erraza izan zuenik, berak esandakoa kontutan harturik lan mordoa egin behar izan baitzuen.

(...) de ocho horas a nueve igual al día. Yo vivía para el golf, vivía para el golf. Llegaba a casa a veces...yo lo mismo lloviendo, que con sol...Mi ama desde la ventana, porque claro el terrenito nuestro estaba pegando al golf. Elvi, que te estás hundiendo, y le decía yo, que no importa ama (...). Eso a las diez de la noche, en verano, ¡eh! Yo practicando taca-taca, serían las seis y cuarto o así y yo ya estaba entrenando, tiqui, tiqui, tiqui. Dirías tú pero si no habría luz, pero veía un tronco que era una luz al otro lado del río (emak.6 kirolaria).

Kirol ibilbidean zehar, hark emaitza oso onak lortu zituen. Berak emandako informazioari esker, hurrengo jakin dezakegu: “En el antiguo golf..., yo gané en Pedreña los cinco campeonatos de España.” (emak.6).

22. taula: Emak.6 golf-jokalariak irabazitako txapelketak.

GOLF TXAPELKETAK			
Nazioarteko txapelketa espainiar estatuko golf-jokalari amateurrentzat.			
Espainiar estatuko txapelketak.			
URTEA	LEKUA	TXAPELKETA MOTA	IRABAZLEA
1952	Pedreña	Emakumezkoa. Amateur.	Elvira Larrazabal
1953	Madril	Emakumezkoa. Amateur.	Elvira Larrazabal
1953	Pedreña	Emakumezkoak. Amateur.	Elvira Larrazabal
1954	Madril	Emakumezkoa. Amateur.	Elvira Larrazabal
1954	Pedreña	Emakumezkoa. Amateur.	Elvira Larrazabal
1955	Pedreña	Emakumezkoa. Amateur.	Elvira Larrazabal

Bere alaba jaiotzean, emak.6k agur esan zion golfari, haurtxoak bere atentzio guztia behar zuen eta (arazoak zeudelako).

44. irudia: Emak.6 golf-jokalaria.

Emak.6.



Elkarrizketatutako beste emakume batzuk gaur egun golfean aritzen dira, emak.22, emak.28 eta emak.30, besteak beste. Andre horiek guztiek golfa praktikatzen dute disfrutatzeko,

sozializatzeko edota sasoi onean egoteko. Askotan, lesioak izan eta gero, golfak aukera ematen zien jarduera fisiko bat egiten jarraitzeko. Datu hori bitxia da. Izan ere, arestian aipatutako kirolariak saskibaloia mundutik datoz, eta guztiak 50eko hamarkadakoak dira.

3.1.12.1.2. Tenisa.

Bizkaiko Tenis Federaziora egindako dei bati esker, ikerlan honetako lehen emakume tenislaria elkarrizketatzeko aukera izan nuen. Berak emak.17 da. Berak kontatu zidan urte horietan dagoeneko tenisa klub pribatuetan nahiko zabaldua zegoela. “Sí, pertenecía a un club, claro quizás por eso haya tenido más posibilidades que si no hubiese pertenecido a ningún sitio.” (emak.17).

Bizkaian, tenisa Frankismoaren lehen urteetan klub pribatuetan zabaldu zen. “Sí, sí, todo donde yo he jugado ha sido, salvo el primer tenis que era tenis ese que has visto que tiene una casetita, que era muy corriente. Luego ya Jolaseta, Landatxueta, Club de Campo, Deportivo, todo ha sido muy bueno”. (emak.2).

45. irudia: Emak.2 nebarekin Plentziako tenis klubean.

Emak.2 informatzailea



Aurreko argazkian ikus daitekeen moduan, emak.2 tenisean txikitatik aritu izan zen. Are gehiago bere neba bere tenis-bikotea zen.

46. irudia: Zenbait tenislari bizkaitarrak.

Emak.2 tenislaria.



Emak.26ren lehenengo urratsak bestelakoak izan ziren; Barakaldoko Udalak Gurutzeta auzoan zituen pista batzuetan hasi zen. “Gurutzeta estaba muy bien, tenía sus pistas de tenis, lo pagabas al año, como estaba subvencionado por el ayuntamiento pues estaba muy bien”. Nahiz eta laguntza ekonomikorik ez izan, jarduera fisiko horrekin jarraitu zuen. “Todo todo lo pagaba yo” (emak.26). Azken urteetan klub pribatu batean aritu zen, eta gutxira laguntza bat lortu zuen. “No, no, al final sí, al final sí me metieron en el Club de Campo y ya tenía que representar al Club de Campo, el de la bilbaína”. (emak.26).

47. irudia: Emak.26 partido batean.

Emak.26



3.1.12.1.4. Zaldiketa.

Bizkaiko eta Euskadiko Federazioekin kontaktuan jarri eta gero, gaur egungo presidenteak Fadurako zalditokian (40ko hamarkadan hor omen zegoen) lasterketak egoten zirela kontatu zuen telefonoz egindako elkarrizketa batean. Hura zaldizkoa izan zen garai batean. Zaldiketa munduan gertatu ohi den moduan, bertan emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrekin, bereizketarik egin gabe, aritzen ziren. Fadurako zalditegiko lasterketetan emakumezkoek parte hartzen bazuten ere, presidentearen hitzetan ez zen emakume bizkaitarrik egon. Antza danez, herrialdeko eta eskualdeko emakumezkoak zaldiz ibiltzen ziren, baina ez zuten ez lasterketetan ez txapelketetan parterik hartzen.

50. irudia: Zaldiketa eta emakumezkoen buruzko berria

La Gaceta del Norte, 1949-12-06.



3.1.12.1.4. Esgrima.

Carretero García-ren (2014) arabera, garai hartan jada esgrimaren irakaskuntza emakume batzuen artean hedatuta zegoen. Era berean, esan beharra dago XX. mendearen hasieran Bilbon esgrima-irakasle edota maisu oso garrantzitsu bat zegoela: Juan Suñé katalana. Hark eskola propioa zuen, eta, horrez gain, klaseak ematen zituen CDB / BCDn, Bilbaina Elkartean eta beste zenbait

lekutan. Hori guztia Ibáñez, Ruiz Idarragaren eta Zabalaren liburuan (1994) irakurri daiteke. Egia da ez dela emakumeei buruzko aipamen berezirik egiten; soilik informazio labur hau agertzen da: “En 1927, como fin de programa, se realizaron varios actos de exhibición, a cargo de Suñé, su hija Juanita, que era ambidiestra en el manejo del florete, y varios de los alumnos”. (Ibáñez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994:61).

51. irudia: Juan Suñé Juanita alabarekin.

Ibáñez, Ruiz Idarraga, Zabala (1994:61).



Kuriositate bat da ondorengo argazkia (Foru Aldundiko Artxibategian lortuta) XX. mende hasierakoa dena. Zoritxarrez, ez dago informazio handirik, eta ezin izan da jakin tiratzaileak nortzuk ziren, ezta beraien kirol lorpenak, adinak edota nongotarrak ziren ere ez.

52. irudia: Bizkaiko esgrima-tiratzaile batzuk, tartean emakume batzuk.

Foru Aldundiko Artxiboa, AL0018/0892.



Aurreko argazkia garrantzitsua da XX. mende hasierakoa izanda emakumeak agertzen direlako.

60ko hamarkadan, Deportivo klubean eskrimak oraindik lekua zeukan, nahiz eta azkenetan egon. Horrela, elkarrizketatutakoen artean tiratzaile bakarra izan da. Andre horren hitzak kontutan izanda, kirola libre eta ondo sentitzeko bide bat zen. Kirolari hori goi-mailara ailegatu zen eskrima espezialitatean. “Me permitía todo lo que fuera con deporte“ (emak.15 tiratzailea).

53. irudia: Emak.15, Espainiako estatuko txapeldunordea 1963an.

Emak.15.



Emak.15 esgrima-tiratzaileak beste zenbait kirol praktikatu zituen, baina batez ere aipatutako kirolean aritu zen. Egia esanda, esgrima ez da kirol oso herrikoa, eta gaur egun ere federazio mailan fitxa gutxi daude.

Emak.15i esker hurrengo lekukotasun grafikoa lortu nuen. Argazki hau guztiz interesantea da, bertan hamabi emakume tiratzaile (tartean emak.15) agertzen baitira. Hala ere, ezin izan da frogatu emakume horiek nongoak diren.

54. irudia: 1960. urteko Espainiako esgrima txapelketak.

Emak.15



3.1.12.1.5.Hockeya.

Bizkaian, emakumeak hockeya Getxo herrian praktikatzen hasi ziren XX. mendearen hasieran. Gobelondo izeneko zelaian jokatzen zuten. Gaur egun kirol hori ez dago herrialdean oso hedatuta. Lortutako informazio guztia jokalarari ohi pare bati zor diet, lan hau egiteko elkarrizketatutako emak.17Ari eta emak.18ri, hain zuzen ere. Bi emakume horiekin harremanetan jartzeko lehendabiziko urratsa Jolaseta klubeko idazkariarekin kontaktuan jartzea izan zen (ez zen erraza izan). Bigarrena, 2015eko martxoaren 5ean Bilboko Euskal Museo Etnografikoan izandako “Emakumea eta kirola” erakusketan hitzordua jartzea izan zen. Bertan, beste emakume birekin egoteko asmoa nuen, baina azkenean ezinezkoa izan zen.

55. irudia: Emak.17 eta emak.18en hockey materiala

Bilboko Euskal Museoko “Emakume eta kirola” erakusketan.

Bilboko Euskal Museoa (2015-05).



Aipatu bezala, goiko argazkian ikus daitekeen materiala elkarrizketatutako hockey-jokalarari ohi biena da.

56. irudia: Emakumezkoen Gobelondo hockey-taldea.

Emak.18



Gobelondon ateratako aurreko argazkian, emak.17aren eta emak.18ren zenbait senide daude. Hockeya “beraien odolean” dutela diote. Jolaseta kluba sortu aurretik jadanik zelai horietan hockeyra jokatzekoa zen. Kasualitatez, elkarrizketatutako bi andreen senideek jarduera horretan parte hartzen zuten.

57. irudia: Emakumezkoen Gobelondo hockey-taldea lehendabiziko partidetakoa batean.

Emak.18.



Beraz, ikusi dugunez emak.17a eta emak.18 informatzaileen familietan aurrekariak egon ziren hockeyan, Gobelondo taldean, zehazki. “Sí, mi padre jugó, mi madre jugó y mi hermano jugaba y una de ellas empezó...”. (emak.17). “Mi madre hizo hockey”. (emak.18).

Emak.17ak kirolarekiko zaletasuna etxean aurkitu zuen txikitatik. Etxean ikasitakoa bere bizitzara eraman zuen. “Pues porque mis padres han sido eran muy deportistas y siempre nos inculcaban el deporte desde muy pequeños nos tenían con la raqueta en la mano o llevándonos al barco de algún amigo para navegar un poco o pescar cualquier cosa”. (emak.17). Ondorengo argazkian haren ama agertzen da; XX. mendearen hasierako lehenengo hockey-taldeko erasotzaileen artean agertzen da.

58. irudia: Eraso-jokalariak, tartean emak.17aren ama.

Emak.17



Urte askotan zehar, Jolasetakoa Bizkaiko talde bakarra izan zen. “Nosotros aquí en Getxo, nosotros, y en Bizkaia era el único equipo”. (emak.18). Dena den, gaur egun oraindik ere hockeya kirolari gutxi daude.

59. irudia: emak.18 partida batean.

emak.18



Nahiz eta klubaren laguntza handirik ez izan, kirolari horiek taldea sortzea lortu zuten. “En la mujer nunca confiaba el club, ummmm, le daban mucho valor al hombre, al hockey de chicos. Y al hockey de chicas:vais a perder, vais a perder. Pero en este sentido nunca nos creían capaces de hacer algo...”. (emak. 18).

Hurrengo argazkian Jolaseta izenarekin jokaturako emakumezkoen lehen taldea ageri da. Emak.18 sortzailetariko bat izan zen.

60. irudia: Jolasetako emakumezkoen lehen hockey-taldea 1966an.

Emak.17



Jolaseta taldeak espainiar estatuan izandako askotariko txapelketetan parte hartu zuen. Bi finalera heltzeko gai izan zen emak.17Ak eta emak.18k jokatzen zuten urteetan. “Nosotras llegamos a jugar me parece dos finales...”. (emak.18).

61. irudia: Jolaseta taldea Espainiako estatuko txapeldunordea 1971n Vigon.

Emak.17



Emak.17ak zenbait partida jokatu zituen estatuko selekzioarekin. Beraz, nahiz eta Bizkaian jokalaria gutxi egon, esan dezakegu haien maila ez zela txarra.

62. irudia: emak.17 espainiar estatuko selekzioarekin Frankfurten, 1967an.

emak.17.



3.1.12.1.6.Igeriketa.

Bizkaiko Federaziora deitu eta gero, bertako idazkariari esker emak.5 andrearekin berba egiteko aukera izan nuen. Emakume horrek igeri egiten ikasi zuen Kordobako erreka batean.

(...) porque el río Guadalquivir ahora suele estar pequeño...teníamos que cambiarnos de ropa y todo eso, en el río...y mi padre cogía un bote, y yo cogía me tiraba al agua sin saber nadar, me agarraba de la cadena y luego iba por ahí...iba nadando...Bueno, pero luego con siete años aprendí a nadar. Un día que aprendí me tiré del puente romano. (emak.5).

Bilboko itsasadarra beste toki egoki bat zen igeriketan ikasteko, eta horrela taldera ailegatzeko aukerak agertzen ziren.

(...) porque la Náutica se fundó antes de hacer las piscinas y había un grupo bastante majo, ya te digo que a mí me cogió uno de la Náutica que me vió nadar en el dique y a la Naútica a nadar, donde hemos aprendido todos en Portugalete a nadar aquí en la ría. (emak.16).

Dena den, emak.16 informatzaileak nahiko goiz utzi zuen kirol hori. “(...) yo tenía trece años cuando vine a nadar a la Náutica y estuve hasta los quince o dieciséis años...”. (emak.16).

Emak.27 kirolariak igeriketa munduan emandako lehenengo urratsak pixka bat bereziak izan ziren; entrenatzaile batek igeri egiten ikusi eta entrenatzera gonbidatu zuen.

(...) porque había un entrenador pues que nos veía que íbamos todos los días y -¿no os gustaría ser nadadoras?- y tal. Y nos tiró allí a la travesía del Abra, unas mocos, yo siempre digo me tiré en Santurce y no metí la cabeza...Eso sería con doce años o así. (emak.27 saskibaloi-jokalaria).

Familiaren eragina jarraitzen du izaten, aurreko adibide argia da, nola emak.27 igeriketan hasi zen emak.28 lehengusinarekin batera. “Bueno, como ya he dicho mi padre era un eso...un entusiasta del agua y no sé que éramos socios de Jolaseta...y de de ir a la piscina pues yo creo que un entrenador nos vió y nos animó y al final ahí”(emak.28).

63. irudia: Emak.27 eta emak.28 igeri egiteko prest.

Emak.27.



Entrenamenduak amaitu eta gero, eskriman aritutako emak.15 andreak igeriketa praktikatzen zuen, baina ez zen lehiatzera heldu. “(...) entrenaba natación pero sin competir nunca, solamente cuando bajaba de esgrima pasaba por la piscina y nadaba, todos los días pero sin más.” (emak.15 eskrima-tiratzailea).

Aipatu dezagun emak.5ek igeriketa egin zuela urte askotan zehar. “Sí, antes del master ya había nadado mucho..., fuera de aquí y todo...”. (emak. 5), ”(...) pues fijate...toda la vida he nadado”. (emak.5 masterretako parte-hartzailea).

64. irudia: Emak.5 domina jasotzen master batean.

Emak.5



Igeriketan ibili zirenen artean, aipatu behar da emak.5ez gain beste batzuek masterretan parte hartu zutela. “He seguido nadando, jo, sí, hace unos años nos fuimos a un master de veteranas a Palma de Mallorca, cuatro me levanté y le dije :Mª Esther venga a la cola, qué años tienes, venga a la cola, y al final nos apuntamos cuatro y fuimos”. (emak. 16). “(...) y he estado haciendo luego campeonatos master, nadando con los master hasta hace siete años”. (emak.26 igerilaria).

65. irudia: emak.26 Abrako itsas-zeharkaldian

emak.26



Urteak pasatu arren emak.26aren ibilbidea igeriketa munduan ez zen bat batean moztu masterretan jarraitu bait zuen.

66. *irudia*: Emak.26 zeharkaldi batean parte hartzen.

Emak.26.



Kasualitatez, emak.16ak aipatzen duen beste igerilari hori hasiera batean kide izan zuen Portugaleteko Nautica-n. “(...) Empecé en la Náutica de Portugaleta, después ya vinimos al Club Deportivo porque teníamos piscina (...), “Cuando se cerró el Deportivo pasamos al Club Landatxueta...”. (emak.26).

CDB eta Portugaleteko Nautica klubez gain, Bizkaian denborarekin beste igeriketa klub batzuk agertu ziren, Landatxueta eta Martiartu, esaterako.

“En Jolaseta natación...El equipo femenino del Jolaseta pues llegó a ser campeón vasconavarro y entonces íbamos a los campeonatos de España...el entrenador con su coche o el padre de unos chicos y nos subía al Landatxueta porque Jolaseta no tenía piscina cubierta”. (emak.27).

Emak.29ak beste informazio bat eman zuen Bilboko igerileku batean entrenatzeaz gain, hura Gasteizera joaten zen baita ere. “Natación cuando me cogieron para participar y todo esto ya más en serio, hacía en Bilbao, en Artxanda y cuando ya me cogieron un poco para esto iba a Vitoria, entrenaba un tal Chuchi en la calle Dato. Un gimnasio que había con piscina pero era una de las calles (...). Yo iba a gusto a pesar de que tenía que ir tres días a la semana. (emak.29).

Zoritxarrez, ez zuen klub horren izena ezta bestelako argibiderik ere gogoratzen. Beste kasu bat emak.5ena da. Hura betidanik aritu da klub berean, eta gaur egun oraindik bazkidea da. Klub hori Martiartu da. “(...) te voy a decir...¿el club?. Hace cuarenta años, sí hace cuarenta años, ahora hemos hecho la celebración de los cuarenta años”. (emak.5).

Bertan, bere seme-alabek igeri egiten ikasi eta igeriketan entrenatu ziren: “Y luego pues aquí...mis hijos por eso nadaron, porque cuando comenzó Martiartu y eso yo les decía...-oye tenéis que nadar, eh-, y aprendieron a nadar...”. (emak.5).

Emak.26 igerilariaren kasua pixka bat ezberdina da, haurra zenetik hasi baitzen igeriketan. “Yo empecé desde muy niña con la natación, pero en Portugalete, en la piscina de Portugalete.” (emak.26). 60ko hamarkadan, emakume hori Bizkaian eta estatu osoan igerilari oso ona eta ezaguna izan zen.

67. irudia: emak.26k Arriluzeko itsas-zeharkaldian lortutako emaitzak.

Hierro egunkaria, 1966-08-29.



Bizkaian igeriketarako ohitura zuten klub bitan ibili zen. “Primero a la Náutica. Empecé en la Náutica de Portugalete, después ya vinimos al Club Deportivo porque teníamos piscina de invierno”. (emak.26).

3.1.12.1.7.Mendia.

Urteak pasa ahala, emakumea mendi txangoetan soilik laguntzaile izatetik elementu nagusi izatera igaro zen. Hau da, protagonista bihurtu zen. Hasiera batean gizon mendizaleen arreba edota emazteak baino ez ziren. Gure gizartean mendizaletasuna oso hedatuta dago gaur egun, baina andrentzako bidea poliki-poliki irekitzen joan dela argi dago. Dagoeneko argi geratu da Bizkaian Deportivo-ren eragina nabarmena izan zela. Horrez gain, Bizkaian bada mendiko jardueren esparruan garrantzia izandako beste klub bat: Juventus. Urte horietan, klub hori nahiko adierazgarria izan zen baita ere. “(...) Me fui aaaa, me dijeron que en las oficinas del Juventus estaban en la Avenida Mazarredo entonces pertenecía al Obispado, ahora ya no, me imagino porque ahora está en la Plaza Nueva...”. (emak.7).

Era berean, garai hartan Sagrado Corazón edo Veracruz ikastetxean kirol eskaintza nahiko zabala zegoen. “Pero también lo mismo entraron monjas nuevas sobre todo los últimos años del colegio entraron monjas jóvenes. Esas monjas consiguieron cambiar un poco y entonces había un club de montaña, los sábados y domingos si querías podías ir un día al Ganekoooo tal íbamos con una de las monjas que era muy montañera era navarra y le gustaba mucho y si querías te apuntabas.” (emak.27), “(...) Entonces aparte de que teníamos ahí un un colegio con monte alrededor que íbamos de excursión y eso...”. (emak.28).

68. irudia: Emak.27 mendian ikastetxeko zenbait ikaskideekin.

Emak.27



Ikerlan honetan dagoeneko agertutako ideia bat berriz errepikatu behar dugu: kirola ihesbide bat zen emakume askorentzat. Adibidez, emak.15 informatzailearentzat kirola (edozein kirol) egunerokoa alderatzeko aukera eskaintzen zuen ihesbidea zen.

Si yo tenía que estar a las nueve en casa porque había cualquier cosa de deporte mi madre me lo permitía. En cuanto a horarios incluso permitirme ir fines de semana, podía ser Madrid para los compeonatos como puede ser monte y montar tiendas de campaña, a esquiar. (...) monte estaba federada. (emak.15).

Emak.3 mendizaleak kontatzen zuen senarraakina, ez zuen horrelakorik astero egiten. 60ko eta 70eko hamarkadetan, mendi irteerak nahiko ohikoak ziren. Gaur egun, emak.3k oraindik ere noizean behin mendira joateko ohitura dauka (berak esanda), baina ibilaldi lasaiagoak eta, garai batekoekin alderatuta, ez hain luzeak egiten ditu.

Gure herrialdean, mendira joatea betidanik familiako jarduera bat izan da, hurrengo adibidean argi ikus daitekeen moduan:

“Yo con mi hermana la mayor que me llevaba cinco o seis años sí me iba muchas veces con ella al Gorbea, porque ella era montañera, aquella sí que fue pionera pionera, salió en la prensa y todo porque fue la primera mujer que hizo los quince tres miles de pirineos y así, y con ella solía ir al Gorbea” (emak.20).

Ingalaterratik bueltatzean emak.7 mendira joaten hasi zen, eta ohitura horri eutsi dio gaur egun arte.

(...) por ejemplo íbamos a pasear con aita y ama por Iturrigorri para arriba y subíamos un poco al monte, y esas cosas, aquel monte no sé cuantos, entonces empezamos a aprender un poco lo que había de ésta ambiente por aquí. (...) Cuando volví es cuando, lo que te he contado al principio queeee, un poco enterándome poco a poco de las cosas, pues que había clubes de montaña. (emak.7).

Mendiarekin maitemindu zenetik ez dio joateari utzi. “(...) y así empezamos ahhh, entonces es cuando me atreví a subir Artxanda, Pagasarri, Arraiz, Ganeko, me acuerdo la subida al Ganeko, Ganekogorta, que me parecía aquello, uauuuuu qué maravilla, entonces me empecé a enamorar de todo esto y ya siempre”. (emak.7). Mendian egiten diren beste zenbait espezialitate praktikatzen hasi zen. Adibidez, hurrengo argazkian eskalada egiten ikus dezakegu, “(...) escalada que no te he dicho también que hice un poquito”. (emak.15 tiratzailea).

69. irudia: emak.7 60ko hamarkadan Bulneseko Naranjon eskalaten.

emak.7



Gaur egun mendira joaten jarraitzen dute ikerlan hau gauzatzeko elkarrizketatu ditudan emakume batzuek, emak.15 atletak, emak.3 mendizaleak, emak.7 mendizaleak, emak.8 saskibaloi-jokalariak eta emak.20 saskibaloi-jokalariak, besteak beste.

Orokorrean denek diote mendira joaten segitu arren gaur egun distantzia txikiagoak egiten dituztela, eta intentsitate-maila ere baxuagoa dela.

3.1.12.1.8.Eskia.

Estatu mailan eskia nahiko hedatuta zegoen. Horri buruzko berriak aurki ditzakegu Crónica aldizkarian. Hala ere, emakumeei zuzenduta zegoenez, normalean albisteari kutsu femeninoa ematen zioten. Horrek garrantzia kendu ziezaiokeen kirolari, garrantzitsuena moda zabaltzea zela zirudielako.

70. irudia: Kirola egiterakoan “emakumea” izaten jarraitu behar

Soledad Obregon. Cronica aldizkaria (1930)

Eva
SUS caprichos
SUS elegancias
SUS extravagancias

W 30-GLORIA 1930-31.
NO HAY MAS QUE UN GLORIA
si buscas por medio Glorioso el mejor.


CRONICA

Berrogei urte beranduago, oraindik ere “emakumeentzako” aldizkari batean antzeko albiste

bat argitaratu zuten:

71. irudia: emakumea eta eskia.

Diana Negua (1972).



Bizkaian, eski zaletasuna XX. mendeko lehendabiziko urteetan hasi omen zen Ferrer familiako kideei esker. “Con sus hermanas Isabel y Concha practicó el esquí desde muy joven... este trío de hermanos puede considerarse el precursor del esquí vizcaíno, pues llegarían a ser los

iniciadores de esta práctica en la estación invernal de La Sía (Espinosa de los Monteros)”. (Granja, 2012).

72. *irudia*: emakumeak elurretan.

Avante, 30eko hamarkadan.



Club Deportivo Bilbao/Bilbao Club Deportivo-n, lekua egin zioten emakumeari eskiatzera joateko. “(…) Los esquiadores del Club gozaban de un gran prestigio entre los aficionados a este deporte, y en especial las mujeres, a quienes se reconocía su dominio en medio fondo.” (Ibáñez, Ruiz Idarraga, Zabala, 1994:72-73).

Dena den, CDB / BCDa ez zen izan mendizaletasuna zabaldu zuen erakunde bakarra. Ezin dugu ahaztu dagoeneko Bilbon mediko eta elurretako kirolak sustatzen zituen klub . Juventus zegoels. “(…) me dijeron que las oficinas del Juventus estaban en...dentro del Juventus había ciclismo, había esquí”. (emak.7). “Estuve federada para hacer monte con el Juventus”. (emak. 15). “Si teníamos un solo monte hecho con el Deportivo y queríamos hacer algún otro que no entraba el Deportivo lo hacíamos

s con el Juventus”. (emak.14).

73. *irudia*: Emak.7 Candanchun 60ko hamarkadan eskiatzen.

Emak.7



Eskiari dagokionez, emak.7 mendizaleak askotariko espezialitateak praktikatu zituen, berak utzitako argazkietan ikus daiteken moduan. Oso gustukoak zituen mendia eta, bereziki, eskia. “(...) pero el esquí, el esquí yo de cría me acuerdo que solía soñar esquiar por las nubes, salía de las películas y así, esquiar, uyyyyyyyy, por las nubes soñaba. (...) pero me enamoré del esquí”. (emak.7).

Nahiz eta eskia praktikatzeko materialik ez izan, moldatu zen behar zuen guztia lortzeko. “El esquí y esto, “no tengo esquíes”, “no importa se pueden alquilar”, no tengo botas ni nada de esto, hay unas botas que lo mismo valen para monte que para esquiar, fíjate cómo era aquello...cinco pesetas nos costaba un par de esquíes para el domingo” (emak.7). Emak.7k txapelketa batzuetan parte hartu zuen, eta emaitza onak lortu zituen.

74. irudia: Emak.7, 1972. urtean iraupen-eskia egiten.

Emak.7.



Elkarrizketatutako beste emakume batzuek eskia praktikatu zuten baita ere, baina ez zuten txapelketetan parte hartu, emak.7k egin zuen moduan. Kasu horietan, kirolaz gozatzeko baino ez zuten praktikatzen. “(...) incluso permitirme ir fines de semana...a esquiar”. (emak.15 eskrimatiratzaila), “(...) esquiar toda la vida, todavía he seguido esquiendo porque he practicado mucho”. (emak.23 atleta) , “(...) he practicado mucho, he practicado esquí”. (emak.17).

Eskiatzeaz aparte bazeuden elurretako beste zenbait modalitate, elur-erraketak, esaterako. Horrela, emak.7k neguko beste zenbait kirol praktikatu zituen, baina ez dauka horren argazkirik. “(...) así, sigo yendo a la nieve, raquetass...” (emak.7 informatzailea). Nahiz eta urteek aurrera egin, ez zuen zaletasuna galdu. “me enamoré del esquí además de la montaña” (emak.7).

Mendizale batzuek onartu egiten dute adinaren eragina. Izan ere, kirol batzuetan lesionatzeko arrisku handiagoa dago. Horrela, nahiz eta eskiatzen urte asko igaro eta eskarmentu handia izan, adin batera ailegatzerakoan beste gauza batzuk hartzen dira kontutan. “(...)esquí desde los veinte hasta hace muy poco”. (emak.16), “(...) he esquiado hasta hace muy poco ahora me da miedo porque si me rompo un hueso me descalbro para toda la vida”. (emak.16). Grabaziotik at, emak.8 informatzaileak dio gaur egun oraindik ere Pirinioetara askotan joaten dela eskiatzera eta

menditik ibiltzera. Hura ez da gaur egun oraindik eskiatzera doan informatzaile bakarra; emak.7 mendizale ohiak eta emak.23 atleta ohiak gauza bera baieztatu didate.

50eko hamarkada.

3.1.12.1.9.Eskubaloia.

Kirol horren inguruko informatzailea emak.24 izan da. Hura gaur egungo Bizkaiko Federazioko presidentea da.

75. irudia: Emak.23 partida batean.

Emak.2.



Goiko argazkian ikus daitezkeen kirol-instalazioak eta jokalarien arropak kontuan hartuta, argi dago kirol horrek garapen handia izan duela. Bestek beste, janzten dituzten alkandorak etxean egindakoak dira.

Bacigalupek (1986) eskubaloia aipatzen du. Pili Amigo-ri egindako elkarrizketa batean, autoreak saskibaloiaz hitz egiteaz gain emakume bizkaitar hori eskubaloi-talde batean aritzen zela dio.

76. irudia: Eskubaloi-talde bilbotar bat, 70. hamarkadan.


Emak.11.



Dena den, emak.24k ezin izan zuen argitu emakume bizkaitarrek eskubaloia noiztik praktikatzen zuten. Berak ez zekien federazioan horri buruzkorik daturik dagoen ala ez. Hala ere, lortutako datuekin praktika horren hasiera-data gutxi gorabehera kokatu dezakegu: XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadak.

77. irudia: Emakumezkoen eskubaloi txapelketa.

Hierro egunkaria, 1973-12-05.



3.1.12.1.10.Saskibaloia.

XX. mendeko garai hartan, saskibaloia Emakume Sekzioak emakumeentzat gomendatuko kirolen zerrendan agertzen zen. Ondorioz, saskibaloia gehien praktikatzen ziren kirolen artean zegoen.

78. irudia: Emak.27 partida batean saskiratzeko prest.

Emak.27.



1928. urtean, Bilboko Excelsior egunkarian emakumezkoen saskibaloitari buruzko lehenengo berria agertu zen.

79. irudia: Aldave saskibaloit taldea.

Excelsior egunkaria, 1928-03-07.



1948-1949 denboraldian, Bizkaiko ESaren taldeak lorpen handia erdietsi zuen, bigarren poztuan gelditu bait zen (Bacigalupe , 1986).

Urte batzuk lehenago Bacigalupek berak Pili Amigori egindako elkarrizketa baten sarreran aipatzen da emakume bizkaitar hori ESaren saskibaloia taldean ibili zela (eskubaloia taldean aritu zen baita ere). Jadanik, 1945ean Espainiako txapelketan txapeldunorde izan zen (Bacigalupe, 1986).

80. irudia: Emak.11 talde bateko entrenatzailea.

Emak.11.



Kirol horri bultzada ederra eman zitzaien 1950eko hamarkadan. Horren adibide argia da Bizkaiko Esne Zentralak, RAMEk, minibasketa eta haur-kategoriako saskibaloia sustatzeko egindakoa. Umeen Gabonetako Parkean txapelketatxo bat antolatzen zuen, eta oso garrantzitsua zen Bizkaiko saskibaloientzat. Era berean, espainiar estatuan minibasketa sustatzeko asmoa zegoen, eta arautegi propioa sortu zuten (1971) ES eta ‘Delegación Nacional de la Juventud’ erakundeek. (Espainiako Saskibaloia federazioa, 1971). Egia esanda, aurreko testuan ikus daiteke daborduko aldaketak ematen ari zirela; adibide argiena “niños y niñas” hitzak agertzen direla da. Esan daiteke hori nobedade handia izan zela.

Azkenik, 1959-1960 denboraldian senior mailako Emakumezkoen Bizkaiko I. Saskibaloitxapelketa antolatu zuten. Horrekin lotutako pasadizo bat ekarri nahi dut; txapelketan soilik talde bik hartu zuten parte. Hirugarren talde batek izena eman zuen, baina azkenean ezin izan zuen jokatu jokalaririk gehienak gazteegiak zirelako. Txapelduna Esclavas ikastetxeko taldea izan zen (Bacigalupe, 1986). Urte bi beranduago, 1961-1962 denboraldian, talde bera bigarren postuan geratu zen “XVI Campeonatos de Juventudes de Sección Femenina” direlakoetan. Denboraldi hartan txapelketa horren XVI. edizioa antolatu zela kontuan izanda, pentsa dezakegu lehendabiziko edizioa 1946. urtean jokatu zela.

Emak.22 saskibaloian hasi zen inguruan zituen pertsona gehienak kirolariak zirelako, eta bere ikastetxera irakasle berri bat ailegatu zelako, CF andereñoa (kasualitatez, andre hori elkarrizketatutakoen artean dago), hain zuzen ere. “Pues porque vino Carmen empezó a sacar equipos (emak.22). “(...) pero eran Carmen Fiz se llamaba la que daba baloncesto entonces yo siempre he hecho baloncesto en el colegio”. (emak.28).

Hasiera batean, Emakume Sekzioak espainiar estatuko kirol talde guztiak izen berarekin bataiatu zituen. Regidora Central de Educación Física delakoaren hurrengo gutunean irakur daitekeenez, aukeratutako izena Medina izan zen: “Por estas razones y su trascendencia política que se os razonaba en la Circular nº512 creamos los Clubs Medina y E.F.F.” (AGA C55 G2 Nº19). Jakina, Bizkaian izen hori zeukan saskibaloitxapelketa bat zegoen. “En la calle, en la calle, en el colegio. Luego empezamos cuando ya fuimos un poco más que pertenecíamos a un equipo, el equipo del SEU, Sindicato Español Universitario...”. (emak.8).

Lehenengo urteetan, erabaki horri esker gobernuak kirol guztiak kontrolpean edukitzeko aukera izan zuen: talde guztiak identifikatuta zituen.

81. irudia: Emak.22 baloiarekin.

Emak.22.



Ondorengo argazkian, emak.30 (lan hau gauzatzean elkarrizketatutako emakumetako bat) bere saskibaloit taldearekin agertzen da. Talde hori Kaixo B.C. zen, Bizkaian garai hartan zegoen emakumezkoen talde bakarra zena. “A nivel de Bizkaia después de éstas viejas glorias que has nombrado antes como Medina y tal...”. (emak.30).

82. irudia: Emak.30 Kaixo BCko taldekideekin.

Emak.30.



Ezin dugu ahaztu talde horretara heldu aurretik kide gehienak Medina taldetik pasatu behar izan zirela. “(...) siempre tenían que no sé por ejemplo cuando jugaban en Medina, ya te digo de la Sección Femenina...”. (emak.27).

83. *irudia*: Emak.27 Medina taldearekin partida batean 1972. urtean.

Emak.27.



“Baloncesto y volei, pues como te digo desde los catorce o antes a través de la sección femenina y ..., tenía que ir a participar a campeonatos nacionales a través de la sección femenina”. (emak.10).

Ondo ikusten da sistemak kirola kontrolpean izateko tresnak erabiltzen zituela. “(...) hicimos un equipito en educación y descanso”. (emak.10).

Emakumezko kirolarien garrantzia nabarmentzeko, ofizial bihurtzeko, 70eko hamarkadan sistema emakumezkoen esfortzua saritzen hasi zen.

Estatuan, hainbat txapelketa antolatzen ziren. Probintziaka egiten ziren, eta, nola ez, Bizkaia horien artean zegoen.

84. irudia: Bizkaiko saskibaloia selekzioa 1972. urtean I.

Emak.27.



Txapelketa horietan oraindik ere gonarekin jokatu behar zuten, baina, argazkiko jokalarien aurpegietan ikus daitekeen moduan, horrek ez zuen arazo handiegirik sortzen.

85. irudia: Bizkaiko selekzioa 1972. urtean II.

Emak.27.



3.1.12.1.11. Gimnasia.

Gimnasia izan zen ESak eta sistema berriak onartutako lehendabiziko jardueretako bat. Estatu mailan probak eta erakustaldiak egon ziren hasieratik. Horrela, espainiar estatuan federazio bat zegoen, arautegia ezartzearen ardura zuena (Federación Española de Gimnasia, 1953). Zoritxarrez, Bizkaiko Federaziotik ezin izan zuten informazio askorik eman, ez baitago horren inguruan ezer gordeta; ez dakigu gure herrialdean gimnasia noiztik, nola edota non praktikatzen den. Guztiz atseginak izan ziren, baina ez zuten ezer berririk kontatzeko aukerarik izan. Zorte pitin batekin Bilboko Udal Artxiboan C 17098 17 dokumentua lortu nuen. Bilbon gimnastika erritmikoaren hastapenak nolakoak izan ziren jasotzen du.

Aurreko dokumentuan, gimnastika erritmikoa Bilbon 1940. urtetik antolatu zela ikus dezakegu. Hurrengo irudian, berriz, Madrilen 60ko eta 70eko hamarkada inguruan izandako erakustaldi bat ikus dezakegu:

86. irudia: Emak.11 erakustaldi batean, Madrilen.

Emak.11.



Lan honen lagina sortzeko ez nuen profesionalki gimnasia praktikatutako emakumeekin hitz egiteko aukerarik izan, nahiz eta askok eskolan gimnasia trebatu zirela aipatu. Elkarrizketa-laginak

egiteaz gain, emak.1 elkarrizketatzeko parada izan nuen. Emakume hori Cadizekoa da, eta Emakume Sekzioaren kidea izan zen: “Sí, cuando terminé el Servicio Social seguí trabajando en la Sección Femenina”. Kirol Bideratzaile Orokorra izateko ikastaroa egin zuen El Pardo eskolan, eta gorputz hezkuntza munduan lanean hasi zen ikastetxe batean (...) ámbito era la Educación Física.”. (emak.1).

Hark kontatutakoa oso adierazgarria da, gimnasiarekin eta ESarekin harreman zuzena izan baitzuen. Garrantzitsua iruditu zait emakume hori lerro hauetara ekartzea, gimnasia erakustaldietan parte hartu zuelako. Espezialitate hori praktikatu zuen batez ere. “Sobre todo gimnasia”. (emak.1ek ez du data zehatzik ematen).

87. irudia: Bizkaian (zehaztu barik) neskek gimnasia-taula bat egiten.

Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.



60.ko hamarkadatik aurrera:

3.1.12.1.12. Atletismoa.

Frankismo garaian, ez zegoen ondo ikusita emakumezkoek kirol hori praktikatzea. Agosti, Emakume Sekzioko Kirol Regiduriako ideologoa, iritzi berekoa zen. Emakumezko gorputzak ezaugarri batzuk behar zituen atletismoarako, baina ez zen holan (Agosti, 1974). Nazioartean, atletismoan emakumezkoen lehen emaitzak biltzen dituzten datuak 1893. urtekoak dira. Hurrengo

artikuluan irakurri dezakegun moduan, espainiar estatuan XX. mendearen hasieran, frankismoa heldu aurretik, Gaztela eta Leonen 1929an eta Katalunian 1931n, emakumezko atletak zeuden.

88. irudia: espainiar estatuko zenbait atleta 30e. hamarkadan.

Cronica aldizkaria, 1930-03-09.



Frankismoak diziplina hori denbora luzean debekatu zuen, baina, kostata, azkenean atletismoa Bizkaira heldu zen. Horrela geratu da jasota Tutor Larrea-ren hitzetan (1994). Atleta bizkaitar horietako bat emak.25 da, ikerketa honetan elkarrizketatu duguna.

89. irudia: Emak.25 disko-jaurtiketa bat egiten.

Emak.25.



Goiko argazkian disko-jaurtiketa praktikatzen agertu arren, emak.25ek Bizkaiko errekor bat erdietsi zuen xabalina-jaurtiketan (Tutor Larrea, 1993).

Ironikoa dirudien arren, Bizkaiko Atletismo Federazioa 1917ko urriaren 3an sortu zen. Datu horrek esaten digu 46 urte pasatu beharko zirela erakunde horren barnean emakumeak onartuak izan arte. Askoz ironikoagoa dirudi Bilbon, 1920ko martxoaren 27an, Espainiako Atletismo Federazioaren lehenengo urratsak eman zirela jakinda (Ramos Lansorena, 2013). Tutor Larrea-k (1993) azaltzen digu gure herrialdean atletismoa nola eta noiz hasi zen. Arestian aipatu bezala, nazioartean emakumezko atletei buruzko lehenengo emaitza ezagunak XIX. mendekoak dira, 1893koak, hain zuzen ere. Estatuan, berriz, lehendabiziko datuak 1929an eta 1931n bildu ziren, Gazte eta Leonen eta Katalunian, hurrenez hurren. Hala ere, emakume horiek guztiek 1936. urtean atletismoa alde batera utzi behar izan zuten, urte horretan guda hasi baitzen.

Gure lurralde historikoari, Bizkaiari, dagokionez, atletismoa ez zen emakumeen artean 60ko hamarkadara arte zabaldu. Bizkaiko I. txapelketa Deustuko San Inazio estadioan egin zen (instalazio horiek urte batzuk lehenago, 50eko hamarkadan, inauguratu zituzten) 1963ko uztailaren 25ean (Tutor Larrea, 1993). Hurrengo modalitateak izan ziren: 60 metro, luzera-jauzia eta pisu-jaurtiketa. Partaideak hauek izan ziren: Inmaculada Celaya, Rosa M^a Riancho, M^a Begoña Arteche eta Begoña López de Viguri (ikerketa honetan parte hartu duen emakumeetako bat).

90. irudia: Elkarrizketatutako bi emakumeen izenak albiste batean.

Gaceta del Norte egunkaria, 1964-04-10.

En las féminas, ya es sabido, récord dominical para la "acaparadora" de Inmaculada, buenas actuaciones de Urrutia y Viguri y, sobre todas, ellas, la Juana de Arco de la mañana, la peque (también de Algorta señores). María José Ruiz que logra la plusmarca vizcaína de altura (anterior ella misma 1,27 metros), intentando luego la nacional (1,40 metros) fallando por un milímetro en el último intento, que le hubiera valido rebasado el 1,41—, ser la primera mujer vizcaína récordman nacional. Genio, decisión, mucha juventud, sólo son 14 años; hay que abrir un amplio crédito a esta Yolanda Balas de bolsillo.

Hurrengo argazkian agertzen diren zenbait kirolari 1963ko irailean Valladoliden izandako txapelketa batean egon ziren, urte berean San Inazioz parte hartu zutenekin batera. Getxoko Taldea bertan izan zen, eta irabaztea lortu zuen (Ramos Lansorena, 2010). Talde hori Bizkaiko lehenetarikoa izan zen, Galdakaokoarekin batera (Tutor Larrea, 1999).

91. irudia: Maria José Ruiz, Inma Celaya, Pilar Francisco eta Maribe Urrutia, Vizcaya Club eta Getxo Club taldeetako kideak, 1963ko Valladolideko Espainiako estatuko atletismo txapelketan.

Ramos, 2010.



Gazte horien artean, nazioarteko atleta izatera ailegatu zen emakume bat dago, hurrengoa gogoratzen duena: “(...) me acuerdo de haber ido a Portugal pero eso era ya con el equipo nacional a Francia”. Kirolari horren lorpenak (altuera-jauzian eta 80 metroko hesi-lasterketan) handiak izan ziren. Tutor Larrea jaunak emak.23ri idatzitako gutun pertsonal batean (atletak berak prestatutakoa) datu gehiago ematen ditu. “(...) en estas dos citadas especialidades logró alcanzar los correspondientes records nacionales. El récord nacional del salto de altura lo logró con un registro de 1.43m, el 27-5-1965 en San Vicente-Baraclado, y lo repitió como primado el 6-6-1965 en Fadura-Getxo...”. Hamalau urterekin hasi arren, marka ederrak lortu zituen. Hala ere, oso goiz esan zion agur atletismoari. “Atletismo... lo dejé muy pronto, cuando se mató mi padre...en el monte además, en el Balaitus, sí en Jaca”. (emak.23). 2014. urtean, Dimas Ramos Lansorena-k, Getxo Atletismo Taldeko entrenatzaile eta atleta ohiak, emak.23ren izena aipatu zuen Getxoko Algorta auzoan egindako elkarrizketa pertsonal batean. Ramos jaunak atleta horren ezaugarriak gogoratzen zituen, eta “oso ona” zela nabarmendu zuen.

Urte berean, 1963an, hilabete batzuk beranduago emakumezkoen saila sortu zen Getxo Atletismo Taldearen barruan. Lehen atletak M^a José Ruiz Oppitz, Maribe Urrutia, Raquel Velasco eta Maribe Onaindia izan ziren (Ramos, 2010). Horietako hiru (emak.9, emak.23 eta emak.14) ikerketa honetan agertzen dira.

92. irudia: Emak.14 San Inazioko pistetan.

Emak.14



Zoritxarrez, goiko argazkiko atletak, emak.14k, ezin izan zuen lehenengo txapelketan parte hartu, emakumeentzako jaurtiketarik ez zegoelako. Jaurtiketak debekatutako espezialitateen artean zeuden.

93. irudia: Emak.14ak egindako jaurtiketa baten berria.

Hierro egunkaria, 1967-08-29.



60.ko hamarkadan zehar, atletismoan gauzak aldatu ziren, eta gero eta neska gehiago hasi ziren jaurtiketetan parte hartzen.

94. irudia: Emak.9 zenbait taldekideekin.

Emak.9



Atletismoaren barruan krosa aipatu behar da. 1965. urtean emakumeentzako Bizkaiko lehen proba izan zen Jauregibarrian (Zornotza). Emakumezkoek 850 metro bete behar izan zituzten (Ramos Lansorena, 2013). Bestalde, Tutor Larrea-k (1999) 1964an Usansolon emakumezkoen lehen txapelketa izan zela aipatzen du.

95. irudia: Emak.21 kros batean.

Emak.21.



Orokorrean, krosa ez zegoen ondo onartuta, emakumeentzako egokia ez zela pentsatzen baitzen, emak.21 korrikalariak berak kontatu zuen bezala. “(...) me ví un poco desplazada porque hacía atletismo y yo creo que en principio el atletismo en la mujer no se veía como muy femenino...”. (emak.21.).

96. *irudia*: Krosa eta 'sexu ahula'.

Hierro egunkaria, 1968-01-03.

Antes, también hemos dicho que las féminas tendrán su carrera, y es hora de que en estos cross que se organizan en nuestra provincia las **atletas del sexo débil** participen en ellos, aunque, en verdad, son pocas las que en Vizcaya se dedican a este deporte y, por lo tanto, el número de participantes será muy reducido. La carrera para féminas se hará sobre un recorrido de novecientos metros y dará comienzo a las once de la mañana.

Los infantiles nacidos en 1953 y 1954 serán quienes participen en es-

Gogoratu dezagun Bostonen 1967. urteko maratoian emakume batek lehenengo aldiz parte hartu zuela. Hura Kathrine Switzer izan zen. Garai hartan emakumezkoek parte-hartzea debekatuta zeukaten (Mundo Deportivo, 2016).

1966. urtean, emak.19 igerilaria Hierro egunkarian agertu zen igeriketa eta atletismoa praktikatzen. Kirolari horren espezialitate nagusia igeriketa zen, baina, emak.19k berak esan moduan, urtebetean beste espezialitate batean murgildu behar izan zen, betiko jarduera fisikora praktikatzeko aukerarik eduki ez zuelako. "(...) el atletismo hubo un año que nos cerraron las piscinas, el deportivo cerraron por obras, entonces fuimos a hacer atletismo a las pistas de San Ignacio, fuimos un grupo de nadadores...mucho atletismo y hacíamos en pista y hacíamos cross para mantenernos..." (emak.19). Galdakaon, 1964. urtean neskentzako beste talde bat sortu zen. Ondorioz, hamarkada horretatik aurrera gero eta emakume gehiago ailegatu ziren Bizkaiko atletismora (Tutor Larrea, 1993).

3.1.12.1.13.Txirrindularitza.

Egia esanda, gizonezkoekin alderatuta txirrindularitza munduan ez da inoiz emakume askorik izan. Garai batean, lehenengo urratsak gaur egungoak baino gogorragoak ziren. Garai oso

zailak ziren emakumezko kirolarientzat. Izan ere, ikerlan honetan aipatu dugun bezala, emakumezkoen kirola ez zuten aintzakotzat hartzen.

97. irudia: Txirrindularitza familia osoarentzat.

La Gaceta del Norte, 1951-06-22.



Zorte handia izan nuen ikerlan honetan agertzen den emakumeetako bat elkarrizketatzeko. Hura, emak.13 da, betidanik bizikleta gainean ibilitakoa .

98. irudia: Emak.13 bizikleta gainean.

Emak.13.



Bizikletan ibiltzeaz gain, emak.13k aitari laguntzen zion txirrindula-tailerrean.

99. irudia: Emak.13 aitaren dendan.

Emak.13.



1999. urtean, Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira museoak “Euskal Txirrindularitzaren 100 urte” liburua argitaratu zuen. Bertan ez da emakumezko txirrindulariei buruzko informaziorik ematen. Salbuespen bi daude argitalpen horretan: publizitaterako egindako argazki bitan emakumeak agertzen dira (1957. eta 1965. urteetan). Hala ere, ez zituzten kirolarekin lotzen. Egunkarietako artikuluetan emakumezko txirrindulariak aipatzen zituzten, ikerketa honetan agertzen den emak.13, besteak beste.

100. irudia: El Correo Español.

Emak.13.



Kasu horretan, emak.13 Loroño txirrindulariarekin konparatzen zuten. Beraz, argi dago hura bizikletaren gainean ez zela bat ere gaizki moldatzen.

101. irudia: egunkari bateko artikulua bat, 1963-05-25

emak.13.



Neska izan arren aldapak igotzen oso trebea iruditzen zitzaien emak.13.

102. irudia: Emak 13 eta Loroño.

emak.13.



Zenbait prentsa emak.13ren alde jarri ziren. Arautegia aldatzea eskatzen zuten, gure informatzaileak munduko txirrindularitza txapelketan parte hartzeko aukera izateko. Hala ere, hori guztia ez zen nahikoa izan emak.13 urte horretako munduko txapelketan izateko. Izan ere, erregimenak ez zion baimenik eman. Emak.13ren desioa munduko txapelketara joatea zen, baina, zoritxarrez, ez zuen baimenik lortu ondorengo irudian irakur daitekeen moduan.

103. irudia: Munduko txapelketaren inguruan jasotako erantzuna.

Emak.13.

... de ciclismo, en la competición femenina.
Por otro lado los reglamentos vigentes de la Federación Española de Ciclismo, no autorizan a las mujeres para competir oficialmente en ciclismo en ninguna de sus modalidades de pista o carretera y por lo tanto no hay licencias de clase femenina, pero esto quizá siga así por no haberse interesado la mujer española en dichas actividades y dado el auge que va teniendo en el extranjero...

Egia esanda, pozgarria da ikustea zailtasun guztiei aurre egin eta gero, urteak pasa eta gero, eta seme-alabak izan eta gero, emak.13 txirrindulariak bizikleta gainean jarraitzeko gogo handiak dituela. “(...) prácticamente ahora yo entrenamiento no hago, lo que hago es andar más o menos

espacio y poco a poco poco a poco. En ese momento si tengo alguna cosa importante ya hago dos veces a la semana...”. (emak.13).

104. irudia: Emak.13 gaur egun bizikletarekin.

Emak.13



Lan honetan elkarriketatutako beste zenbait emakumek bizikletan ibiltzeko ohitura zutela esan dute. Hala ere, ez zuten maila profesionalean egin. Esaterako, emak.8k naturaltasun osoz kontatu zidan txikitatik normalean bizikletan ibili zela.

3.1.12.1.14.Futbola.

Espainiar estatuan emakumezkoek futbol munduan lehen saiakerak Bizkaian egin zituzten. 1970. urtean neska batzuk futboleari ari zirelako. 1971n, Guadalajaran ESaren probintziako arduradunak gauza bera egin ziren, oso kezkatuta omen zegoelako (AGA C54 G2). Ikus daitekeenez emakumezkoek interes berri bat zuten, futbolarekiko interesa, alegia. Kasu honetan berriz ere argi eta garbi ikusten da gai horren inguruan mugimenduko burukideek pentsatzen zutena. Emakumezko futbolarien kontrako iritzi ugari aurkitu ditugu, hurrengoak besteak beste: “(...) el público que acude a ellos para pasar un rato agradable riéndose de esta caricatura del fútbol y satisfaciendo unas entradas”. (AGA C54 G2).

Emakumezkoen futbola ez zen seriotasunez hartzen. “(...) sigue sin poderse tomar en serio el fútbol femenino... fines benéficos y muy parecidos a los partidos entre toreros y artistas, solteros

y casados, etc que nunca han constituido cosa digna de tenerse en cuenta". (AGA C54 G2).Emak.5ek (igerilaria) pasadizo bat kontatu zidan; neska batzuentzat futbola denbora-pasa bihurtu zen. "(...) he jugado al fútbol, en Martiartu hicimos un campeonato de fútbol entre mujeres..., era una cosa rara, era una cosa vamos...". (emak.5). Acisclo Karag-ek gizartean emakume futbolarien aurka hedatutako iritzia jaso zuen "La mujer no debe jugar al fútbol" artikuluan. Nahiz eta Frankismoaren azken etapan egon, 70eko hamarkadan oraindik ere emakumea ez zegoen futbol munduan ondo ikusita. "El fútbol es perjudicial, pues acrecienta los músculos, provoca la pérdida del encanto femenino. El fútbol femenino es antiestético y antideportivo". (La Hoja del Lunes, 1972ko abenduak 4).

105. irudia: 'La mujer no debe jugar a fútbol' artikulua.

AGA C54 G2 (3)1051/026.



Emakume futbolari batek idatzitako gutun batean argi ikus daiteke emakumezkoen artean futbola hedatzen jarraituko zela. "(...) hay tres deportes vedados, entre ellos el que yo particularmente practico, paso a indicar la frase es un espectáculo pirata, resaltando la palabra pirata". (AGA C54 G2).

Beraiek, momentu horretan futboleant aritzen ziren emakumeak, argi utzi zuten kirol hori oso gustura praktikatzeko zutela. “(...)se dice que pierde lo femenino y esto es inadmisibile por completo, puesto que quien no es femenina no lo será, con o sin practicarlo”. (AGA C54 G2). Gutun horretan, berak azaltzen du futbola kirol bat baino ez dela eta primeran sentitzen dela futbolera jokatzeko. Horretaz aparte, erabat ados zegoen ESak egindako lanarekin (behintzat hori idazten du). “(...) se despide una admiradora de su labor.” (AGA C54 G2).

Deigarria da ikustea ESak egindako lanaren aldekoa izan arren gutun berean idatzitako hurrengo esaldian gizartean emandako aldaketei buruz dioena: “El mundo evoluciona y las personas tenemos que hacerlo también” (AGA C54 G2). Irakurritako guztiari esker jakin izan dut emakumezkoen lehendabiziko futbol taldeak Bizkaian sortu zirela.

Erraketistak.

3.1.12.1.15.Erraketa (Erraketistak).

Orain arte aipatutako jarduera guztien artean, nabarmendu behar da bakarra zegoela profesionalizatuta, erraketistena, hain zuzen ere. Diru mordoak eta apustuak zeuden emakume kirolari horien inguruan. Gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ziren, baina frontoi gehienak Euskal Herritik kanpo zeuden.

Jesús Azurmendi jauna emakume erraketistei buruz aritu zen 2014ko azaroaren 18an egindako elkarrizketa pertsonal batean. Haren hitzetan Bizkaian ez zen emakume erraketista askorik egon. Ermua aldean bat edo beste egon arren, gehienak gipuzkoarrak ziren. Azurmendiren kontakizunarekin jarraituz, nahiz eta Euskal Herrikoak izan, emakume kirolari horiek gure mugetatik at aritu ziren batez ere: Bartzelonako Txiki-Alain, Madrilgo Rosales-ean, Madrilgo Principal frontoian edota Sierpesekoan (Sevillan). Bertan, erraketistei kantxatik ‘modu femeninoagoan’ mugitzen irakatsi omen zieten. Jende asko harritzen zen emakume horiek nola jokatzeko zuten ikustean; tenisekoak apurtzen zirenez, erraketetan altzairuzko sokak jartzen zituzten,

eta erabilitako pilotak oso biziak ziren. Horregatik, jokia azkarra eta ikusgarria izaten zen (Bizkaiko Foru Aldundia Euskal Herria Museoa, 2013).

106. irudia: Erraketistak Cedacos frontoian (Madril), XX. mendearen hasieran.

Euskal Museoa (Gernika, 2013-11).



Bartzelonako Moscardó jeneralak erraketistak debekatu nahi zituen, baina inbertitzaileak, frontoietako jabeak, haren erabakiaren aurka agertu ziren. Ondorioz, atzera egin behar izan zuen. Hala ere, 40ko hamarkadaren bukaeran fitxa berriak sortzea debekatu zen. Horrela, ezin zen pilotari berririk sortu. Madrilgo pilotalekuan, azken partida 1980ko uztailan jokatu zuten (Bizkaiko Foru Aldundia Euskal Herria Museoa, 2013).

“Harrobia Euskal Herrikoa bazen ere, bertan ez zuen arrakasta handirik raketisten jardunak...Are gehiago, batzuetan gezurretan ziren gurasoak eta Madrila edo Bartzelonara raquetista joandako alaba neskame joan zela esaten ez”. (Mujika, 2015). Bizkaitarren artean bi izen ditugu: Mari Garate eta Begoña Ereñaga. Biak Durangokoak ziren (Urrutia Sagastizabal, 2009).

107. irudia: Begoña Ereñaga “Begoña”.



Urrutia, Sagastizabal (2009:34).

108. irudia: Mari Garate “Garate”.



Urrutia, Sagastizabal (2009:35).

Azurmendi jaunak berak esanda, 70eko hamarkadan Bartzelonako “El Noticiero Universal” egunkarian berri bat agertu zen emakume erraketistei buruz. Tamalez, hark ez zuen data zehatzik aipatu, eta ezin izan da lortu. “(...) no eran bellezas en la cancha, eran grandes pelotaris y además guapas”.

Gernikako Euskal Museoa kontaktatu pare bat lortu ziren erraketista ohi birekin hitz egiteko. Zoritxarrez, ezinezkoa izan zen emakume horiek elkarrizketatzea. Horregatik, garrantzi handikoa izan da Azurmendi jaunaren testigantza.

3.2. DIMENTSIO SOZIALA

Dimentsio honetan informazioa hurrengo kategorietan aurkeztuko dugu: agente sozializatzaileak, emakumeen lanbideak, gorputz Hezkuntza eta kirol praktika eskoletan, kirol praktika eskolatik kanpo, eta kirolarien arteko harremana.

3.2.1. Agente sozializatzaileak.

Nolako zen emakume kirolarien bizitza, garapena eta amaiera, haien traiektoria?. Zergatik uzten zioten kirola egiteari?. Nork bultzatu edo lagundu zien kirolaren hastapenean? Agente sozializatzaileen eragina: familia, lagunak, irakasleak, entrenatzaileak, beste batzuk...?. Kirolarien arteko harremanak: lagunak, bikoteak...

Orduan, gente sozializatzaileak kirol munduan emakume hauentzako dira:

- Familia
- Lagunak
- Irakasleak, entrenatzaileak

Beraiei esker andra hauek kirolean aritu ziren, segitu zuten baina (eta hau oso berezia da) babesturik sentitzen ziren jarduera hauetan jarraitzeko. “La verdad es que yo no puedo decir nada negativo porque no, porque en casa me han apoyado”. (emak.24). Kirolariz inguratuta egoteak, izateak asko laguntzen zuen (mak.18)

Irakasle berriekin kirolak eta jarduera fisikoak antolatzeko lagungarria zen.“...monjas consiguieron cambiar un poco y entonces había un club de montaña, los sábados y domingos...” (emak.27)

3.2.2. Emakumeen lanbideak.

Garapen bat ikusi daiteke puntu honetan, alde batetik elkarrizketaturiko andren amak gehienak ez zuten etxetik kanpo lan egiten. Bestetik, garapen honekin informatzaile askok lan

egiteko (etxeokandrea izateaz gain) aukera izan zuten eta gainera hoietariko lan askok ardura inportantearekin.

Egin diren taldeak emakumeak egindako laneekin hauek dira: Administrarritza eta Idazkaritza, Dendetan, Osasuna munduan, Irakaskuntza eta Kirol munduan, Emakume Sekzioan. Guztiak erlazionaturik daude tradizionalki emakumeentzako “femeninoenak” diren lanekin. Hau da, besteen zaintza (osasuna), umeak eta jendeari irakatsi eta kultura transmititu (kirolean eta irakaskuntza), dendetan, administrarritzan laguntzaile legez. Orduan garapena nabaria dago gero eta emakume gehiago lanean hasi zirelako, bereziki 3. etapakoak. Aldaketa hasita zegoen jadanik 2.ean. Etapa honetako beste ezberdintasun bat da gehiengoa irakaskuntza biltzen dela.

23. taula: *Informatzaileen lanbideak.*

INFORMATZAILEEN LANBIDEAK (Etxetik kanpo)	GUZTIRA %etan
Administrarritzan, Idazkaritzan	%30
Dendaria	%14
Osasuna	%10
Kirol munduan, Irakaskuntza	%30
Emakume Sekzioan	%4

Idazkari modura edota administratiboak etxetik kanpo izandako lan bakarra izan da hainbeste informatzaileentzat. Planteatutako etapa guztietako andrak daude. “ (...) para entrar de contable...seguí siendo la contable hasta ahora.. “ (emak.23). “(...) aprendiendo a contestar el

teléfono...Como en el colegio también habíamos hecho los últimos seis meses taquigrafía y mecanografía...me empleé.. (emak.7)

Emakume 13-ak banku bateko bulegoan egon aurretik beste urratsak eman zituen eta hara ailegatu zen formakuntzarik gabe, beste garai ziren, nahiz eta bere garaikide batzuk jadanik lanerako prestakuntza bat izan, aurreko lerroetan irakurri den bezala: emak.13, emak.23, emak.19, emak.7. “(...) de ama de casa hice menos...a los 18 años...Limpiaba un banco, además de tener una tiendita que mi padre tenía, hicimos un apartadito en el garage de bicicletas...Para terminar soy jubilada del BBV pero terminé los últimos doce años de cajera” (emak.13)

Dendariak.

Badaude dendariak izan direnak, bi denboraldi baterako baino ez zen izan. “(...) de ama de casa. Trabajé también en una tienda pero unos meses, un año, pero básicamente ama de casa” (emak.17).

Beste bikote batentzako bizitza osoa, emak.11, edota urte askotan zehar, emak.15, lan honek iraundu zuen. “(...) a buscar una tienda...Salvadora...yo tenía que vender como una loca...de encargada y de modelo” (emak.11). “(...) he sido dependienta de carnicería veinte años y otros veinte he estado en la limpieza de Cruces” (emak.15)

Osasunarekin erlazionaturik.

Sendagile bakarra dago talde honetan, eta ikasketak bukatu arte medikuntzarekin loturiko lanpostuetan ibili ziren beste bi. “Cuando estudiaba daba clases a otros niños...de secretaria en un hospital. Estuve de secretaria hasta que acabé la Carrera. Luego he trabajado de médico en un colegio, en una mutual, ahora soy médico de Osakidetza” (emak.27). Are gehiago, osasunarekin erlazionaturik andra batzuk lan egin dute. “(...) he trabajado siempre de enfermera y con un cirujano en quirófano”. (Memak.18),

Kirol-munduan edota Irakaskuntzan.

Emakume hauetariko askok modu batera edo bestera kirol eta jarduera fisiko mundura ailegatu eta kokatu ziren beraien lan-bizitza garatzeko, . Beraien formakuntza akademikoa ez izan arren mundo horrekin harremana.

(...) por mis estudios he trabajado basicamente en archivos y bibliotecas a través de diputación en el ayuntamiento de Gordexola inventariando..., una compañera del Kaixo se lesion el año que estuvimos en primera division la primera vez se hizo, se rompió la rodilla se hizo la famosa triada y ella estaba dando clases de gimnasia para el ayuntamiento a través de algo que se llamaba entonces “Club escolar”, no había ..., me metí a cubrirla..., dar clases a colegios inicialmente..., grupo de gimnasia de mantenimiento de señoras pues también... , había que hacer una empresa para contratar..., la empresa que es a la que yo he pertenecido desde el principio..., GUEDAN y me hice cargo yo de todo el tema de inscripción a cursillos y demás..., .mi labor pasó un poquito más de gestión y esto hace la friolera de 26 años.. (emak.30). (...) luego el deporte ha abierto otros caminos como el trabajo, no sé que pues bueno. (emak.28)

Elkarrizketaturiko emakume batzuen bide profesionalak hortik joan dira, jarduera desberdinetan parte hartuz gero, nahiz eta kirol munduarekin erlazionaturik ez izan arren.

(...) cogí por una parte las clases de curso de manualidades dentro del colegio alemán y la escuela de Magisterio, y después saqué oposiciones del ayuntamiento de Bilbao como encargada del area de educación de todo el deporte de Bilbao...y ahí he estado pues. (emak.16).

“He sido monitora de tenis, monitora de atletismo y todo lo relacionado con el deporte y trabajo también para Bilbao Kirolak” (emak.24)

Informatzaileen artean irakaskuntza beste aukera bat izan zen lanerako. “Sí, me he jubilado siendo maestra”. (emak.20), “.(...) profesora de música”. (emak.8)

emak.29 irakaslea izan da, Madrilgo INEF-ean ikasi zuen beste gauza batzuetaz gain, bere azken urte hauetan, erretiro berezia 2015 urtean eman zioten. “(...) estuve trabajando con un abogado...oposiciones de oficial...trabajando en el juzgado...pedí la excedencia y me metí en listas de enseñanza”. (emak.29)

Kirol munduan lanean egon direnak badaude.

En centros privados y en centros oficiales.Siempre como profesora de educación física previamente de gimnasia. Sí, pero previamente en círculos de juventudes trabajé muchos años...sin cobrar. A prepararles estos campeonatos de gimnasia...en un centro privado o en centro público y luego llevando muchos deportes en los centros.. (emak.9)

Sei emakume kirol munduarekin erlazionatuta dagoen lana dute edo izan dute. Gorputz Hezkuntza irakasleak, kirol-denda, kirol desberdinen inguruan klaseak, kirol-antolakuntzan, kirol-gestioan.

Elkarrizketatuak izan direnen artean Bilboko Udalerako kirol-lanetan ibili ziren batzuk: kirol-begiraleak eta arduradunak, Bai gaztetasunean Emakume Sekzioak kontrolatzen zuenean hau Bilboko Udalean bai hoietariko bat erretiratu arte antolatzailea bezala, (emak.8). 1. etapakoak hirurak dira eta guztiak era batera edo bestera Emakumei Sekziokideak. Horri esker beraien formakuntzak hasi eta jarraitu zuen. Baina horrez gain, informatzaile batzuen gaur egungo lanbideak kirolarekin erlazionatuta jarraitzen du izaten(tenis-begiraleak, enpresa bateko arduraduna). Iadanik erretiratuak daude GH irakasle batzuk bazeuden ere.

109. irudia: Elkarrizketatutako emakumeak lanean

Bilboko Udal Artxiboa Q-13-74

I N F O R M E
IB/RB

ILMA. SRA. ALCALDE

Tengo el honor de poner en conocimiento de V.I. que DON JUAN ANGEL BORBUJO (Delegado General del Club Escolar Bilbao) y la Srta. MARIA CARMEN SAPPÍA (Delegada de la Sección de Chicas del mismo Club) elevan nota de los emolumentos que se les debe por servicios prestados al Club Escolar Bilbao, durante los meses de setiembre, octubre, noviembre y diciembre del año 1.974 y enero y febrero de 1.975, según relación que se cita:

- JUAN ANGEL BORBUJO	GIMNASIA
- JOSE LUIS GARCIA	ATLETISMO
- CARMELO ECHIVARRIA	BALONCESTO
- JOSE BEBILIA	"
- DANIEL AMIGO	BALONMANO
- JUAN GOVILLAR	NATACION
- AGUSTIN ORAA	FUTBOL
- ALBERTO LUBIAN	"
- LUIS DIAZ	"
- JOSE ANTONIO MENDEZ	AJEDREZ
- JOSE ANTONIO MONTERO	MUSICA

Las gratificaciones de los monitores será de:
1.500,- ptas mensuales, por 9 meses = 9.000,- ptas cada monitor
9.000,- ptas por 11 monitores = 99.000,- ptas total

MARIA CARMEN GANAN	GIMNASIA TENIS DE MESA
MARIA TERESA GANAN	BALONCESTO
M. VÁZQUEZ	MINI BASKET
BEGONA GARUS	BALON-MANO
TEOFILA GONZALEZ	VOLEIBOL
BEGONA REDONDO	NATACION y VOLEIBOL
AELICIA NICODAS	BALONCESTO
M ^a CARMEN SAPPÍA	DELEGADA

En el mes de febrero cesa M. Vázquez y comienza ELISA RUIZ DE ARCAUTE.- VOLEIBOL y CARMEN FID GIL.- BALONCESTO.

Al igual que los monitores la gratificación es de 1.500,- ptas mensuales, por 9 meses 9.000,- cada monitora.
9.000,- ptas por 9 monitoras = 81.000,- ptas total.

Por lo tanto estima la suscrita que debe hacerse efectiva estas sumas, librándose a Don Juan Angel Borbujo la cantidad de 99.000,- pts y a Dña. M^a Carmen Sappia la cantidad de 81.000,- ptas con cargo al Capítulo 2 Artículo Único Concepto 4 del Vigente Presupuesto de Gastos, con el fin de que los Delegados del Club Escolar Bilbao, hagan

Urteak joan ahala aurreko irudian agertzen direnen arteko emakume batzuk irakaskuntzan

bukatu zuten:

*emak.10-ek etorkizunean elkarrizketaturiko beste andra batzuen irakaslea izango zena, hain zuzen ere emak.28, emak.26 eta emak.27-rena.

*emak.16. Bere izena ES-ko arduradun gisa agertzen da. Bilboko Udalarentzat kirol arduradunaren lanpoztuan eman zituen, erretiratu arte. Honekin batera, Magisteritza Andra Mari Eskolan klaseak ematen, Plastika gaiar bait ekin erlazionaturik kasu honetan

*emak.10 eta bere ahizpa bikiarekin ES-ak antolatutako kirol-ikastaro guztietatik INEF-eko titulazioa lortu arte bidea egin zuten. Zoritzarrez bere ahizparekin ezin zela hitz egin osasunez ondo ez zegoela argudiatu zuten.

Emakume Sekzioa.

Emak.1 andereñoa agertzen da ikerketa honetan gimnasta eta ESkidea zelako (bizkaitarra ez izan arren) eta bere ekarpenak oso aberasgarriak ziren: berak bere bizitzan zehar urteetan lan egin zuen erakunde honetan, ES-an. “(...) uff, mucho tiempo, no me acuerdo, años...”. (emak.1)

Baina Bilboko Udalarako, jadanik aipatutakoa da hau, emak.16 ES-ren izenean lan egiten zuten-Elkarrizketaturiko emakume batzuk (emak., emak.10, emak.16). Elkarrizketaturiko emakume hauetatik , 30 ziren, hamabientzako beraien lan nagusia etxekoandrearena izan da. Horietatik bat lanean hasi zen dibortzioa eta gero, emak.24ak bere lana lotuta dauka kirolarekin. Beste batek bere bizitzaren zati oso handi bat konbentoetan pasa zuen gaur egun ezkondata egon arren, emak.4. Bizitza osoa etxetik kanpo lanean ibili direnen artean aipatu beharra daude hurrengo dato hauek:

Nire denbora-plateamendua oinarri bezala hartuta 1940. urtean baino lehenago jaio zirenen artean ozta-ozta erdiak etxetik at lan egin dute beraien bizitzan zehar baina hau denborarekin aldatuz joan zen. Urte horietan emakumeentzako zailtasun gehiago zeuden lan egiteko eta erdia baino ez ziren langileak (haudan etxekoandrearen paperaz aparte). Baina 1941-1949 urteetan jaiok (gure informatzaileak) zirenentzako gauzak pixka bat aldatu ziren, kasu honetan zazpikote batek lan egin zuen (etxetik kanpo). Hirugarren eta azken denbora zatian (1951-1959) andra GUZTIAK lan egiten dute. Hau ez da tontakeria, independentzia ekonomikoa iraultza ederra izan delako emakumeentzat, bereizgarri importante bat ikerketan planteatutako etapak desberdintzeko, urte horietan zehar emandako aldaketak ikusten, ulertzen laguntzeko.

3.2.3. Gorputz Hezkuntza eta kirol praktika eskoletan.

Frankismoaren haiseran ikastetxe, zentro gehienetan klase hori, Gorputz Hezkuntza, sikiera ez zen esistitzen. “Yo cuando era alumna no he tenidooooo”.(emak.10). “No, no en la escuela nunca tuvimos”.(emak.11).

Eskolari buruz hitz egiten genuenean EZER ez zutela GH klaseetan esaten zuten hainbeste informatzaileak, bereziki frankismoaren 1. eta 2. etapakoak . Eskaintza gehienak bazeuden ikastetxe pribatuetan, bereziki Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Eskerrak gero eta irakasle gehiago zeuden, eta irakaslego horrek gero eta formakuntza hobe zuen; horren ondorio nabarmena izan zen nola urte batzuetatik beste batzuetara aldaketa itzelak egon zirela, planteaturiko etapetan ikusi daiteken legez.

1940. urtean jaio baino lehenago: klub pribatuetan, Emakume Sekzioko taldeak eta ikastaroetan egon zirenak baietz aukera handiago izan zutela. 1941-1949 urteetan jaio: gauzak aldatzen joan ziren eta bukaeran, frankismoaren azken denboraldian 1950-1959 urteetan jaio ziren emakumeentzako onenak izan ziren, kirol aukera gehiago, GH formakuntza hobe eta beste bide batzuk ireki berriak.

24. taula: Gorputz Hezkuntza eta kirol-praktika eskoletan.

ezer ez	gimnasia, taulak, martxak	saskibaloia, eskubaloia eta kirol gehiago	
3	5	0	1.Etapa
2	6	5	2.Etapa
0	5	3	3.Etapa

Beste erantzun batzuekin gertatzen den legez informatzaileak ez dute bakarria ematen, beraien esperientzietaz hitz egiterakoan bizitzan zehar, urteetan zehar gertatutakotaz mintzatu ziren. Batzuk gimnasia eta kirolak izan zituzten, edo ezer ez. Egia esanda, ezin da ahaztu nola lehenengo zutabeen, EZER EZ egiten zutela zenbaki altuena agertzen dela 1. Etapekideen artean, 3 hain zuzen ere, proportzio hau gutxitzen doa 2. Etaparekin non 2 emakumeentzako baino ezinezkoa izan zela zerbait egitea eta bukaerara ailegatzerakoan, 3.-era izugarri aldaketa dagoela ezin alboratu bertan

elkarrizketatu nituen emakume guztiak Gorputz Hezkuntza edota Kirola eskoletan, ikastetxeetan izan zuten.

Antolatu dezakegu guzti hau hiru ataletan: Gimnasia, Gimnasia-taulak (ariketa-ohikeriak), Kirolak.

1). Gimnasia. Hasierako lan garrantzitsuena zen hau. Lehenengo momentuetatik eman ziren aportazio berriak, tendentzia eta autore, egile desberdinen eragina jaso zuen honek, nahiz eta hasierako uneetan Gimnasia Suediarretan oinarritu. Urte luzeetan zehar gimnastika militarra gorputz heziketa klaseetarako oinarria izan zen. “(...) una sala grande donde hacíamos la gimnasia” (emak.21).

Gimnasia pixkanaka zabaldu zen. “Pues nada, la gimnasia que se hacía cantando..a campo quemado que se jugaba con una pelota” (emak.15). “(...) típicas tablas de gimnasia cuando era la fiesta de final de curso...volteretas, voltereta lateral” (emak.30).

Gimnasia mota hori egiteko estatu osoan zehar era berberan ES-tik argitaratu ziren liburu - testuak irakasleok erabili zituzten.

(...) todo a bases de movimientos de brazos, de piernas, pero todo muy suave, muy formalitas, luego había algún otro tipo de actividad deportiva. Yo, por ejemplo, me recuerdo haciendo con diferentes marchas un caracol, íbamos haciendo un caracol con distintas marchas andando de puntillas o de talones cosas de esas muy sencillas. (emak.20). (...) pues la gimnasia normal, estirar los brazos, bajarlos y nada más. (emak.6)

2). Gimnasia-taulak.

Emakume hauek beraien klaseetan guztiak gimnasia, gimnasia-taulak ezagutu eta praktikatu zituzten. ES-ak argitaratutako liburuetan agertzen ziren plangintzak emakume hauen ikastetxe guztietan aurrera eramane ziren. Lan aspergarria, itsusia, errepikakorregi, hotza. “(...) Luego ya se implantó un poco la música... era gimnasia un poco más rítmica...existía la tabla de primero, la tabla

de segundo” (emak.16). “(...) bajabamos al patio y hacíamos una tabla, cuando la hacíamos” (emak.23)

Argitaratutako testu hoietan gimnastika-taula desberdinak zeuden sexuen arabera, kurtsoen arabera, adinaren arabera. “Uno, dos, tres, era horrible, era la típica de la sección femenina, yo iba al instituto de Bilbao y recuerdo que teníamos gimnasia y deporte, hacíamos baloncesto y gimnasia y...Una tabla pero una tabla totalmente estática y aburridísima” (emak.24). “(...) te ponía en filas asííí una detrás de otra y te enseñaba las tablas “(emak.19)

3). Kirolak.

Urteak joan ahala, zentro batzuetan aukerak agertzen joan ziren. “(...) colegio con monte alrededor que íbamos de excursión y eso, sí que teníamos las clases de gimnasia peor luego teníamos... diversos deportes y que podías hacer pues baloncesto, balonmano...”. (emak.28)

Talde-kirolak praktikatzen hasi ziren baina gimnasia ahaztu gabe, bere lekua okupatu zuen urteak eta urteak. “(...) llegó a haber un equipo de baloncesto...Sí había grupitos de gimnasia que solían ir a a alguna representación o alguna competición en otros colegios” (emak.18). “(...) prácticamente jugar con la pelota a baloncesto, campo quemado...en gimnasia...” (emak.15).

Dakigunez, ikastetxe publiko eta pribatuetara andra hauek, klaseak ematen zituztenak ESan formatuak zirela, gehienak pribatuetara, mojenak zirenen hoietara joanda ziren. Alde batetik, andren esperientziak ezagutu eta gero ulertu daiteke kirol-praktikan aldaketak eman direla frankismoan zehar, segun eta frankismoaren momentua eta emakumeen jaiotze-datak oinarriztat hartuta hasiera bateko gehien praktikatzen ziren jarduerak banakakoak ziren: eskia, golfa, mendia, , tenisa.

Bestetik, ikerketa honetan planteatu diren 3 etapetan lortutako datuekin saskibaloia eta beste jarduera batzuen agerpena argi dago. Jende gutxik parte hartu arren hasiera batean gero eta zabalagoa izan zen, frankismoaren bukaera ailegatu arte. Egia da ESaren garrantzia ezin alde batera utzi, urte askotan zehar beraiek andra guztientzako kirola zabaldu nahi zutelako. Eta beraiei esker

lehenengo saskibaloia, boleibol eta eskubaloia taldeak Bizkaian sortu ziren (emak.18; Bacigalupe , 1986).

Lehenago, kirol-taldeen agerpenaren eztanda izango zen hockeya (jende gutxi eta klub pribatu batean baita ere, Jolasetan), eskubaloia eta saskibaloia, ikerketa honetan gehien errepikatzen dena da. Azalpen bat egon daiteke, emak.30k, emak.27k eta emak.28rekin (saskibaloia jokalaria oihekin) kontaktuak lortu ziren. Hirurak saskibaloia munduan elkarezagutu bait zuten.

Ikastetxe pribatuaren papera erabakigarria izan zen gure herrialde mailan, Bizkaian hainbeste ikastetxe eta bertoko irakasle batzuei esker neskeen artean kirola hedatu zen.

De nuevo, al igual que sucede en el deporte escolar masculino, los centros religiosos de la provincia son los principales impulsores del deporte escolar femenino, gracias a sus mejores instalaciones, a contar con un profesorado preparado y a una gran dedicación, y a integrar la práctica deportiva como un elemento más... (Pastor Ruiz, 2002:86).

Aurreko autore berberak, Pastor Ruizek, zentro bizkaitar hoiien zerrenda bat ematen du. Zerrenda honen garrantzia datza ikerketarako emakume gehienak ikasitakoak ziren ikastetxe hoietariko batzutan. Sagrado Corazón de Bilbao y de Algorta, Irlandesas de las Arenas... Vera Cruz de Lujua...La Pureza de Bilbao (Pastor Ruiz, 2002:86). Ikastetxe hauetatik klub desberdinetara kirolariak pasatu ziren eta batzuk lorpen ederrak lortu zituzten, besteak beste emak.27, emak.30, emak.21.

3.2.4. Kirol praktika eskolatik kanpo.

Klaseak bukatu eta gero kirol aukerarik bazeuden neskeentzako?. Zer egiten zuten andre hauek eskolatik kanpo kirolarekin erlazionaturik?. Hurrengo taulan non zegoen eskaintzarik ikusi daiteke.

25. taula *Eskolatik kanpoko kirol-aukerak neskeentzako.*

etapak	ezer ez	ikastetxetan	klubetan	kaleetan	emakume sekzioa
1-	4	0	2	0	1
2.	7	1	2	1	0
3.	3	7	4	0	0

Eskola barruan legez, ikastetxeen betebeharra gero eta handiago bihurtu zen, eskola-orduetatik kanpoko jarduera fisikoetan. Goraipatu behar da Emakume Sekzioaren inportantzia datu bi azalduz. Alde batetik, 1. etapako hurrengo hiru andra , emak.10, emak. eta emak.16 beraien hasierako kirol-urratsak erakunde honen barruan izan ziren, hortik beraien formakuntza sakontzen joan zen. ESa baino ez zegoen kirola egiteko emakumeak. Bestetik, ikastetxe batzuetan jolasten saski-baloira hasi ziren informatzaile batzuk (ejait zegoen beste aukerarik, ESak Medina taldeekin goi-mailako emakumezko-kirola kontrolatu nahi zuten. Gogora dezagun Medina talde hauek estatu osoan zehar zeudela, eta ESren taldeak ziren guzti hauek.

Emak.9 Ingalaterran bizi zen bitartean parkeetara joaten zela jolastera eta kirola egitera, hango jendea bezala, eta honek eragina izan zuen berarengana naturarekiko.

Jende askok ez zuen izan aukerarik ikastetxetik at, bertan frankismoaren lehenengo urteetan, 3. etapan ikastetxeen eskaintza guztiz aldatuta zegoen (taulan agertzen diren datuak kontutan hartuz) eta handiago bihurtu zen. Kluben partehartzea etapa honetan ezin bestekoa da, etapa guztietan agertuz. Zoritzarrez, gehinentzako aukerarik ez zegoen. “Noooooo, qué va, nada...“. (emak.6). “Ninguna“. (emak.19). “No había nada“. (emak.24). “No, nosotras jugábamos con la

comba, y todas esas cosas...No, no había equipos, entonces no había equipos....” (emak.5). “No, no, no”. (emak.12). “No, no había nada”.(emak.15).

Desberdintasunak ikusten ziren neska eta mutilentzako zeuden aukerak. Behintzat estatuko edota udalako eskolak. “No, no, para nada, para los chicos sí pero para las chicas nada”. (Eskola publikoa). (emak.25)

Orduan kaleko jolasak jarduera fisiko bakarra izaten zen normalean. “(...) andar en bici patinar, jugar al fútbol, los juegos de calle que ahora están volviendo, las tabas, los iturris, las pelotas...Oferta no había nada” (emak.16).

Klub batekokideak izaten sorte zutenentzako egoera berezia zen. Bertan kirol-aukera gehiago zeuden eta. “(...) pertenecía a un club”(emak.18).

(...) porque no necesité. Eramos socias del club y jugábamos, eramos socias de otro club, nadábamos, ha sido relacionado con la vida. En Plentzia todos los veraneantes eramos socios del club Kaieder. Había quien no hacía nada y había quien hacía.(emak.2).

Gehien egiten ziren jarduera fisikoak baloi-kirolak ziren: saskibaloia, eskubaloia. “Sólo el baloncesto”. (emak.27). “(...) balonmano y baloncesto. Aunque luego como ya he dicho era un colegio liberal eh...yo me acuerdo que en los recreos patinaba, se patinaba bastante....” (emak.28).

Boleibola, “balucom”i buruz hitz egin didate baita ere, nahiz eta batzuk bigarren mailakoak kontsideratu kirol horiek. “(...) balonbolea, basket y balonmano” (emak.23). “(...) entonces, baloncesto había...también había balonbolea que había compañeras que jugaban.” (emak.20). “Sí, jugábamos a baloncesto, jugábamos al balucom le llamábamos y luego había unos juegos de tres equipos del colegio de diferentes cursos” (emak.21)

Aipamen berezi bat egin zuen emak.28ak nola ere ikastetxeko futbolearen ari zena: “(...) en mi época hubo incluso una niña que jugaba a fútbol.” Baina ez zekienez ezer gehiago informazio-bide hori itxita gelditu zen. Pasadizo bat baino ez zen izan.

Aurreko kategorian ikusi den legez, ikastetxe gutxik eskeintzen zuten kirol jarduerak hasiera batean. Denborarekin, gero eta gehiago zeuden, bai ikastetxe batzuetan bai klub batzuetan. Kaleko jolasak eta jokoak jakina praktikatzen zirela eskaintza hori hedatu arte. Bitxia da nola emak.25k dio mutilentzako baietz zegoela baina ezer ez neskeentzako (berak Gurutzetako eskolan ikasi zuen), hona hemen beste adibide bat zer desberdintasunak zeuden generoa kontutan eskolatik kanpoko kirol eskeintzan. Aukera onena ikastetxe pribatuetan zegoen, baina klase-ordutik at eskaintza zabalegi ez zegoela argi eta garbi gelditzen da. Jakina, guzti honetaz aparte klubak zeuden, beraien papera betetzen baina eskusiboki beraien bazkideentzako.

26. taula. Zer kirol- aukerak gehien egiten ziren eskolatik kanpo (neskak).

KIROLA	1. ETAPA	2. ETAPA	3. ETAPA	GUZTIRA
Igeriketa	2	0	0	2
Irristaketa	1	0	1	2
Balncor/ Balucom*	0	1	1	2
Saskibaloia	1	6	1	8
Eskubaloia	0	0	2	2
Boleibola	1	0	3	4
Futbola	0	0	1	1

*Balucom: zelai errea (emak.21-en azalpena).

Praktikak kaleetan oso garrantzitsuak izan ziren urteak eta urteak ez bait zeuden leku gehiago kirolerako, honen adibide argia izan daitezke balucom eta irristaketa. Gainera kaleetan jolasteko ohitura zegoela hiru etapetan.

Igeriketa egiteko klubak beharra zegoela ezin da ahaztu, nahiz eta eskolatik kanpo izan jende guztiarentzako aukera hau ez zen hain hurbil izaten, hain herrikoa izaten.

Aurrekoan agertzen denaren arabera lagungarria izan daiteke hobe ulertzeko nola izan zen posible saskibaloia hedapena Bizkaiko emakume-kirolarien artean, eskeintza handia zen bereziki

